

CRISTABAREN IKASBIDEA



ET LOBOA N

F. MUGERZA-REN MOLDAKINTZAN

ATV
7-205



M-8574
R-36237

ATV
7.205



KRISTABAREN IKASBIDEA

KLAUDIO FLEURI

ABADE JAUNAK

ARGITARA ATERA ZUANETIK

UBILLOS-KO PRAY JUAN ANTONIOK

EUSKERARA ITZULIA

Bi parte ditu: lenengoan,
lege zarreko ta berriko gertaerak daude,
eta bigarrenean, ikaskizunak.



BEAR DAN BAIMENAZ.

TOLOSAN

Franzizko Mugerza-ren moldakintzan.

1909.

LICENCIA.

En vista de la censura que ha merecido la Obra titulada «KRISTABAREN IKASBIDEA», que se propone editar D. Francisco Muguerza, vecino de Tolosa, damos nuestra licencia para que se imprima y publique, toda vez que no se ha encontrado en ella nada que se oponga al dogma ni á las buenas costumbres.

Vitoria 29 de Octubre de 1909.

Dr. Ignacio Hernández.

Sr. D. Francisco Muguerza,
Tolosa.





ITZ-AURREA

IZKUNTZ bakoitzak, itz egiteko, berezko ta bere echeko itzak ditu: gure Euskerak beintzat bai. Onez osterontzeko geienak besterenak dituzte. Ezpere erderari begira, ta ikusiko dezu, geienak latín-izkuntzarenak dituala, ta oez gañerakoak nork daki non-goak eta norenak diran. Berezko itz oek izkribatzean ta esatean, bakoitzari dagokion tokian ezarri bear dira. Euzkeraz darauskizunean, Euskerazko itzak ezpadabilzkitzu, zure erausia, itzunea edo *barbarismoa* dala esango dizute; eta itz bakoitza dagokion tokian sartzen ezpadezu, zure itz jariori araututsa edo *solezismoa* deituko diote. ¡Euskerazko sermoietan bost onelako entzuten ditugu! Ala baña, zori gaiztoan dakigun bezela, euskaldun guchik nekatu nai du Euskerazko itzak billatzen eta bakoitza bere tokian ipintzen. Euskerazko itzak ongi ezpadirudi, edo oitua ezpada, ura utzi ta aren ordeez, ark esan nai duana adierazteko diña dan beste bat

artu diteke. Orañ, gizon andi jakintsu batek, egiteko onen gañean diona, adi zazu: Gizon au da...

Fr. Laurentius á Villavicentio, in suo opere *De recte formando studio Theologiæ*, lib. III. cap. VIII. pag. 391. edit. noviss.

Quid dicam de sermone patrio gan non et huic sua relictæ est palestra, et arena? Maxime: inquam. Nam quo quis sermonis patrii est peritior, et in eodem dissertior, eo judicatur ad docendum populum magis idoneus. Ac decet omnino Concionatorem aliquid supra vulgus præstare in sermonis patrii munditie ac puritate: et non modo verbis quibusdam elegantibus ac exquisitis; verum etiam copia eorundem locupletatum prodire. Puritatem sermonis patrii non haurias, nisi vel ex familiari convictu eorum, qui tersissime et nitidissime illum sonant, vel ex libris commendatissima Dialecto editis.



I. IRAKURTZA.

MUNDUAREN EZEREZ-ETIK EGITEAZ

Jainkoak bere itzez eta bere naimenez ezerez-etik mundua egin zuan, bere glori edo bere izate andi ezin ederragoa agertzeko. Jainkoak mundua sei egunean egin, eta zazpigarrenean atsedean zan. Gizona egiteko lenbizi gorputz bat lurrez moldatu, eta gorputzari Jainko Beraren antzeko anima bat ezerez-etik egiña eman zion. Gizona Jainkoaren imajiñ eta antzekoa da, Jainkoa eza-gutu eta maita dezan; gizona orretarako egiña data. Lenengo gizonari ADAN zeri-



Adanen saietsetik Eba atera zan.

tzan; onen saiets-ezur batez, bere lagun izan bear zuan emakumea Jainkoak egin zuan, biak gorputz bakar bat baizik ezpalukete bezela, alkar maitaturik, alkarrekin bizi be- arko zutela, jakin zezaten; eta aurreneko ezkontz edo matrimonia Jainkoak onela egin zuan. Lenbiziko emakumeari EBA zeri- tzan. Adan eta Eba, biak, Jainkoak Paradisoa zeritzan berjera, lore-baratz edo toki zabal eder batean ipiñi zituan, zorionekoak bezela, atsegin-pozkidaz eta bear zuten guziaz bete- rik an bizitzeko. Paradiso artako fruta gu- zia aukeran zeuzkaten, nai zutenean jate- ko; zuaitz edo arbola baten frutua baizik Jainkoak etzien debekatu. Larru-gorrian ibi-

lliagatik, etziran batere lotsatzen; alabaña ez gaizkirik, ez gaitzerako griñarik eta gogorik etzuten. Beren erara, ill gabe ta neke gabe biziko ziran, eta noizbait Jainkoak eriotzaren ortzetara gabe emengo Paradisotie Zerukora eramango zituan. Jaincoak, gizon-emakumeaz gañera, Aingeruak egin zituan: oek gorputzgabeko izpiritu uts batzuek dira.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

- G. Mundua ¿nork egin zuan?
- E. Jainkoak.
- G. ¿Zerzaz?
- E. Gairik gabe edo ezer-ezetik
- G. Eta ¿nola?
- E. *Egin bedi* esan, eta beste gabe.
- G. Eta ¿zergatik?
- E. Bere gloriagatik, edo bere izate ta edertasun neurri-gabeak erakusteagatik.
- E. Lenbiziko gizona ¿zerzaz egin zuan?
- E. Gorputza lurrez.
- G. ¿Eta anima?
- E. Ezer-ezetik.
- G. Gizonak ¿noren antza du?
- E. Jainko Berarena.
- G. Jainkoak gizona ¿zertako egin zuan?
- E. Jainko Bera ezagutu ta maite izateko.

G. Lenengo emakumea, ¿zerzaz egiña da?

E. Gizonaren saiets-ezur batez.

G. Eta ala ¿zergatik?

E. Biak aragi batezkoak zirala adierazteagatik.

G. Lurreko Paradisoa ¿zer zan?

E. Jainkoak Adan eta Eba ipiñi zituan lorezko baratz eta suaitz frutadunez betetako berjera eder bat.

G. Paradiso artan, ¿nolako bizitza izango zuten?

E. Guziz zorionekoa.

G. ¿Noiz ilko ziran?


E. Inoiz ere ez.

G. Aingeruak, ¿zer gauza dira?

E. Gorputzik ez duten, izpiritu utsak.



Aingeruen bekatua ta beren ondamena.



II IRAKURTZA.

GIZONAREN LENBIZIKO BEKATUA.

Aingeru guziak Jainkoak egin zituanean, onak ziran, eta batzuek beti onean iraun zuten; baña besteak gaiztotu ziran, eta orre-gatik Jainkoak inpernuko su-leizean sekulako ondatu zituan. [Aingeru gaizto oek gizonai bekatu eragin edo bekaturako tentatzen diarduen deabru edo demonioak dira. Izpiritu gaizkin oetako batek, sugearen aotik Ebari itz egin, eta sagar debekatua jan-erazi, eta Eba berak jan ondorean, bere senar Adani jan-erazi zion. Orduan Jainkoak suga madarikatu, eta aren burua ausiko zua-



Adan eta Eba Paradisotik ateratzen ditu.

na, emakumeagandik etorriko zala, edo demonioa garaitu ta aren esku ta egiñ al guziak galduko zituan munduaren zuzentzalle eta salbatzallea emakumeagandik jaioko zala, adierazi zuan. Adan eta Eba, bekatuagatik Jainkoak Paradisotik atera zituanean, chit gaizki gelditu ziran; grazia eta grazi onek zerurako oman zien esku ta derecha galdu zuten; zeruko gauzen jakiundea ere bai, eta inpernuko etsaien eta erioaren atzapar gaiztoetan erori, eta bekatuak asaldatau zien gutizi, gurari oker eta griñaz, gaitzeronz makurtuak gelditu ziran. Adanek etzuan umerik izan, bekatu egin ezkerro baizik; eta orregatik aren umeak eta ondorengo guziok bizi-

tzen asi orduko, jaio ere baño len, bekatuz zikinduak eta bekatuari darraizkion kalte ta neke guzien azpian, amaren sabeletik arkitzen gera.

GALDEAK TA ERANTZUNAK.

G. Demonioa ¿nor da?

E. Bere egille Jainkoaren kontra jarri zan aingeru gaiztoa.

G. Eta Jainkoak ¿zer kastigu eman zion?

E. Betiko sua.

G. Aingeru gaiztoa ¿zertan ari da?

E. Gizonak tentatzen eta Jainkoa aren bekatuaz nola aser-eraziko duen erakusten.

G. Lenbiziko gizona ¿nola tentatu zuan?

E. Etsai gaiztoak sugea artu zuan, eta onen ezpañez emakumeari esan zion, Jainkoak eragotzirik zeukan sagarra jan zezala.

G. Eta emakumeak ¿zer egin zuan?

E. Berak jan eta senarrari jan erazi.

G. Eta lan gaizto au ikusi, ta Jainkoak ¿zer egin zuan?

E. Sugea madarikatu.

G. Adan eta Eba ¿nola kastigatu zituan?

E. Paradisotik ateratzen zituala.

G. Zer agindu zien?

E. Sugearen burua emakumeak ausiko zuala.

G. Orrezaz ¿zer esan nai zuan?

E. Demboren buruan demonioaren esku ta indar guziak garaitu ta galduko zituana, emakumeagandik jaioko zala.

G. Bekatu egin ezkerro, gizona ¿nola gelditu zan?

E. Animan eta gorputzean guziz errukarri ta zorigaitzean.

G. Gorputzean ekusi bear zituan gaitzak, ¿zer ziran?

E. Mota guzietako neke, eritasun, gaitz eta eriotza.

G. ¿Eta animan?

E. Jakin-eza ta bekaturako gutizi ta jario makurra.

G. Adan eta Eba, senar-emazteak, aurrak ¿noiz izan zituzten?

E. Becatu egin eta geroz.

G. ¿Orrela gurasoen bekatua umeetara ere igaro zan?

E. Bai, umeetara, umeen umeetara, oraindaño jaio diran, ta munduaren azkeneraño, jaiokizun dauden ume guzietara; eta orregatik, Jesukristo ta bere Birjin Amandrea, ez, beste guziak bekatu au berekin dutela jaio-tzen dira.

G. Bekatu orri ¿nola deritza?

E. Jatorrizko bekatua.



Kain-ek bere anai Abel iltzen du.

III. IRAKURTZA.

UGOLDEA TA LEGE JATORRA.

Kain eta Abel, Adan eta Ebaren lenengo semeak ziran. Abel ona zan, baña Kain gaiztoa ta bere anaia ona izatea ezin eramanzuana; eta orregatik bizia kendu zion. Kain bezela aren ondorengoak ere gaiztoak izan ziran. Adanek, Seth zeritzan beste seme bat ere izan zuan, eta seme onen ondorengoak Goiko-Jaunaren bildurtasuna ta ezagüera, aldi batean iduki zuten; baña oek ere ezkontz gaiztoakin nastuta, gaiztotu ziran, eta orregatik Jainkoak ugolde batean guziak itorik uzteko asmoa artu zuan. Seth-en ondorengo



Ugoldea.

guzien artean Jainkoak erruki zionik Noe bakarrik arkitu zan. Oni Jainkoak munduko guziak galtzeko zeukan egin-gogoa adierazi zion, eta ontzia bezelako kucha andi zabal bat, egazti ta abere-mota guzietatik ar-emeak beregan idukitzeko diña izan zitekena, egin zezala, esan zion. Noe bere iru seme-errain eta abereakin kuch-ontzian sartu zaneko, eudiari eraso zion, eta berrogei egun eta gau, beñere atertu gabe iraun zuan, lurdi guzia eudi-jaza ikaragarri batek estaltzen zuala. Gizon, emakume, abere, egazti ta pizti guziak ugolde artan ito ziran, eta Noe, onen emaztea, bien iru seme ta oen iru emazteak baizik etzan iñor bizirik gelditu. Guzitara zortzi persona ta kuchan gorde ziran bizidunak.



Babel-ko Dorrea:
Izkuntzen naspilla ta jendeen sakabanatzea.

Urak guchitu ziranean, Noe bere echetar gu-
ziakin leorrera irten zan, eta urteen buruan,
oen ondorengoakin mundua berriz bete zan,
eta orrela guziok alkarren senideak gera;
baña ondorengo oek ere asko luzatu gabe,
aurrekoak baño aregoak eta are gaiztogoak
egin ziran. Beren egizko Jainkoa alde batera
utzi, eta beren burutik asmatu zituzten gezu-
reezko jainkoetara jarri ziran. Batzuek Jain-
kotzat eguzkia artu zuten, besteak illargia,
besteak gogoak eman zien edozer gauza. Gu-
rasoentzat begiramenik eta errespetorik etzu-
ten; guziak aragizko bekatubari eman zio-
ten; alkar ikusi ezin zutela, gorrotoz sumin-
durik, gizon odol-giroen eran zebiltzan, eta
giz-erailleak edo gizon iltzalleak, lapurrak

eta gezurtiak ziran. Gaiztakeri oek etzituen jakingabez egiten, ezpada jakiñaren gañean. Lapurreta, ta gañerako alkarri egiten zizten dollorkeri ta bidegabeak gauza gaiztoak ziralak jakiteko, etzuten galdetzen zer ibilli. Bazekiten, eta nork nai daki bere burutik, besteri ezdegiola, beretzat nai ez lukeana. Geren burutik degun argi eta ezagüera oni *Lege jatorra* edo ekarraizko legea deritza.

GALDERAC ETA ERANTZUERAK.

G. Munduko lenengo gizerailea edo gizon-iltzallea, ¿nor izan zan?

E. Kain, bere anai Abel il zuan, Adanen seme bat.

G. ¿Zergatik il zuan?

E. Bera bañon obea izatea, ezin ekusi zualako.

G. Gizon guziak, Kain bezela ¿gaiztoak izan ote ziran?

E. Geienak beintzat bai.

G. Eta guzien artean Jainkoaren gogoko zanik ¿bat bederik ez al zan?

E. Bai, jauna, bat bazan, Noe zeritzaiona.

G. Eta gizon gaizto aek kastigatzeko, Jainkoak ¿zer egin zuan?

E. Egi, aldapa, mendi ta mundu guziarekin batean, itoak utzi zituan, orretarako bear zan ugoldea, odei-itsasoetatik biraltzen zuala.

G. Noez ¿zer gertatu zan?

E. Ito gabe kuch-ontzian, Jainkoak gorde zuan.

G. ¿Noe bakarrik bizirik gelditu al zan?

E. Noe bere echekoakin.

G. Eta ¿zein geigo?

E. Lurrean dabiltzan abere edo animalietatik, eta aidean egatzen diran egaztietatik pare bana.

G. Gizon-emakume guziak ¿alkarren anaiak al dira?

E. Bai: guziok Adanen eta Noeren odole-tik gatozelako.

G. *Lege naturala* deritzan jaiozko lege jatorra ¿zer gauza da?

E. Gauz ona zer dan, ta gauz gaiztoa zer dan, erakusten digun, geren buruko argi ta ezagumena.

G. Jaiotzetik degun argi onek ¿zer erakusten digu Jainkoaren alderakonz?

E. Jainkoa bakarrik onratu ta adoratu bear degula, edo Jainkoari bakarrik gurtu bear gatzaikiola.

G. ¿Eta gizonen edo lagun-urkoen alde-rakontz?

E. Bestek guri egitea naiko ez gendukean gauzik, inñori egin ez dizaiogula.

G. ¿Ta geren alderakonz?

E. Geren pasio, griña, gurari, gogo gaizto ta gaitzerako makurkeria ezi, bezatu ta eskuratu egin bear degula.



Isaak-en sakrifizioa.

IV. IRAKURTZA.

ABRAAN ETA BESTE AITALEN
EDO PATRIARKAK.

Noe-ren ondorengo gizonik geienak, aurrekoak baño gaiztogoak baziran ere, oen artean baziran batzuek Jainkoaren sinismen eta ezagüera zutenak, eta berezko argi edo Lege jatorrak erakusten ziena, egiten zutenak. Sem zeritzan Noeren seme baten odol eta arrazatik zetozenak, orrelakoak ziran, eta guzien artean ongien zebillena Abraan zan. Oni, Jainkoak bere asmoak agertu zizkion, baldinezko alkartasun bat egiñik, era ontan agintzen ziola: Abraan, baldin zuk nere esa-

nak egiten badituzu, ni zurekin izango naiz, eta zure egiteko guzietan lagunduko dizut: ea bada, zere erritik bereala irten zaite: ezin kontatu al adiña jenderen guraso ta aitona, nik egingo zaitut; zure ondorengoai Kanaan-go bazter eder ugariak emango diztet, eta ondorengo orietan munduko guziak bedeinkatuko ditut; esan balio bezela; munduaren Salbatzallea zure odoletik jaioko da. Abraan-ek au guzia sinistu zuan, eta bien arteko batze, alkartze ta itzaren ezagun-bide ta señaletzat, Jainkoak Billebaiketa edo Zirkunzisia eman zion. Billebaiketa zan, gorputzaren alde minbera batetik aragi piska bat kaniibetaz kentzea. Jainkoak Abraan-i Isaak zeritzan seme bat eman zion; eta orakutsi ziona sinistu, eta esan ziona egingo ote zuan progatzeko ta ekusteko, doneskañi edo sakrifizioan, bere seme maite au, aldare baten gañean bizia kendu eta eskañi zezaiola agindu zion; baña Abraan-i bere semearen gain kolpea ezartzeko besoa jaso zuanean, Jainkoak eragotzi zion. Isaak, Jakob edo *Israel* zeritzan, seme baten Aita izandu zan. Jakob eta Israel deitzen zan: onek amabi seme izan zituan. Amabi oek *Patriarkak* edo Aitagoyak ziran, eta amabi tribu edo amabi echadiko guraso, buru ta nagusiak; eta Israeltar guziak, oetatik dato. Amabi oezaz gañera, orduraño bizitu ziran gizon santuai ere, orrela deritzate.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Ugoldea igaro ezkerro, Lege jatorra edo berezko argia, ta Jainkoaren ezagüera, ¿non gelditu zan, eta norgan iraun zuan?

E. *Sem-en* echekoetan, eta ondorengoetan.

G. Jainkoarekin aditu zana, ta itz eman ziona ¿nor zan?

E. Abraan.

G. Jainkoak ¿zer agindu zion?

E. Bere Erri, eche ta echekoak utzi zitzala.

G. Eta ¿zer eskañi zion?

E. Aren odoletik eta arrazatik jaioko ziran ondorengoen umedi luze-zabal andi bat.

G. Eta ¿zer geigo eskañi zion?

E. Kanaango Erri ta bazterrak emango ziozkala.

G. ¿Eta geigo besterik eskañi zion?

E. Bai, eskañi zion aren arrazan eta ondorean, munduko guziak bedeinkatuak izango zirala.

G. Itz oiezaz ¿zer adierazi nai zuan Jainkoak?

E. Mundu galduaren zuzentzalle ta salbatzallea, Abraan-en odoletik, eta ondorengoen batetik jaioko zala.

G. Eta Jainkoaren eta Abraan-en arteko

eskañi ta itzen siñale ta ezagun-bidea ¿zer zan?

E. Zirkunzisiaoa, edo lenago esan dedan aragi zatichoaren kainibetazko Billebaiketa.

G. Abraan-en semea ¿nor zan?

E. Isaak.

G. Eta bere semeari ¿zergatik bizia kendu nai izan zion?

E. Jainkoaren esana egiteagatik.

G. Eta Jainkoak ¿zergatik agindu zion?

E. Berekiko aren leialtasun, sinismen eta fedea progatzeagatik.

G. Jakob ¿nor zan?

E. Isaak-en semea.

G. Beste izenez ¿nola zeritzan?

E. Israel.

G. ¿Zenbat seme zituan?

E. Amabi.

G. ¿Nola zerizten?

E. Patriarkak edo Ait-aurrenak.



Jose bere anaiac saltzen dute.

V. IRAKURTZA.

IJITOKO KATIBUTASUNA ETA PAZKOA.

Jakob-en semeak beren anai Jose-ren ongia ezin eramanik dirutan saldu zuten. Erosleak artu ta berekin, Ijitora eraman, eta an besteren mendean katibu luzaro egon zan; baña Jainkoarekin beti leial; eta orregatik katibutasunetik atera ta Ijitoko Erregeren urrengo gizon izatera eldu zan. Bere anaiak barkatu zion, eta beren Aita echeko guziakin batean, Ijitora etorrerazi zituan. Oek il eta oen semeak Ijiton arrigarritzko eran geitu ziran. Lengoaren ondoren Ijiton sartu zan beste Errege batek, indartsuegi egin eta esku

geiegi artu zezaten bildurrez, lanak lanen gañean emanaz, nekerazi, eta aen artean jaiotzen ziran seme guziak ere, iltzeko agindu zuan. Jakob-en billobak eta ondorengoak Ijiterrietan zeramaten nekeaz, Jainkoa urrikaldu zan, eta nekepetik ateratzeko, Moises zertzan gizon andi bat, bere anai Aaron lagun ematen ziola, biraldu zuan. Oek Faraonekin egondu ziran (au zan Ijitoko Errege guzien izena) eta Jainkoaren izenean agindu zioten, maite zituan Israeltarrai edo Jakob-en odolekoak ziranai, Ijitetik irteten utzi zezaiela. Faraoni au asko bider esan zioten, eta ainbat bider ukatu zan, eskatzen zitzaiona egitera; eta eragiteko, Moises-ek, Ijitoko plagak, gaitzak, lazeriak derizten mirari, ta ekusteko asko ta ikaragarriak egin zituan. Gauz oek igaro ondoan, Israeltarrak noizbait Ijiterrietik irten ziran; baña irten baño len, eche bakoitzean bildots bat il, eta aren odolaz eche guzietako ateak busti ta seinalatu zituzten, eta Jainkoak agindu zien Pazkoa, ala egin zuten. Pazkoak, *Igarotzea* esan nai du: eta Jainkoak Ijitetik atera ta beren jaiot-erri ta bazterretara igaro ziranaz beti oroi zitezen, Ijitoko Erregeren eskupetik irten ziranen egin zuten bezelako bildots-apari bat, urteoro egin bear zuten: eta Israel-tarren ateratze, irtete ta igarotzean, guziok bekatupetik eta inpernuko etsaiaren mendetik noizbait atera,

eta zeru zabal gozamenez betera eramango
ginduala, Jainkoak berak adierazi zuan.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK

G. Jose-ri gertatu zitzaizkan gauzak esan
itzatzu.

E. Bere anaiak begitan artu ta saldu zu-
ten: Ijiton Faraonen menpean katibu luzaro
egon, eta gero Erregeren urrengo gizon eta
adiskide izateraño igo zan.

G. Ain goiti, eta alako eskuz zegoala, be-
re anaiak ¿nola artu zituan?

E. Egin zioten gaizkia barkatu, eta beren
sendi edo echetar guziakin batean, Ijitora
erakarri zituan.

G. Jakob-en semeai ¿zer gertatu zitzaien
Ijiton?

E. Chit ugaritu ziran.

G. Eta Faraonek ¿zer egin zien?

E. Guziak galdu ta bukatu nai izan zituan.

G. Estutasun artan ¿nork lagundu zien?

E. Jainkoak.

G. Eta Jakob-en seme ta ondorengoak
Ijito-tarren nekepetik ateratzeko, Jainkoak
¿nor autu zuan?

E. Moises.

G. Eta Moises-ek ¿zer egin zuan?

E. Faraoni, Jainkoak agindu ziona eragi-

teko, ekuskarri eta mirari andi ikaragarriak egin zituan.

G. Pazkoa ¿zer zan?

E. Israeltarrak Ijitotik irten ziran gau artan apaldu zuten bildotsa.

G. Bildotsaren odolaz ¿zer egin zan?

E. Israeltar guzien echeetan señalet bat ipiñi.

G. Ijitotik irteteaz, ¿zer adierazi zuten Israeltarrek?

G. Jainkoak gizon-emakume guziak bekatupetik eta inpernuko etsaiaren atzaparretatik noizbait aterarako zituala.



Israeltarrek Ichaso Gorria igarotzen dute,
ta Ijitoen ondamena.

VI. IRAKURTZA.

ISRAELTARREN EREMUKO BIDEA TA LEGE
IZKRIBATUA.

Israeltarrek edo Jakob-en ondorengoak Ijitopean zeramaten morrontzatik Jainkoak atera, eta aen aurrekoai eman zien itzari zerraikala, Kanaango bazterretara edo aginsariko lurrera eraman zituan. Israeltarren bidezko joate onetan, Jainkoaren mirari eta ekusteko andiak gertatu ziran. Bekaizturik eta aserreturik zerraiten Faraonegandik iges egiteko, Ichaso-Gorriaren erdian, oñik busti



Moisesi Jainkoak legea ematen dio.

gabe igarotzeko, bide leor zabala idiki zien. Eremu edo mendi luze batetik, eraman zituan, eta sats-arte aetan, intza bezela gauoro zerutik erortzen zan Mana zeritzan janari gozo bat jateko, ta aitz batetik jaio erazi zuan iturriko ura edateko, ematen ziela, berrogei urtean mantendu zituan. Bidez asi ziranetik, *Sinai* deritzan mendi batera laster eldu ziran, eta an Jainkoak Ijito-artetik irtetea egin zuten lenbiziko Pazkoatik berrogei ta amargarren egunean, bere legea ta borondatea erakutsi zien. Mendi gañean suz, kez, ortots, edo turmoi ta chimistaz betetako odai ikaragarri bat agertu zan. Azpiko aldean zeuden Israel-tarrak, tronpeta izugarri baten soñua entzun

zuten, eta odai artetik oju bat irten zan, esaten ziela: »Ni, Ijitoko nekepetik atera zinduz-
»tedan Jaun Jainkoa naiz.

1. »Nere aurrean inola ere ni beste »Jain-
»korik ez dezu idukiko. Idolorik edo gozu-
»rrezko jainkoaren anz-irudi ta imajiñik, ari
»agurrak egiteko, ez dezu idukiko.

2. »Zere Jaun Jainkoaren izena, ez dezu
»alperrik aotan artuko.

3. »Jaiegun edo zazpigarren eguneko
»atsedete, desneke edo deskantsua gordeko
»dezu.

4. »Zere ait-amak ondra itzatzu, ta orrela
»Jainkoak zuretzat daukan aginsariko lurre-
»an, luzaro biziko zera.

5. »Inor ilko ez dezu.

6. »Aragizko bekaturik egingo ez dezu.

7. »Ebatsi edo ostuko ez dezu.

8. »Lagun urkoaren gain gezurrezko le-
»kukotasun, asmakera edo testigantzarik
»esango ez dezu.

9. »Lagun urkoaren emazterik naiko ez
»dezu.

10. »Lagun urkoaren ondasunak gutizia-
»tuko ez dituzu.

Orra, Jainkoak bi ar-losatan izkribaturik,
Moisesi eman ziozkan amar aginduak. Oek,
eta lege naturaleko edo lege berezko agin-
duak berdiñak ziran; baña nola aztuaz zijoa-
zen, orregatik Jainkoak arrizko oletan izkri-

batu zituan. ¡Orduko gizonen gaiztakeria andia zan!.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK

G. Israeltarrak Ijitetik irten ziranean, ¿nora joan ziran?

E. Jainkoak agindurik zeukan Kanaango lur aberatsera eraman zituan.

G. ¿Zertako eraman zituan?

E. Lenagotik agindu zuana egiteko.

G. Itsaso gorritik ¿nola igaro ziran?

E. Jainkoak uren erditik bide leorra egiten ziela.

G. ¿Nondik joan ziran?

E. Ereму, sas-arte edo mendi luze zabal batetik.

G. Ereму artan zebiltzanean ¿zer jaten zuten?

E. Jainkoak zerutik biraltzen zien *Mana* zeritzan janari zuri gozo bat.

G. Eta urik etzutenean, ¿nondik edaten zuten?

E. Jainkoak aitz batean sortu zuan iturri ugari batetik.

G. Jainkoak bere legea, naia edo borondatea ¿noiz erakutsi zien?

E. Ijit-erritik irten ziranetik berrogei ta amargarren egunean.

G. Legea ¿non erakutsi zien?

E. *Sinai* deritzan mendiaren gañean.

G. Mendi ura orduan ¿nola zegoan?

E. Guzia ortots, trumoi, suz ta chimiztez irazekia.

G. Jainkoak Israeltarrai *Sinai*-ko mendian eman zizten aginduak, esan itzatzu.


E. Lenengoa: «Ijitoko nekepetik atera zindudan zure Jaun Jainkoa ni naiz.» (gañerakoak, amarretaraño, lenago esan ditugun eran.)

G. Eta agindu oek, ¿izkribaturik al zeuden?

E. Bai, arrizko bi oletan.

G. Agindu oek ¿berriak al ziran?

E. Inola ere ez, lenagokoak edo berarizko legeko ber-berak ziran.



VII. IRAKURTZA.

ISRAELTARRAKIN JAINKOAREN TESTAMENTUA EDO ALKARKIDEA.

Jainkoak nairik, *Testamentuko arka* zeritzan kuchacho bat, kanpotik eta barrendik urrez estalia, Moises-ek eragin, eta kuch onetan ol legedunak ipiñi zituan. Kucha gordetzeko Tokiari *Tabernakuloa* zeritzan, eta bidez zebiltzanean, orraz alda zitekean oial ederrezko estalpe bat eragin zuan. Echechoaren aurrez, Jainkoari sakripizioak, ofrendak eta eskañiak egiteko aldare bat zegoan. Denbora artako eskañiak ziran bildots, chekor, ari ta idiai lepoa kendu ta aldarea-

ren gañean erretzea; eta denbora artan one-lako eskañiak egiñaz, Jainkoari zor zaion adorantz, agurmen, onore, esku-muiñ eta begitartea egiten zitzaion. Jainkoari eskañi oek egiteko ta beraren aurrean ipintzeco, Aaron eta bere semeak Apaizen erakoak ziran; eta eleizcho edo Tabernakuloa zaitu ta ango gauzak zuzentzea zan, gañerako Lebitarrak edo Lebi Patriarkaren ondorengoak egin bear zutena. Kucha ta eleizchoa, Jainkoak Israel-tarrakin egin zuan Testamentu, edo alkarkidearen adiragarria ziran: eta alkarkide au, Jainkoak Abraan-ekin egin zuana bera zan; Jainkoak oen gurasoi egindako eskañi, aginde ta itzak, Israelarren alde berritu zituan. Jainkoak Israeltarrai, berriro agindu zien, bere Erritartzat artu, Kanaango lur ta bazter ugarietan sartu, ta ondasunez beteko zituala. Lur aberats ura, Jainkoak guri agindurik daukan zeru ta ango egoera atsegiña ongi adierazten digun adiragarri ta iduria da. Israeltarrek beren aldetik Jauna ez beste Jainkorik ez eza-gutzeko ta Jaun Bera biotz osoz maitatzeko ta onirizteko itza eman zuten, baita esan ere, itzez ziotena egiten ezpazuten, Jainkoari nai zekiola aek Kanaango lur zorionsutik bota, ta bearrez eta premiz beterik, nekezko bazterretan erabiltzea. Orra Jainkoaren eta Israelarren arteko itzak; itz



Josuek eguzkia ta illargia geldierazten ditu.

oek, utsegingabe gorde bearko ziralako si-
ñalezat, Moisesek isipu bat artu, eta Jain-
koari aldarearen gañean eskaintzen zitzaiz-
kan aarien eta idien odolaz, Israeltarrak
eta an arkitzen ziran gañerako gauzak bus-
ti zituan. Jainkoak bere aldetik zegokana
egin zuan: Jordan-go ibaia goronz, bere jaiot-
bururonz itzuli erazi zuan; geldirazi zituan
zeruan boren bidean lasterka zijoazen eguz-
ki ta illargia, ta Israeltarrak Kanaango erri
ederren jabe egiteko, bere al eta indarra, bes-
te onelako mirari asko egiñaz agertu zuan.
Israeltarrak, Jainkoak aientzat agindurik
zeuzkan Kanaango bazterretan noizbait sartu
ziran; lur guzia amabi parte edo zati egin

zuten, ta amabi Tribu edo echadietatik bakoitzari parte bat eman zitzaion. Baña Israeltarak Jainkoari eman zioten itza urratu, Beraren lege santua ausi, eta aren esanik bat ere etzuten egin. Amar bider baño geiagotan azaldu ziran bidean, eta Kanaan-go lurrian sartu ziran, an lenagotik bizi ziran jendeakin bat egin, eta Jainkoak agindurik zeukan bezela, aien idolo ta gezurrezko jainkoak galdu-lekuan, egizko Jainkoari bakarrik zor zaizkan agurmenak egin ziozkaten.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK

G. Lege zarreko sakrifizio edo eskañiak ñola egiten ziran?

E. Abere lepogabetu bat aldarearen gainean erretzen zala.

G. Aldarea ñon zegoan?

E. Eleizcho edo Tabernakuloaren aurreko aldean.

G. Eliz-barrunbe artan ñzer zegoan?

E. Testamentuko kucha.

G. Kucha au ñzer zan?

E. Barrendik eta kanpotik urre-olez estalitako kuchacho bat.

G. Eta kuchan ñzer zegoan?

E. Legea zeukaten ol biak.

G. Jaupari edo Jainkoari eskañiak egiten zizkatenak, ¿nor ziran?

E. Aaron eta bere semeak.

G. Lebi-tarrak ¿zein ziran?

E. Aaronez gañera, Lebi Patriarkaren Tribu edo echadian ziran guziak, eta oen egitekoa zan Toki santuko gauzai begiratzea.

G. Jainkoak eta Israeltarrak alkarri eman-dako itzak ¿zer itz ziran?

E. Jainkoaren eta Abraanen artean lena-go igaro ziran itz berak.

G. Jainkoak ¿zer itz eman zuan?

E. Israeltarrai esan zien, bere erritartzat artu, Kanaango lurren jabe egin, eta ondasunez beteko zituala.

G. Lur au ¿zeren antz-irudia zan?

E. Zerua erraz eta argiro adierazten zuan imajiñ edo iduri eder bat.

G. Israeltarrak beren aldetik Jainkoari ¿zer agindu zioten?

E. Jainkoa beren biotz guziz maite izan eta aren aginduak gordeko zituztela.

G. Eta, ori egiten ezpazuten ¿zer?

E. Kanaango edo Agin-Sariko lurretik boteak eta onbearrez eta premiz bukatuak izango zirala.

G. Jainkoak eta Israeltarrak alkarri eman zioten itza ¿ongi gordea izan al zan?

E. Jainkoaren aldetik chit ongi.

G. Israeltarrak Agin-Sariko lurraren jabe

egiteko ¿zer mirari egin zituan Jainkoak?

E. *Jordan* zeritzan ibaia leortu, eta eguzkia ta illargia geldierazi zituan.

G. Eta Israelarrak beren itza ¿nola gordezuten?

E. Chit gaizki.

G. Eremu bidean zobiltzala, ¿zenbat bider jarki edo asaldatu ziran?

E. Amar bider baño geiagotan.

G. Eskeñitako Kanaango erriaren jabe egin ziranean ¿zer egin zuten?

E. Beren egizko Jainkoa utzi, ta inpernu-koak asmarazi zizten idoloak Jainkotzat artu.



VIII. IRAKURTZA.

IDOLATRIA.

Denbora artan Israeltarrek Jainkoa nor zan zekiten jendeak ziran: gañerako guzien jainkoak, euskeraz *ze-agiak* derizten idolo edo jainko gezurrezko, ta Jainkoaren ichura ta pigura ichusi utsa bai, baña Jainkozko izanik bat ere etzutenak ziran. Orduko gizonen ardura ta gogo guzia gorputzari zegozan atsegin lizun gaiztoen gogoa zan; beren animaz eta Jainko izpiritu uts garbi, zerua-ren eta lurraren Egilleaz, etziran bat ere oroitzen. Buruak eman eta ezin konta-al adiña jainko asmatu zituzten, bakoitzari, erria-

ri zegokan izena eman, eta guziakgatik mila gezur eta ipuin parragarri esaten zituztela. Egiten zituzten surezko, arrizko, urrezko, ta zillarrezko gezurra baizik etziran ichura gaiztoko jainko edo idoloak; eta beren eskuetako lana baizik etzan gauzari elizak egiñaz, aldareak jasoaz, eta sakrifizio edo doneskañiak egiñaz, agur egiten zioten. Jende ichu aien iritzian gezurrezko jainko edo idolo oetatik batzuek gizonak, eta besteak emakumeak ziran. Greziako ta Erromako jendeak Jainkotzat *Jupiter* artu, eta jainko guzien artean aundiena au zala zioten; gero *Jupiter*-en emaztea zala ziotela, *Juno* artu zuten; eta oen ondoren *Marte*, *Venus*, *Bako*, ta beste onelako asko. Ijitokoen jainkoari *Isis* zeritzan. Onela demonioak, egizko Jainkoari zor zaizkan agurmen eta adorantzak beretzat izateagatik, eta Jainkoa ondratzen zutelako aitazkian, gaitz ichusi asko eragiteagatik, zoratu, ichutu, ta engañatu zituan: orregatik jende ichu zoratu aiek idoloai ta idoloen barrenen sarturik zeuden demonioai egiten zizten jaialdiak, ordikeria, desoneskeria, ta onelakoak izan oi ziran. Askotan Israeltarrak ere, besteak bezela, idoloai zerraiztela ibilli ziran. Zenbat bider Israeltarrak, idoloakgatik Jainkoa utzi zuten, ainbat bider Jainkoak beren etsaien eskuetan aiek katibu utzi zituan: eta zenbat bider gaizki egiña ezaguturik Jain-

koagana biurtu ziran, ainbat bider Jainkoak aien artetik gizon andiren bat autu zuan, katibutasunetik atera zitzan.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Denbora aietan egizko Jainkoa ezagutzen zuanik, ¿Israeltarrek baizik ez al zan?

E. Inor ere ez besterik.

G. Israeltarrek ez besteak, ¿zeri agur egi-ten zioten bada?

E. Beren burutik asmatu ta beren eskuz egin zituzten surezko, arrizko edo bestelako idoloai.

G. Idolo aiek ¿zeren antza zuten?

E. Gizonena, emakumeena, ta abereena: orregatik jende ichu aien ustean, idolo batzuek jainko-gizonak eta besteak jainko-emakumeak ziran.

G. ¿Nola ondrazten zituzten?

E. Agurmenak, eskeak eta eskañiak egiñaz.

G. Ichumen au ¿zertatik zetorkien?

E. Gizonak beren Jainko-Egilleaz aztutzetik.

G. Bada ¿nola aztu ziran?

E. Beren gorputza beste gauzik gogoan etzutelako.

G. Eta onela ichuturik ¿nork zeuzkan?

E. Aen agur ta begiruneak beretzat nai zitudan inpernukoak.

G. Idolatriak edo *Ze-agigurteak* zekarren ondorea ta irabazia gzer zan?

E. Mueta guzietako gauz ichusiak gizonai eragitea.



Dabid-ek Goliat gigantea iltzen du.

IX. IRAKURTZA.

DABID ETA MESIAS.

Israeltarrak Kanaango zelaietan sartu ezkerro, lenbizi Juezak eta gero Erregeak agintedun izan zituzten. Lenengo Errege Saul izan zan, eta bigarrena Dabid. Au Juda zeritzan Jakob-ren seme baten odoletik eta ehotik zetorren gizon andi bat zan; eta munduko Salbatzallea, Jakob Aita-goiak alde aurretik esanik zeukan bezela, odol eta eche beretik etorri bearra zan. Jainkoak ala-nai ta olisantuz Dabid gantzutua izan zan, eta beste Errege guziak orobat gantzutuak izan dira;

ta ortik dator Erregeai Kristoak, ganzutuak, edo unjituak deitzea. Denbora berean, Dabid Saul-en igesi ibilli zan, eta guda edo gerra andiak zeruko gauzen sinismenik etzuten jendeakin izan zituan. Baña azkenik Jainkoak Dabid bere etsai guziak baño aundigoa ta indartsugoa egin, eta ondraz eta ondasunez bete zuan. Dabid-ek bere mendean zeuzkan erri guzien buru ta erri nagusia Jerusalem zan; erri artan jauregi edo palazio bat eragin, eta Testamentuko kucha ara erakarri zuan. Eleiz bat egiteko asmoa ere artu zuan; baña Jainkoak adierazi zion, egiteko au, aren semearentzat gelditzen zala. Baita ere Jainkoak Dabid-i adierazi zion, aren ondorengoak Jainkoaren ume leialen Errege ta agintari izango zirala; Jainkoak aurrenetik eta lenbizitik agertu zion Salbatzallea, ta Israelen echean eta mundu guzian aginduko zuan Erregea, aren odoletik etorriko zala: Salbatzalle au Jainkoaren Seme ta Dabidena izango zala; eta gizonak Jainkoaren Semea lenbizitik ezertan ez artuagatik, gero guziak Jainkoaren ezagumenera eta aren lege santua gordetzerá, berak ekarriko zituala. Arrezkero, Israeltarak uste zuten munduaren Salbatzalleari Dabid-en seme Erregea, eta beste izenez, Mesias edo Kristo deitu zioten.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Israeltarrak Kanaango lur zabaletara sartu ziranetik, ¿zein agintarik agindu edo gobernatu zituan?

E. Lenbizi Juezak, eta gero Erregeak.

G. Lenengo Erregea ¿nor izan zan?

E. Saul.

G. ¿Bigarrena zein?

E. Dabid.

G. Dabid ¿zein tribu, sendi, edo jatorrikoa zan?

E. Juda zeritzan Jakob-en semearen jatorrikoa.

G. Dabid ¿non bizi izan oi zan?

E. Geienezan Sion-go mendi-gañean, Jerusalemgo iri andian.

G. Testamentuko kucha ¿nora eramanzuan?

E. Ara bertara, Sion-go mendira.

G. Jainkoak Dabid-i, ¿zer agindu edo zer eskañi zion?

E. Aren ondorengoak sekula guzian Jainkoaren erriko Errege, Buru, epalle ta agintedunak izango zirala.

G. Eta ¿zer geigo?

E. Salbatzallea aren ondorengoetatik etorriko zala.

G. Kristo edo Mesias ¿zein da?

E. Gure Salbatzalle au bera.

G. *Kristo* izen onek gzer esan nai du?

E. Ganzutua, konsagratua edo Jainkoa-
rentzat berezitua.

G. gEta au zergatik?

E. Dabid eta beste Erregeak olio santuz
ganzutuak, doainduak ta konsagratuak izan
ziralako.



Salomon-en Epaia.

X. IRAKURTZA.

SAMARIAKO ZISMA EDO EBAKITZA.

Dabid-en ondorengo Errege, bere seme Salomon izan zan; eta nola Dabid zan Kristo nekatuaren eta neke-eramalle onaren iduri edo imajiña, ala Salomon Kristo beraren glori andi ederraren antz edo imajiña zan. Salomon bere dembora guzian, pake ta atsegin-pozkidaz betea bizi izan zan, eta ori baño geigo dana, Jainkoak egizko jakindez apaindu zuan. Salomonek, bere Aita Dabid-ek lenagotik egin gogo izan zuan Eleiz bat, Testamentuko kucha an ipintzeko, ta an bertan sakrifizioak eta eskañiak Jainkoari egiteko

jaso zuan. Israeltarrak bizi ziran bazter guzietan Salomonen Eleiza besterik etzan; eta doneskañiak bestetan egitea etzan zilegi, eta guri obeto adirazteagatik, legeak zion, lurbira guzian Jainko bat eta lege bat baizik eztala. Salomonek bere azken-egunetan bere aisia, alperkeria ta atsegin itsusi zikiñ-atsez Jainkoak emandako jakinduria galdu, ta geiegi maitatu zituan erbesteko emakume arrotz galduak zoratu, ta idolatrian edo gezurrezko jainkoai agurmen egiten begi bietaraño sartu zan. Salomonen gaizkiak kastigatzeko, bera ill-ondoan erreinoa zatitu ta berezitu zan. Amabi Tribu edo echadietatik Juda ta Benjamin bakarrik Salomon-en seme Roboan-en menpean gelditu ziran; beste amar echadiak Erregetzat Jeroboan artu zuten. Jeroboan onek, bere menpekoak Judako Erregeren aldetik kentzeko ta Jerusalena joatea eragoztearren, bere burutik lege berri bat asmatu ta urrezko zekorrak eragin, eta zekor oei agurmen egiteko bere Erreino guzian agindu zuan. Onela sortu zan zisma bat. Zismak esan nai du, lenagotik buru baten azpian sinismen eta lege bat zutenak, alkargandik aldegitea, Jainkoaren Eliza urratu ta zatitzea. Egizko Eleiza Jerusalem-en gelditu zan; eta gezurrezkoa lenda-bizi Siken-en eta gero Samaria zeritzan Israelgo erreinoko iri-nagusian egon zan.

GALDEAK TA ERANTZUNAK.

G. Dabid-en ondorengo Erregeea, ¿nor izan zan?

E. Salomon bere semea.

G. ¿Nola bizi izan zan?

E. Bere gogora, berak nai zituan aisía ta atsegin-loiez aseá.

G. ¿Eta ori baño gauz obegorik etzuan izan?

E. Bai jauna, jakindea ere izan zuan.

G. Echerik edo orrelako gauz andirik ¿egin al zuan?

E. Bai, Jerusalengo Eleiz ospatsua jaso zuan.

G. Eta Jainkoari non agurmen egin ¿bestetan bai al zan?

E. Ez: Eleiz bakar bat eta aldare bakar bat besterik etzan.

G. Eta ori ¿zergatik?

E. Jainko bakar bat eta Jainkoarentzat agurrera bat baizik eztala adierazteagatik.

G. Eta Salomonek azkenearño, ¿jakintsu iraun ote zuan?

E. Ez jauna: baizik aragikor biurtu, ta emakume galgarrietara jarri zan, eta orre-gatik Jainkoak emandako jakindea galdu zuan.

G. Ura ill ezkeru ¿zer gertatu zan?

E. Bere Erreinoa banatua ta zatitua gelditu zan.

G. Salomon-en semeari izer aginpide gelditu zitzaion?

E. Bi Tribu edo Echadi bakar, Juda ta Benjamin.

G. Beste amar ehadiren Errege izein izan zan?

E. Jeroboan.

G. Eta onek bere errege-aldia iraunkorrago ta sendogo egiteko, izer egin zuan?

E. Zisma bat egin zuan.

G. Eta zisma izer da?

E. Eleiza urratu ta ebakitzea, bat baizik eztan Eleizaz, bi egitea.

G. Egizko Eleiza izein gelditu zan?

E. Jerusalem-en.

G. Israelko erreinoko ta gezurrezko legearen iri-buru ta nagusi izein izan zan?

E. Samaria.



Igarleak.

XI. IRAKURTZA.

IGARLE EDO PROFETEN GAÑEAN.

Israeltarrak eta Judatarrak alkargandik aldegín zuten ezkeroztik, Israelgo errege gu-
ziak gaiztoak eta idolo-zaleak edo gezurrezko
jainkoen ondoren zebiltzanak izan ziran,
eta Judako erregeen artean ere onclakoak
asko izan ziran. Aek eta oek, Jainkoak bere-
ganatu nai izan zituan, eta orretarako Pro-
fetak biraldu zizten. Jainkoak emandako
izpiritu ta argiz gauza gorde estaliak eta
etorkizunak ekusten dituzten gizonak Profe-
tak deitzen dira. Onela Moises, Samuël, Da-
bid eta Salomon Profetak ziran. Baña den-



Elias Igarlea su-gurdi haten zeruratua.

bora artan batez ere, Profetaren izen au ematen zitzaien, munduko aisiak eta erokeriak utzi, ta Jainkoaren amorez nekezko biziera bat egitera mendietara ta basoetara baztertzen ziranai. Oetatik bat Elias zan: onek Jainkoari eskatu ta iru urte ta erdian eudia eragotzi zuan; onek beronek beste onelako mirari ta ekuskari ikaragarri asko egin zituan; eta oraindik ere bizirik dirau. Liburuak izkribaturik utzi zituzten Profetak ere badira: era ontakoak dira Isaías, Jeremías eta beste onelako batzuek. Oek esan zuten Samaria ta Jerusalem galduak izan bearko zutela, baña Jerusalem berriro egiña izango zala. Etorkizunean zeuden gauzak asmatzean, Kristo edo Mesiasi zego-



Jonas Igarlea.

kan gertaeraz, noizean beñ itz egiten zuten; eta aren jaiotza, biziera, nekeak, eriotza ta aren betiko erreinoa nolakoak izango ziran aguertu zituzten. Esan zuten ere, Jainkoak lenago Isrraeltarrakin egin zuan alkar-tasuna baño alkar-artze agitz-obego bat, bere erreinoakin egin eta idoloak utzi-erazi, ta munduko jende guziak beregana deituko zituala.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Profetak ¿nor ziran?

E. Jainkoaren izpiritu ta argiz betetako gizon batzuek.

G. ¿Zergatik deitzen zitzaien Profetak?

E. Etorkizun zeuden gauzak alde aurretik asmatu ta agertzen zituztelako.

G. Profetak ¿noiz geien izan ziran?

E. Israelgo ta Judako erreinoak alkar-gandik aldegin ezkeroztik.

G. Denbora aietan omenik edo pamarik aundiena zuan profeta ¿zein zan?

E. Elias.

G. ¿Nola ill zan?

E. Oraindik ez da ill.

G. ¿Zer egin zan bada arzaz?

E. Bizirik zerura eramana izan zan.

G. Liburuak izkribatu zituzten Profetak ¿zein dira?

E. Isaias, Jeremias ta beste asko.

G. Oiek lenagotik ¿zer esan zuten?

E. Samaria guzia, batere gelditu gabe, osoro galduko zala.

G. ¿Eta Jerusalemengatik?

E. Ura ere eroriko zala, baña gero berriz jasoa izango zala, esan zuten.

G. Profeta aek Mesias-gatik ¿ezer esan al zuten?

E. Bai: Jesukristori gertatuko zitzaion guzi-guzia zearo esan zuten.

G. Eta Jainkoaren eta gizonen arteko alkarrekiko itz edo alkarkide berriren baten gañean ¿itzegin ote zuten?

E. Bai egiaz: alkarkide berri au Jainkoak

lenagotik Abraan-ekin ta aren ondorengo Israeltarrakin egin zuana baño agitz obegoa izango zala, esan zuten.

G. Eta sinismen gabeko jendeak edo jentillak, Jainkoak beregana deituko zituala, ¿Profetak esan al zuten?

E. Baita ori ere: bada federik etzuten jendeak, idolo edo gezurrezko jainkoak utzi ta egizko Jainkoari Agurmen egitera etorriko zirala ere, esan zuten.



Susanaren onore ta bizia Daniel-ek eskudatzen ditu.

XII. IRAKURTZA.

BABILONIKO KATIBUTASUNA.

Israelgo ta Judako Erregeak, Profeten ongi esanak, aser esanak ota atelekak ongi artulekuan, esker-ordez Profetai naigabe ta nekepen asko eman zizkien; ta Profetetatik batzuek, illerazi ere egin zituzten. Orregatik ere Jainkoa Erregeai ta erregepekoai ezer egingabe geldirik egon zan; eta arrigarritzko biguntasun edo pazientziz noiz beren gaiztakeri ta bekatuen damuz argana biurtuko ote ziran, luzaro begira egon zan. Baña geroenean ere beren oben kulpakatik zegokien kastigu gogorra Jainkoak aien gañera egotzi zuan.

Samariako erreinoak, guzi-guzia arrasatu ta ondatu zan; eta amar Tribu edo echadiak erbesteetan eta Samariaz kanpoko bazterretan sakabanatuta, inoiz etziran ara biurtu. Nabukodonosor Babiloniko Erregeak, Jerusalem guzia lurrera bota, ango Eleiza erre, eta erri guzia berekin katibu eramane zuan. Babilonia orduan munduko erririk andiena, indartsuena ta eskurik geiena zuana zan; baña inon ziran doakeri, gaiztakeri, idolatri ta bekatzuz guziz betea. Ala ta guziz ere juduak egizko Jainkoa etzuten utzi, ezta Moises-ek erakutsi zien aren legea ere; eta denbora artan aen artean Santuak ere izan ziran. Oetatik bat jende gaizto aien artean garbiro ta gaitzgabe bizitu zana, eta Jainkoagandik misterio ta mirari andiak ikasi zituan, Daniel Profeta izan zan. Nabukodonosor Erregeak, gizona zirudian urrezko taillu edo estatua bat eragin eta urrezko gizantz ari guziak agurmen egin zezaiotela agindu zuan. Danielekin batean ari ziran iru gizon gazte gogortu zitzaizkan Erregeri, ta ark nai zituan agurrak etzituzten egin, eta orregatik labe irazeki batera botarazi zituan; baña Jainkoak suak batere erre gabe gorde zituan. Iru gazteen ekuskari au Nabukodonosor Erregeak ekusi, ta Jainkoak edozer gauza egiteko duan, eskua ta ala agitz andia ta indartsua zala, ezagutu eta aitortu zuan.



Tobias gaztea, Rafael Goiaingeruak
pizti gaiztoagandik gordetzen du.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. ¿Isrraeltarren bekatuak Jainkoak laster kastigatu ote zituan?

E. Ez: Penitentzia egin zezaten luzaro ichedon zien.

G. Samariako erreinoaz ¿zer egin zan?

E. Guziaz ondatu eta galdu zan, eta an bizitu ziran amar Tribuetako Israeltarrak, andik kanpora atereak eta erbestetuak izan ziran.

G. Jerusalemgo erria ¿nork lurreratu zuan?

E. Nabukodonosor, Babiloniko Erregek.

G. Juduai ¿zer egin zien?

E. Katibu eraman zituan.

G. Eta Jainkoaren egizko legea, ¿zertan gelditu zan?

E. Juduak katibu egon ziran denboran gorde zuten.

G. Babiloniko legea, ¿zer lege zan?

E. Gezurrezko jainkoai zegokien legea, zeagi-gurtea, idolatria edo sorginkeriaren antzekoa.

G. Daniel ¿nor zan?

E. Santu ta Profeta andi bat.

G. Aren iru lagunak ¿zer egin zuten?

E. Babiloniko Erregeren idoloari edo gezurrezko jainkoari agurmen ez egiteko gogortu ziran.

G. Danielen iru lagunai ¿zer egin zien Erregek?

E. Labe irazeki batera bota erazi zituan.

G. Eta an ¿zer gertatu zitzaien?

E. Jainkoak milagroak erregabe gorde zituan.



Makabeo anaïen martirioa.

XIII. IRAKURTZA.

ZERTAN GELDITU ZIRAN JUDUAK.

Ziro zeritzan Persiako Errege batek, Nabukodonosor Erregeari Babiloniko Erria kendu, ta an katibu arkitu zituan Juduai, beren Errietara joaten utzi, eta Jerusalemgo Eleiza ta Erria berriro egiteko baimena eman zien. Ziro onen ondoren, Greziako Alejandro andia etorri, ta munduko bazterrik geienak bereganatu zituan. Orduan juduak, zeruko sinismenik etzuten jende gaiztoen artean bizi baziran ere, etzuten orregatik Jainko egizkoaren sinistea utzi, ta geroz gezurrezko Jainkoetara etziran

biurtu. Jende gaizto aen artean geldi-geldi egizko Jainkoaren legea sartuaz zijoan. Ala ere orduko Erregeren batzuek Juduai beren lege santua utzi erazi naiez, eta idolo edo gezurrezko jainkoai agur eragin naiez, gaizki erabilli zituzten. Antioko zeritzan Siriako Errege batek Jerusalem artu, ango Eleiza loitu ta desonratu, ta Jainkoari an egin oi zitzaizkan agurmenak, doai-eskeñi ta sakrifizioak, eragotzi zituan. Judu askok, Jainkoaren legea ez ausitzeagatik, neke-pen, tormentu gogorrak eta azkenik eriotza eraman zituzten. Baña Judas Makabeok, bere anaiakin batean, beren legea ta lenagotik zuten esku ta azkâtasuna ez galtzeagatik, etsaiak eraso zien, eta Jainkoa bere alde zuala, etsaiak garaitu, Judatar guziak bereganatu, eta egizko Jainkoaren ezagüera gabe bizi ziran jentil gaizto aen uztarripetik atera zituan. Judas au ta onen ondorengoak Judatarren buru ta agintari aldi batean izan, eta oetatik batzuek erregeak izandu ziran. Baña Erromatarrak munduaren jabe egin ziran, eta etorrira Judatarrai zuten esku guzia kendu zien. Au guzia alde aurretik esanik utzi zuten Profetak.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Juduak Babiloniko katibutasunetik atera zituana ñor izan zan?

E. Ziro, Persiako Erregea.

G. Juduak fede gabeko jendeen artean bizitzea gertatzen zan?

E. Jende aiei egizko Jainkoaren ezaguerak emateko.

G. Juduak Babilonitik irten-etzeko guren-
goko idolo ta gezurrezko jainkoetara bihurtu
edo itzali ote ziran?

E. Ez, etziran bihurtu.

G. Jainkoaren legea utzierazteagatik, Ju-
duak gaizki erabili zituan lenbizikoa, gure
izan zan?

E. Greziatar Antioko, Siria-ko erregea.

G. Greziatarren agintekuntz edo Inperio-
ari gure asiera eman zion?

E. Alejandro Andia zeritzan gizon batek.

G. Antioko erregeri gogortu ta guda egin
ziotenak gure ziran?

E. Judas Makabeo ta bere anaiak.

G. Oek gerra emateaz gure irichi zuten?

E. Beren erriak ta erri-tarrak greziarren
menpetik ateratzea.

G. Geroz, Juduen buru ta agintedun gure
izan zan?

E. Judas Makabeo ta onen etcheak eta
ondorengoak.

G. Geroencan Judatarrak gure galdu zi-
tuan?

E. Erromatarren menpean gelditu ziran.

XIV. IRAKURTZA.

JUDU IZPIRITUKOIAK TA ARAGIKORRAK.

Erodes, munduan izan ziran gizonik gaiztoenetatik bat, bidegabe ta derechgabe, Erromako Agintari edo Emperadoreak laguntzen ziola, Judeako Errege egin zan. Ortik laster Mesias edo Kristo mundura etorriko zala, Judeatarrek ongi zekiten. Judeatarren artean batzuek izpiritukoia, eta besteak aragikorrek ziran. Judeatar aragikorrek, gorputz aragikorrari dagokana baizik beren gogoan etzeukaten. Jainkoari bazerraizkan, jarraiura, etzan onez; ezpada Jainkoagandik gari, ardo, urre, zillar, artalde andiak eta gisontako ondasunak iristeko ustez; onela beren emazte ta umeakin nai adiña aberasturik, nai bezela bizitzeko. Jainkoaren beldur etziran: beartasunaren, gaitzaren, eritasunaren eta illtzearen beldurra baizik etzuten. Judeatar izpiritukoia Jainkoari gogoz eta biotzez zerraizkan: Jainkoa maite zuten, eta guzirako aren esku, jakinde ta ontasun aizkengabeari, ori ta agitz geigo zor zaiolako, agurmen andiak egiten ziozkaten. Ala Judeatar aragikorrek, nola izpiritukoia ezagutzen zuten Profetak ziotenez, Mesias edo Kristo denbora guchien barruan etorriko zala; baña

guzien usteak era batekoak etziran. Aragikorrak Kristoren gañeko Profeten itzetan letrak azaletik eta kampotik ziona aditzen zuten, eta ez barrendik eta mamitik adierazitzen zuana. Profetak liburu santuetan esan zutena, guzia gorputzaren alderako zala, uste zuten; eta ez animaren onera-ko. Zerizten Mesias, Kristo edo Jainkoaren Seme gizon egiñak lurreko Errege izan bearko zuala, eta Dabid Erregea baño gudari andigoa, ta Salomon baño aberatsagoa izango zala, ta aren Erregealdian Judeatarrak aisian beren gogora, ta nai adiña atsegin-kontentu ta pozez beteak, munduko beste jende guziak beren azpian eta eskupean zeuzkatela biziko zirala. Judeatar izpiritukorren asmoak bestelakoak ziran. Oek, lurreko ondasun guziak baño agitz eta agitz andigo ta naigarrigo diran ondasunak badirala, eza-gutzen zuten. Orregatik emen munduan zorion edo doatasun oso beterik izan zitekenik etzuten uste; ezpadagero zeruan aragiaren piztuera ezkerø; ta Mesias-gandik lenik ta geien uste zutena zan, Jainkoa ezagututa maitatzeko bear degun mesedea, laguntza ta grazia.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Erromako Agintarien azpian bizi ziranen, Judeatarren Errege gñor izan zan?

E. Erodes.

G. Jainkoaren Semea gizon egiteko, denbora gnoiz bete zan?

E. Erodes beraren Errege-aldian.

G. Judeatar aragikorrak, gzein ziran?

E. Lurreko ondasunak izateagatik baizik Jainkoa serbitzen etzutenak.

G. Kristoren Errege-aldia gnolakoa izango zala uste zuten?

E. Kristo emengo beste Errege bezelako lurreko Errege bat izango zala, munduko erri ta jende guziak Judeatarren eskupean eta agintearen azpian ipiñiko zituala; ta ondasunez, ondraz eta atsegin-pozez beteak biziko zirala, uste zuten.

G. Judeatar izpiritukoia, gzein ziran?

E. Gogoz, naiez ta biotz onez Jainkoa serbitzen zutenak.

G. Jainkoak, gzer emango ziela uste zuten?

E. Emengo aldia egin, eta zeruan betiko bizitza.

G. Mesias edo Kristogandik batez erochodoten zutena, gzer zan?

E. Bera ezagutzeko, maitatzeko ta onesteko bear degun grazi ta laguntza.



Aingeruak Mariari Aditzera emanik,
Jainco-Semearen Gizontzea.

XV. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN JAIOTZA.

Erodes, Judeako Errege zan denboran eta Zesar Augusto, Erromako Enperadore ta agintari zanean, Nazaret zeritzan Galileako errian, Maria izena zuan santutasun andiko dontzella garbi bat bizi zan. Jose zeritzan gizon santu batekin ezkondua bazegoan ere, beti Birjiñ garbi bizitzeko asmoan zegoan, eta ala bizitu zan. Maria ta Jose, Tribu, edo echadi batekoak ziran; bada biak Judaren echetik ta Dabid-en odoletik zetozen. Maria Birjiñ oni, Mesias edo Jesusen Ama izan



Jesukristoren jaiotza.

bear zuala adieraztera, Gabriel Aingerua Jainkoak bialdu zion, eta Mariak orretarako Izpiritu Santuaren lanez eta bitartez, Birjiñ eta Ama izango zala jakin zuan ezkerro, bere baiezkoa eman zuan. Ordu ta une artan Ait Eternoaren Aditza, Jainkoaren Semea, betiraunde guzian Jainkoagan egon eta Aita ainateko zana, gureak bezelako gorputz bat eta anima bat Maria Birjiñaren sabel gartian egiazki artzen zituala, aragi edo gu geran bezela gizondur zana. Jesus jaiotzeko zegoan egunetan Erromako Agintedun Augusto-k agindur zuan, aren menpean arkitzen ziran guziak, nongoak ziran, nondik zetozen, eta nola zerizten billa zezatela. Lenago giñion




Iru Errege jakintsuak,
Jesusi esku-muiñ umillak egiten diozkate.

bezela, Jose Santua ta Jesusen Ama Maria, Dabid Errege andi santuaren odolotik ta ehetik zetozenak ziran, eta eche au Belenen arkitzen zan. Belengo errira eldu ziran, eta oñak non sartu etzuten arkitu, orduko ostatu ta eche guziak beteak zeudenta. Belengo errian sartu baño len, echola bat bazan: eta echola ontan, argia kristaletik irteten dan eran, Jesus Ama Birjiñagandik jaio zan. Jaio zanetik zortzigarren egunean, Lege zarrak agintzen zuan eran, aur jaio berriaren Billebaiketa edo Zirkunzizioa egin zan; eta aurrari Salbatzallea esan nai duan JESUS izena ipiñi zioten. Zirkunzizio ortan aurrari bere gorputzeko alde minbera batetik aragi piška bat kañibetaz



Ijitorra igesa.

kentzen zitzaion. Egun batzuen buruan, iru Errege magoak edo jakintsuak, eguzkia sortzen zan aldetik, Jesusi esku-muñ umillak eta eskañiak egitera etorri ziran; eta eskañi oek, urrea, intzentsua ta mirra izan ziran. Judeatarren Errege jaio-berriari agur egitera, iru Erregeak zetozela Erodes-ek aditu zuanean, Errege berriak erreinoa kenduko ziolako beldurra sartu zitzaion, eta orregatik Belen inguruko aur guziak ill zitezela agindu zuan. Baña Jose Santuak Jesus eta aren Ama Andre Maria artu, Ijitorra iges egin, ta Erodes-en ill-berria aditu arteraño an bizitu ziran. Gero Nazaret-ko beren errira biurtu, ta Jesus ogei ta amar urte bete zituan arteraño, an bizitu



Jesus aurra galdu, ta jakintsuen artean,
Eleizan José ta Mariak arkitu zuten.

zan, iñork nor zan ezagutugabe, bere Amak
eta Jose Santuak agintzen ziotena egiten
eta Jose Santuari surgintzan edo arotz-lanean
laguntzen ziola.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo gure Jaunaren Ama ¿nor
izan zan?

E. Maria Birjiñ Deuna.

G. Jesukristoren Ama ¿zein tribu edo
echadikoa zan?

E. Juda zeritzan Jakob Aita-goiaren seme
baten echadikoa.

G. Eta ¿zein echetakoa?

E. Dabid Erregeren ehekoa.

G. ¿Norekin ezkondu zan?

E. Eche bereko Jose Santuarekin.

G. Mesias-en Ama izan bear zuala ¿nola jakin zuan?

E. Jainkoak bialdu zion Gabriel Golaingeru Santuak esanta.

G. Maria Birjiñak, Jesusen Ama izateko bere baiezkoa ¿noiz eman zuan?

E. Birjiñ garbi geldituko zala, Aingeruak esan zionean.

G. Eta Ama Birjiñagan orduan ¿zer gertatu zan?

E. Jainkoaren Betiraundeko Aditzaz, aurdun gertatu zan.

G. Beti dirauen Aditz ori ¿zein da?

E. Jainkoaren Semea.

G. Jainkoaren Semea aragitzea ¿zer da?

E. Gu gizon geran bezela, ura ere gizon egitea.

G. Jesukristo ¿non jaio zan?

E. Belen ondoan zegoan estalpe edo echo-la batean.

G. Jesus-en izenak ¿zer esan nai du?

E. Salbatzallea.

G. Jesusi agur egin zioten lenengo jentillak ¿zein ziran?

E. Eguzkiaren sortaldetik etorri ziran Errege mago edo jakintsuak.



Jesusek bere Ait-ordeko Jose Santuari lanean
laguntzen dio.

- G. Erodeseke ordutan zer egin zuan?
- E. Belen inguruko aur guziak iltzeko
agindu zuan.
- G. Jesus aurra nola gorde ta libratu zan?
- E. Jose Santuak Ijitoria eramanik.
- G. Bere denboran nola bizitu zan?
- E. Bere Amandre Maria Birjinak eta Jose
Santuak agintzen ziotena eginaz.
- G. Eta Jose Santua Jesusen Aita al zan?
- E. Ez, baña munduak ala zala uste zuan.
- G. Jose Santuak zer lan edo opizio zuan?
- E. Zurgin edo arotza zan.

XVI. IRAKURTZA.

ORAINDAÑO ESAN DANAREN BILGURA LABURRA.

Jainkoak mundua, edo zeru-lurra, ichaso-odeiak, eguzki-izarrak eta zeruan eta lurrean diran gauza guziak ezerezetik egin zituan. Oien artean gizona ta emakumea egin zituan eta baita Aingernak ere. Aingeru guziak aurrenetik onak ziran; baña batzuek laster gaiztotu ziran, eta oek inpernuko etsaiak dira. Oetatik batek sugearen aoz emakumea ri itz egin, eta bekatu eragin zion, eta gero emakumeak bere senar Adani. Orduan Jainkoak sugea madarikatu, ta ari burua ausiko zion munduaren zuzentzalle ta Salbatzailea emakumeagandik etorriko zala, esan zion. Adanen bekatua aren ume ta ondorengo guzietara igaro zan, eta orregatik Jesukristo ta bere Amandrea ez, beste guziok bekatu au gerekin degula jaiotzen gera, eta bekatu oni jatorrizko bekatua deritza. Adan eta Ebaren lenengo semeak Kain gaiztoa ta Abel ona izan ziran; eta Kain-ek bere anai Abel ill zuan. Gero Seth jaio zan. Onen ondorengoak noizbait gaiztotu ziran; eta guzien artean ona zanik Noe bakarrik arkitu zan. Jainkoak mundua galtzeko artu zuan as-

moa oni agertu, eta kucha antzeko ontzi bat egin zezala, eta bere emazte ta iru seme-errakin eta aurrerako bear ziran abere ta egaztiakin, an sar zedilla, agindu zion. Berrogei egun eta gau, batere atertu gabe erori zan eudi-jasak mundu guzia urez estali, ta kuchar gorde ziranak ez, beste bizidun guziak ito ziran. Noeren ondorengoak etziran orregatik zentzatu; asko luzatu gabe beren egizko Jainko munduaren Egillea utzi, ta beren burutik asmatu zituzten edo inpernukoak erakutsi zizten idolo edo gezurrezko jainkoetara jarri ziran. Ez ezagüerarik gabe; inork esan gabe, onetan eta beste gauz askotan gaizki egiten zutela bazekiten. Nork-nai bere burutik duan argi ta ezagüera oni, lege naturala edo lege jatorra deritza. Denboren kontuari darraizkanak, eta urteen zenbatezkoaren bila dabiltzanak, munduaren adiñak edo edadeak zazpi dirala diote. Lenengoa da, Noeren denborako ugolderaño, ta batetik besterañoko urteak milla seireun eta berrogei ta amazazpi dirala diote.

Noek izan zituan Sen, Kan ta Jafet zertizan iru seme. Sen ta aren ondorengoan batzuek onak izan ziran. Oetatik bat Abraan zan. Oni Jainkoak bere gogo eta asmoak agertu, ta esan zion: Abraan, baldin zuk nere esanak egiten badituzu, nik jume askoren guraso egingo zaitut; zure umeen ondoren-

goai Kanaango bazter ugariak emango diztet, eta zure odolotik datorrena, mundu galdua-
ren zuzen-bidea, salbatzalea ta erremediatza-
lea izango da. Jainkoak Abraani, Isaak zeri-
tzan seme bat eman zion. Isaak onen semea
Jakob zan, ta onek, Patriarkak edo Aitagoiak
zerizten amabi seme izan zituan. Ugoldtetik
Abraanen denborano, lareun eta ogei ta sei
urte igaro ziran; eta au munduaren bigarren
adina da.

Jakob-en semeak, beren anai Joseph Ijito-
ra saldu zuten. Lenengotik katibu egon bazan
ere, gero Jainkoak naita, Erregeren urrengo
gizon egin zan, eta gosete batean bere Aita
Jakob ta bere anaiak, beregana deitu zituan.
Joseren denborako Erregeren ondoren beste
Errege bat sartu zan, eta onek Jakob-en ume-
en ondorengoak, gogorki artu zituan; baña
Jainkoak, Moises-en bitartez, Ijiton zerama-
ten nekepetik atera, ta Kanaango zelaietara
eraman zituan. Abraanen denboratik Israelta-
rren irtete ontarano, lareun eta ogei ta amar
urte igaro ziran.

Ijitetik Jainkoak agindu zien Kanaango lu-
rrera joateko, Israelarrak berrogei urtean bi-
dean ibilli ziran. Bidez asi ziranetik laster, *Si-
nai* deritzan mendi batera eldu ziran, eta an
Jainkoak, bere legeko amar Aginduak, ol bi-
tan izkribaturik erakutsi zitzen. Ol oek
gordetzeko, Testamentuko Arka deritzan ku-

cha bat Jainkoak eragin zuan, eta Israeltarren alde, aien gurasoai egindako eskañiak, aginteak eta emandako itzak berritu zituan. Israeltarrak Jainkoari, Bera beste Jainkorik ez ezagutzeko itza eman zioten; baña Kanaan-go errietan beren itzaz azturik, eta ango jende gaiztoakin bat egiñik, aien idolo-tzarrak Jainkotzat artu zituzten. Israeltarren lenengo Erregea Kanaango lurrean Saul izan zan, bigarrena Dabid eta irugarréna Salomon. Onek Jerusalengo Eleiza eragin zuan, eta onen seme Roboanen denboran Israeltarrak alkargandik aldegin zuten. Juda ta Benjamin zeritzan Tribu edo echadi bi, Roboanekin gelditu ziran; beste amar Tribu edo echadik beren Erregetzat Jeroboan artu zuten. Onek zisma sortu edo lege egizkoa utzi ta bere menpekoenzat lege berri bat asmatzen zuala, Jainkoaren Eleiza erdiratu zuan. Israeltarrak Ijittotik Jainkoak atera zituanetik, Salomonek Jerusalengo Eleiza egin zuan arteraño, lareun eta larogei ta zazpi urte igaro ziran; ta denbora au munduaren laugarren adiña da.

Geroz Israelgo Errege guziak, gaiztoak eta idolo-zaleak izan ziran, baita Judeako batzuek ere. Jainkoak, guziak ondu naiez, Profetak biraldu ziozkaten; baña alperrik, bada orregatik ere aek geroago ta gaiztogoak izan ziran. Azkenik beren gañean zegoten nekea ta kastigua ekusi zuten. Samariako

erreinoa galdu zan eta Israeltarrak etziran geigo ara biurtu. Nabukodonosor Erregeak Jerusalem guzia desegin, angó Eleiza erre eta Judeatarrak Babilonhira katibu eraman zituan. Ziro, Persiako Erregeak, andik atera ta Jerusalemgo erria ta Eleiza berriro egitera biraldu zituan. Orduraño, Salomonek Jerusalemgo Eleiza egin zuanetik, lareun eta irurogei ta zortzi urte igaro ziran; ta au munduaren bostgarren adiña da.

Ziro erregeren ondoren, Kanaango errietan Greziako Erregeak sartu ziran, eta oek Judeatarrak chit gaizki erabilli zituzten. Judas Makabeok, bere anaiakin batean, Greziatarrak eraso, ta jentil gaizto aien uztarripetik atera zituan. Baña azkenik Erromatarrak etorri, ta Juduak edo Judeatarrak, ezer-tako eskugabe utzi zituzten. Denbora onetan, Augusto Erromako Agintari zala, Jesukristo Maria Birjiñagandik Belenen jaio zan. Juduak Babiloniko katibutasunetik libratu ziranetik, Jesukristoren jaiotzaraño, bosteun eta ogei ta amabi urte joan ziran; ta au munduaren seigarren adiña da. Urte oek ta lenagokoak alkargana batu, ta mundua asi zaneetik Jesukristo jaio zan arteraño, guzitara, lau milla urte igaro ziran. Oraingo gizon jakintsuren batzuek ala diote; baña Eleizan Egüerri-bezpera goizean entzuten deguna da, Jesukristo jaio zanean munduak bost milla eun

eta larogei ta emeretzi urte bazituala. Munduaren zaspigarren adina, Jesusen jaiotzatik Aizken-epaiko eguneraño da. Noiz izango dan aizken egun au, Jainko berak bai, baña beste inork eztaki.



Juan Santuak Jesus bataiatzen du.

XVII. IRAKURTZA.

JUAN BAUTISTA SANTUA.

Jesukristo gure Jauna ogei ta amar ur-tekõa zala, Zakarias-en eta Isabel, Maria Birjiñaren aideen Seme Profeta andi Juan Bautista Santua agertu zan. Profeta andi au, lenagoko Profetak baño biziera nekegarri-go bat zeramala, ta arganatzen ziran guziai penitentzia egiteko aginduez, eta *zeruetako erreinoa urrean zegoala* erakusten, mendi-eremu-basoetan bizi oi zan. Sinistu ta Jainkoagana biurtzen ziranai, Juan Santuak bataioa ematen zien, edo (berdiñ dana) Ju-deatarrak beren bekatuen loi zikiñak kentze-

ko, legeak zionez, garbitu oi ziran bezela, Jordango ibaian garbitzen ziran. Juan Santuari Bautistaren izena, bataio edo garbiketa on-tatik zetorkion. Juan Santuaren sermoiak entzutera joaten ziranak, Mesias edo Kristotzat bera artu nai izan zuten; baña Juan Santuak esan zien bera etzala Kristo, baizik aren etor-bidea zuzentzeko, aren aurretik biraldutako gizon bat zala. Besteen artean Juan Santuarengana Kristo gure Jaun bera, pekatari bat balitz bezela, bataioa eskatzen etorri zitzaion. Juan Santuak aldi artaraño etzuan beñere ekusi gure Jesus; eta ala ere ekusi-or-duko ezagutu, ta Jordan-ibaiko uraz bataiatu zuan. Bataio edo garbikera artan, Jesus-ek urak bedeinkatu, ta Bataioko Sakramentua jarri zuan, eta bekatuak barkatzeko indarra eman zion. Orduan bat-batean zeruak idiki, ta Izpiritu Santua, uso idurian Jesusen buru gañera jechi zan; eta Juan Bautista Santuak au ekusi ta esan zuan: *Ona munduko bekatuak kentzen dituan Jainkoaren bildotsa; legea Moises-ek eman zuan; baña Jesukristoren bitartez grazia ta egia etorri ziran.*

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Juan Bautista Santua gnoren semea zan?

E. Zakarias Santu ta Maria guziz garbia-
ren aide Isabel Deunarena.

G. ¿Non bizi oi zan?

E. Eremu ta basoetan bere gorputza latz-
ki nekatzen zuala.

G. ¿Lenagoko Profetak artzaz itzegin ote
zuten?

E. Mesias-en aurretik etorriko zana, edo
Mesias-en aurretik biraldua izango zala, esan
zuten.

G. Juan Santuaren itz-aldiak ¿nolakoak
ziran?

E. Bere entzuleai bekatuen penitentzia
egiten erakusten zienak.

G. Eta aren esanak ongi artzen zituztenai
¿zer egiten zien?

E. Bataiatu.

G. ¿Nola bataiatzen zituan?

E. Jordan-ibaiko urtan bustierazitzen zi-
tuala.

G. Jesukristo ¿bataiatu al zuan?

E. Bai, jauna, Jesukristo berak nai zuan
Juan Santuak bataia zezan, Bataioko ura be-
deinkatu ta santugiteko.

G. Bataio artan ¿zer gertatu zan?

E. Ekusteko andi bat: Izpiritu Santua usoa
zirudiala, Jesusen buruaren gañera jechi zan.

G. Juan Santuak orduan ¿zer esan zuan?

E. Bataiatzen zegoana, munduko beka-
tuak kentzen dituan Jainkoaren bildotsa zala.



Simon Pedrori ta onen anai Andres-i,
Jesusek deitzen die.

XVIII. IRAKURTZA.

APOSTOLOEN DEIA.

Juan Bautista Santuak, Jesus bataiatu orduko, Izpiritu Santuak Jesus berari adierazi zion, Juan Santua zegoan mendi artako eremu batera baztertu zedilla. Eremu artan Jesusek barau luze garbi bat atera, ta berrogei egun eta gaubez ezer jan gabe, ta ur tantorik ere edaten etzuala, bere gorputza nekatu zuan. Berrogei egunen buruan, inpernuko etsaia Jesus tentatzera ara eldu zan; baña etsai gaiztoak bere alegiñ guziaz ere, gure Jauna-gandik nai zuanik etzuan atera, ta bere indar

guziak galdurik, inpernuetara iges egin bea-
rrean arkitu zan. Gure Jauna eremutik Gali-
leara jechi zan. An lau arrantzalei jarrai zez-
iotela esan zien. Arrantzale oek Simon edo Pe-
dro ta onen anai Andres, Jakobo ta Juan Ze-
bedeoaren semeak ziran. Gero besteren ba-
tzuek deitu zituan, eta aen artean Mateo. Je-
sus-ek deitu orduko, zituzten gauza guztiak
utzi, ta Berari jarraitu zioten; eta onela den-
bora guchiren buruan, bere erakustearen
ikasle asko bereganatu zituan. Jesusek bere
ikasleen artetik amabi Apostoloak autu zi-
tuan. Apostoloak, *biraldua* esan nai du; gu-
re Jaunak bere Apostoloak, mundu guzia-
ri bere lege ta zerurako bidea erakustera
bialdu zituantan. Apostoloen artean lenen-
goa Pedro zan, gero onen anai Andres;
Jakobo edo Santiago ta Juan, Zebedeo-
aren semeak; Felipe, Bartolome, Mateo, To-
mas, Jakobo, Alfeoren semea, aren anai
Judas edo Tadeo, Kananea-ko Simon, eta
Judas Iskariote, gure Jesusen salkindaria.
Jesusek Andres-en anai Simoni izen-goitiz
Arria deitu zion, esaten ziola: *Zu arria zera, ta
arri onen gañean nik nere Eleiza jasoko det, eta
zeruelako erreinoaren giltzak emango dizkitzul.*

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo bataiatu ezkerro ¿nora joan zan?

E. Eremu edo bakartegi batera.

G. Eta an ¿zer egin zuan?

E. Berrogei egunean barautu.

G. Eta ¿zer geigo?

E. Inpernuko bere etsai galgarri gaiztoarekin bere tenta-pelcak izan zituan.

G. Bere eskolarako ikasleak ¿nola deitu zituan?

E. Zerraizkala esanaz; eta zuten guzia utzirik, bertatik jarrai zioten.

G. Ikasle edo diszipuloak ¿zer esan nai du?

E. Maisu baten esanak entzun, eta ark erakutsiak egiten dituana.

G. Apostoloak ¿zer esan nai du?

E. Biraldua.

G. Jesukristok ¿zenbat autu zituan?

E. Amabi.

G. Orien izenak esaitzatzu.

G. Pedro ta onen anai Andres Santuak; Santiago ta Juan, Zebedeoaren seme Santuak; Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago, ta Judas, Alfeoren seme Santuak; Simon Santua ta Judas Iskariote salkindaria.

G. Pedro Santua guzien lenengo ¿zergatik izendatzen da?



Jesukristok Pedrori zeruetako giltzak
ematen dizkio.

E. Jesukristok bere Eleizaren zimendu-
arria izango zala esan zualako.

G. Eta geigo zer esan zion?

E. Zeruetako erreinoaren giltzak emango
zizkiola.

XIX. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN PREDIKAZIOA.

Jesukristo Ebanjelioa predikatzen, edo zerruetako erreinoaren berri ona ematen, erri-rik-erri zebillen. Berri au zan, gizonak Jainkoa ezagutzera deituak izateko denbora eldu zala, eta antziñako Aitagoiak eta Igarleak lenaz esan zuten Kristo edo Mesias, eta mundu galdua salbatzeko etorri bear zuan Jainko-Seme gizondua Bera zala, ta argan sinistu ta penitentzia egiten zutenak, bekatuen barkazioa, ta sekulako bizitza irichiko zutela. Jainkoaren izenean itz egiten zuala sinisterazteko, arrigarritzko mirari asko egiten zituan. Begien ichidiki batean, eta itz bakar bat esanaz, eritasun edo gaitz guziak sendatu, ichuai ikusmena eman, gorrai entzumena, mutuai itza, gizon eta emakumeen gorputzetatik gaizkiñak atera, ta illak piztutzen zituan. Zerua irabazteko nola bizi bear zuten, bere bizieraz erakusten zuan. Biotzez umilla, biguña, beraa ta erraza zan: premiaren aldetik zetozkion nekeak eta naigabeak umilki zeramazkian: Jainkoagana itzuli nai zuten bekatariak urrikaltzen zan; baña gaitzean gogorturik bizi ziran bekatariakin aserre izaten zan. Bere egiteko guzietan beretzat etzuan ezer nai; egin zuan gu-

zia, gizonak bere Aita-Jainkoa ezagutzera ta maitatzera erakartzeagatik egiten zuan; eta gau guziak geienez orazio egiten igarotzen zituan. Bere ikasleai erakutsi zien otoitza, ondorengo au da:

1. Aita gurea, zerubetan zaudena, santifikatuba izan bedi zure izena.

2. Betorkigu zure Erreinoa.

3. Egin bedi zure borondatea, zeruban bezela, lurrean ere.

4. Gure eguneroko ogia gaur eman•zai-guzu.

5. Ta barkatu gure zorrak, guk ere zordunai barkatzen diztegun bezela.

6. Ta ez utzi tentazioan erortzen.

7. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.

8. Amen.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo ¿zertan aritu zan?

E. Erri andi ta chikietan predikatzen edo Zerurako bidea erakusten.

G. ¿Zer predikatzen zuan?

E. Zeruetako Erreinoaren Ebanjelioa edo berri ona.

G. Zeruetako Erreinoa ¿zer da?

E. Jainkoa ezagutu ta maitatzea, gero Beraz gozatzeko.

- G. Jesukristok bere buruaz ¿zer zion?
E. Mesias, Kristo ta Jainkoaren Semea zala.
G. ¿Zer egin bear zala zion?
E. Argan sinistu ta penitentzia egin.
G. Penitentzia ¿zertako egin bear da?
E. Bekatuen barkazioa iristeko.
G. Jainkoak biraldua zala ¿nola erakusten zuan?
E. Mirari edo arrigarritzko lanak egiñaz.
G. Eta ¿zer mirari egiten zituan?
E. Eritasun, eta gaitz guziak sendatzeko itz bat esatea asko zuan.
G. Eta ¿zer geigo?
E. Gizonen gorputzetatik gaizkiñak edo demonioak atera; eta illak piztutzen zituan.
G. ¿Zer otoitz edo orazio erakutsi zuan?
E. *Aila gurea.*
G. Esan zazu.
E. *Aila gurea...* eta gañerakoa.
-



Jesukristok Jerusalemen egin zuan sarrera.

XX. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN ETSIAIAK.

Jesukristok egiten zituan gauz aundiaz, mundu guzia arritua zeukan, ta guziak zerraizkan nora nai, naiz ta eremu edo basoetara bazijoan ere. Judeatarrak ez ezik, baita jentillak edo Jainkoa ezagutzen etzuten jendeak ere, Jesus nondik ikusiko zuten, eta nola aren itzak entzango zituzten zebiltzan. Eskriba ta Fariseoak, Jesus begitan arturik zeukaten, eta beren bekatuagatik egiten zizten atelekak ezin eramane zituzten. Eskribak, Juduen maisu-erakusleak ziran; eta Jesukristok oen

jakin-eza ta gaiztakeria guziai agertzen zien. Fariseoak, Jainkoaren legea, beren ustez inork baño obeto gordetzen zuten gizon batzuek ziran; baña geienak irudipenezko lan onakin mundu guzia engañaturik zeukaten. Buru-arro ondasun zale batzuek baizik etziran. Sazerdoteak eta Erriko kargudunak ere, Jesus ezin ekusi zuten, aldeaurretik etorkizun guzia zekienak bezela, Jerusalengo Erria ta ango Eleiza denbora guchiren buruan deseginak eta galduak izango zirala, esaten zualako. Azkenik, Judeatar aragikorrak, Jesus ain pobre, beartsu, manso ta umill ekusita, Mesias edo Jainkoak guzien onerako mundura biraldu zuan gizona izan zitekela, etzuten sinistu nai. Bizitz ontako aberastasun atseginak eragabe maitatu bear etzirala, ta Berari jarraitu nai zionak, bizibideko Gurutzea gogoz eraman eta munduko gauza guziak eta bere burua ere alde batera utzita bezela idukirik, gurari oker guziak oso ezitzen saiatu bearko zuala Jesusek ziolako, Bere dotriña chit gorrotatzen zuten; eta onelako erakuspideak aditzean, Fariseo, Eskriba ta Judeatar aragikor guziak suak artu, itz lotsagarriak esan, eta bidegabekeri asko egin zizkionten; eta azkenik, illerazitzeko asmoa artu zuten. Orretarako Judas Iskariote zeritzan Jesukristo beraren jarraile batez baliatu ziran, eta onek Jauna berai saltzeko ta aen

eskuetara eramateko itza eman zien, baldin saltze onen alde amabost eskutu balio zuten ogei ta amar zillarrezko diru eman nai bazizkaten.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. ¿Jesukristori askok jarraitu zioten?

E. Guziak eta alde guzietatik Bera ekusteagatik eta bere esanak entzuteagatik, leian zerraizkan.

G. ¿Etsairik izan al zuan?

E. Aren etsaiak Judu aragikor guziak izan ziran.

G. Eta oek argana ¿zergatik bekaitzen ziran?

E. Biotzez pobre ta umillak izan zitezela erakusten zielako.

G. Jesukristoren etsairik andienak ¿zein izan ziran?

E. Eskribak, Fariseoak eta Erriko agintari ta kargudunak.

G. Eskribak ¿zein ziran?

E. Gizon aditu, jakintsu, legea erakusten zutenak.

G. Fariseoak ¿zein ziran?

E. Besteak baño obeto legea gordetzen zutela zioten gizonak.

G. Eta ¿ongi bizi al ziran?

E. Kanpotik eta ziruditenez, bai; baña barrindik eta izatez, ez.

G. Jesukristori bere etsaiak zioten gorroto ta gaitzerizkoa, ¿noraño igaro zan?


E. Bera iltzeko asmoa artzeraño.

G. Jesus saltzeko ta aien eskuetara eramateko itza ¿nork eman zien?

E. Judas Iskariote zeritzan amabi Aposto-
loetako batek.

G. ¿Zenbatean saldu zuan?

E. Zillarrezko ogei ta amar dirutan.



Aizkeneko aparria,
eta Aldareko Sakramentu Santua Jartzea.

XXI. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN PASIOA.

Geroenean ere Eskriba, Fariseo ta gañerako Jesusen etsaiak bazebiltzan, eta Pazko egunean Jesus preso artzera, ta lenbaitlen ill-erazitzera eldu ziran. Pazko-bezpera zan Ostegun batean bere ikasleakin apaltzera joan zan. Apaltzen zeudela, bere eskuetan ogi bat artu, ta bedeinkatu zuan; eta puskatuta, bakoitzari bere ogi zatia eman zien, esaten ziela: *Artu, eta jan zazute; au da zuekatik saldua izango dan nere gorputza*. Gero kaliz batean ardoa artu, ta bedeinkatu-

rik eman zien, esanaz: *Edazute guziok: au da nere odola, zuekalik issuria izango dan Testamentu berriko odola; nizaz oroitzen zeratela, au egizute.* Gero apalategitik irten zan, baita Jerusalemgo erritik ere, ta bere Ikasleakin Jertsemani zeritzan leku batean arkitzen zan baratz batera joan zan. An bere Aitari eskatu zion, albazan, Pasioko Kaliz latz edo edari garratza kendu, ta mundu gaiztoaren zorrak ordaintzeko, beste bide bat eman zezaiola; baña ala bear bada, bere Aitari esan zion: *zuk nai dezuna egin bedi.* Bitartean Judas salkiñak, soldaduak eta beste gizon armadun asko bildu zituan, eta oriek Jesus preso artu ta loturik, lenbizi Anas zeritzan Eleizgizon andiaren echera, eta gero urte artako Apaiz-Nagusi Kaifas-enera eramane zuten. Onak eta bere echean bildu ziran lagunak, testigu palsoak billatu, ta ill-gaia zala Jesukristo esan zuten, *reus est mortis*, eta bizia kendu bear zitzaiola. Apostoloak, Jesus etsaien artean utzi, ta guziak iges egin zuten, eta Pedrok ere iru bider ukatu zuan, gizon ura ezagutzen etzuala esanaz. Kaifas-en echetik, Judea erridiko Erromatar Agintari zan Pilatos-en echera Jesus eramane zuten. Pilatos-ek, ezaguturik Jesus gizon on kulpagabekoa zala, bide asko artu zituan, etsaien atzaparretatik ateratzeko; baña guzia alperrik. Pilatos-en echean gure Jaunak bere



Jesus Olibet-ko baratzan.

burua Juduen Errege egin zualako aitzakian,
isekaz eta burlaz gogorki azotatu, ta aran-
tzazko koroa buru gañean ipiñi zioten.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesus, ¿zer denboretan il zan?

E. Pazkoetan.

G. Bere Apostoloakin egin zuan azken
aparian, ¿zer eman zien?

E. Bere gorputz eta aragia eman zizkien.

G. Bere gorputza ¿nola eman zien?

E. Eskuetan ogia arturik, bedeinkatu, ta
eta eman zien, esanaz: *Au da nere Gorputza.*

G. Bere odola ñnola eman zien?

E. Kaliza ardoarekin artu, ta esan zien:
Au da nere odola, Testamentu berriko odola.

G. Apal-ondoan Jesusek ñzer egin zuan?

E. Aita Jainkoari otoitz egitera, Oliba-
mendirira joan zan.

G. Orduan, Judasek ñzer egin zuan?

E. Jende armadunez lagundurik, Jesus
zegoan tokian preso artzera etorri zan.

G. Jesus, ñnora eramán zuten?

E. Kaifas Apaiz-Nagusiaren ochera.

G. Orduan Apostoloak ñzer egin zuten?

E. Beren Jauna etsaien artean utzi, ta gu-
ziak iges egin zuten.

G. Eta Pedrok, ñzer egin zuan?

E. Jesus iru bider ukatu, ta gizon ura
etzuala ezagutzen, esan zuan.

G. Kaifas en echetik, ñnora eramán zuten?

E. Pilatos-enera.

G. Eta Jesukristori, an ñzer egin zioten?

E. Azotatu ta arantzaz koroatu.



XXII. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN ERIOTZA.

Geroenean Pilatos-ek, gogaitu eta garbatu-rik, eta gogoaren kontra bazan ere, Jesukristo Gurutzean iltzeko epaia eman, eta Gurutzea bizkarrean zuala, Golgota edo Kalbarioa zeritzan toki batera eramán crazi zuan. An lapur biren erdian gurutzean iltzez josi zuten. Gurutzeko eriotza, denbora artan, inorri eman zezaioken kastigurik lotsagarrien eta desonragarriena, ta esklabo edo besteren-pekoai baizik ematen etzitzaiena zan; ezta edo-zer gaiztakerigatik ere, baizik andienengatik. Profetak lendik esandako guzia egin arte, Je-

sukristo Gurutzean egon zan: aren iltzeko denboran eguzkia illundu, lurra ikaratu, ill-obiak iriki, eta aietan zeuden illak piztu ziran. Au guzia Jesukristoren antz-iduria zan bildotsa iltzen, eta sakripikatzen zuten Pazko Ostiral egun batean, gertatu zan. Era ontan gure Jesusen eriotza, Aita Eternoari egin zitzaion eskañi, ta egizko sakripizioa izan zan; eta lenagoko sakripizio guziak, onen antz-irudi edo imajiñak baizik etziran. Eriotz au, munduko bekatu guziakatik Jainkoaren Justiziari eman bear zitzaion ordaña izan zan. Jesukristok batere kulparik gabe bekatarari kulpadunen zorra ordaindu, ta bere odolaz demonioaren azpitik atera, ta bere eriotzaz zeruan beti bizitzera joateko bidea idiki zigun.

GALDEAK TA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo, ¿nola ill zan?

E. Lapur biren erdian Gurutze batean iltzez josirik.

G. Iñori Gurutzean bizia kentzea, ¿nolako kastigua zan?

E. Izan al zitekean desonragarrien eta lotsagarriena.

G. Jesus ill zanean, ¿zer gertatu zan?

E. Eguzkia illandu, lurra ikaratu ta illak piztu ziran.

G. Jesukristo Pazko-bildotsa iltzen zan egunez, ¿zergatik ill zan?

E. Bildots au, bere irudi ta imajiñ erakusgarria zalako.

G. Jesusen eriotza, ¿nolatan izan zan sakrifizioa?

E. Gugana aserre zegoan Jainkoa palakatu, ta munduko bekatu guzien zorra ordaintzeko diña bera bakarrik zalako.

G. Gañerako edo lenagoko sakrifizioak, ¿zertako ziran ba?

E. Jesukristok bere Aitari egin bear zion sakrifizioa adierazteko, edo sakrifizio onen irudi-antzak ziralako.

G. Jesus-ek bere Odolaz erosi ginduala, ¿zergatik esaten da?

E. Demonioaren mendetik askatu ta atera gindualako.

G. Eta eriotza galdu eta desegin zuala, ¿zergatik esaten da?

E. Bere eriotzaz, betiko bizitzarako bidea idiki zigulako.



XXIII. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN PIZTUERA.

Jesukristo ill-ezkero, aren gorputza Josek eta Nikodemus-ek Gurutzetik jechi, ta ukendu usai gozozko batez ganzutu, ta illo-bi batean ipiñi zuten. Orduko Eskriba ta Fariseoak bazekiten, Jesusek esanik zeukala, piztu ta bizirik illen artetik jeikiko zala; ta aren ikasleak ill-obitik gorputza ostu, ta eraman zozaketelako beldurrez, obia gordetzeko zaitzalleak ipiñi zituzten. Baña Jesukristo Igande batean, ill zanetik irugarren egunean, illen artetik bizirik jeiki, ta obi-zaiak erdi illak edo illen eran golditu



Jesusen Zeruratzea.

ziran. Jesus piztu zanik Apostoloak nekez sinistu zuten; Jesus beren begiz ekusi, eskuz ukitu, ta berekin mai batean jaten ekusi arteraño, etzuten sinistu. Zerura igo baño len, berrogei egunez askotan agertu zitzaien; eta bitarte ontan gauz jakin-bear asko adierazi zizten; eta jendeai Ebanjelioa erakustera edo zeruetako Erreinoaren berri ona ematera; ta guziak Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean bataiatzera, munduko bazter guzietara zijoaztela, agindu zien. Onez gañera, bekatuak barkatzeko eskua, indarra ta almena eman, eta munduaren azkeneraño aekin egongo zala agindu zien. Ala ore aek begira zegozkala, zeruetara igo

zan: eta an Aita Jainko Guzialtsuaren eskuitik kreatura guziak baño gorago dago; ala ta guziz ere illak eta biziak juzgatzeraz zerutik berriz datorren arteraño, beti bere irabazi edo morezimentuak gugatik Jainkoari agertzen, eta bere Eleizari laguntzen diardu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo ill ezkeror, aren gorputzaz ¿zer egin zan?

E. Illobi batean ipiñia izan zan.

G. Aren etsaiak orduan ¿zer egin zuten?

E. Obi-zaiak edo guardik ipiñi ziozkaten.

G. Jesus ¿zer egunetan piztu zan?

E. Igande batean, ill zanetik irugarren egunean.

G. Jesus piztu zala, Apostoloak ¿bereala sinistu al zuten?

E. Ez ain laster: ekusi ta guzia arkitu arte, etzuten sinistu.

G. Noizean bein agertuaz, aen artean ¿zenbat denboran egon zan?

E. Berrogei egunetan.

G. ¿Zer agindu zien?

E. Mundu guzian predikatu, ta bataiatzeraz, zijoaztela.

G. Ta bataioa agintzean ¿zer irakatsi zingun?

E. Jainkoa Aita dala, Semea dala, ta Izpiritu Santua dala.

G. Apostoloai ¿zer esku-bide eman zien?

E. Bekatuak barkatzeko almena.

G. ¿Nola utzi zituan?

E. Aek begira zeuzkala zeruetara igo zan.

G. Zerura joan zan egun ura ezkerro, ¿zer egoera du an, edo nola dago?

E. Kreatura guziak baño gorago eseririk, Aita-Jainkoaren eskuiko aldean dago.

G. Baldin Apostoloai esan bazien munduak zirauen arteraño aekin egongo zala, ¿nola izan diteke ori?

E. Alasē dago: beti zerutik bere Eleizari laguntzen diota.

G. ¿Nola laguntzen dio?

E. Bere irabaziak gure osasunerako ta onerako eskañiaz.

G. ¿Geigo lurrera biurtuko ote da?

E. Bai: munduaren azkeneko egunean bi-zi ta illai kontuak artzera etorriko da.



XXIV. IRAKURTZA.

APOSTOLOEN GAIN

IZPIRITU SANTUAREN ETORRERA.

Pazkoatik berrogei ta amar egunen bu-
ruan, Jainkoak bere lege santua erakutsi
zien egunaz oroitzeko, Pentekostes zeri-
tzan jai andi bat, Judeatarrak egin oi zu-
ten. Onelako egun batean, Jesukristo piz-
tu zanetik berrogei ta amar garrenean,
ikasleak toki batean alkarrekin zeudela, ze-
rutik bera baletor bezela, eche guzia bete
zuan aize indartsuaren antzeko ots andi
bat, bat-batetan entzun zan, eta une artan sus-
koak ziruditen mingaiñ batzuek agertu, ta

Apostoloen gañean jarri ziran. Orduan guziak Izpiritu Santuz bete, ta era askotako izkuntzak itz egiten asi ziran. Onela itz egiteak, munduko gizon-emakume guziaz Jesukristoren Ebanjelioa, edo ark esan eta egin zituan gauzen berria, Apostoloak erakutsi bear ziela, adierazten zuan. Judeatarrak chit ikaratu ziran, eta Pedro Santuak, Apostolo guzien buru egiñik, begien aurrean zeukaten miraria, zer zan, eta gai onezaz Igarleak alde aurretik esanik zeukatena, adierazi zien. Gañera erakutsi zien, aek Gurutz-iltzatu zuten Jesus, illen artetik piztu zala; ta Berak, Izpiritu Santua biraldu ziela; eta Jesus zala, lenaz Igarleak aditzeratu zuten Mesias Jainkoaren Semea, ta bakarrik izen Santu ontan betiko zoriona arkitzen zala. Pedro Santuaren itzaldi au entzun zuenetatik, iru millataraño ondu ta baitaiatu ziran. Apostoloak eta Izpiritu Santua artu zuten gañerako guziak, guziz biotz aldatuak, len ziran ez bezelakoak, eta Izkritura Sagraduan ezarririk dauden gauzak aditze-ko, zeruko argiz argituak gelditu ziran. Gizon-emakume guziak bekatariak dirala, ta Jainkoaren laguntz eta graziaren bearra dutela, ta grazi au Jesukristogan sinistuta baizik, iristen eztala, ezagutu zuten. Denbora berean Jainkoaren naitasunezko suz iraze-kiak gelditu ziran: su onek, Jainkoaren agin-
duak gordetzeko, poz-atsegin gozo bat eta

egia mundu guzian agertzeko indar ezin andigo bat eman zien.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Judeatarrak *Pentekostes*, ¿zeri deitzen zioten?

E. Jainkoak legea eman zien egunean egiten zan jaiari.

G. Egun ontan Apostoloai ¿zer gertatu zitzaien?

E. Izpiritu Santuz beteak izan ziran.

G. Eta Izpiritu Santuak ¿zer egin zien?

E. Aien adimenak argitu, ta Izkritura Sagraduan dauden egiak adierazi ziozkaten.

G. Eta ¿zer geigo?

E. Jainkoaren naitasun andi bat beren biotzetan irazeki zitzaien.

G. Apostoloak, Izpiritu Santua artu zuten une artan ¿zer egin zuten?

E. Era askotako izkuntzetan mintzatzen asi ziran.

G. Ta onelako izketak ¿zer esan nai zuan?

E. Ebanjelioa mundu guzian predikatu bearko zutela.

G. Orduan Pedro Santuak ¿zer esan zuan?

E. Jende guziaren aurrean aitortu zuan, Mesias edo Aita-Jainkoak mundura biraldu zuan Seme-Jainkoa, Jesukristo zala, ta onek Izpiritu Santua biraldu ziela.

G. Lenbiziko sermoi onekin, Jainkoagana
zenbat erakarri zituan?

E. Iru milla.

G. Pentekostes zeritzan egunean, Izpiritu
Santua zergatik biraldua izan zan?

E. Lege zarra agertu zan egun berean,
lege berria ere agertzeagatik.



Jesukristok Apostoloak biraltzen ditu, jendeai
zeruko bidea erakustera.

XXV. IRAKURTZA.

JENTILLEN EDO LEGE-GABEKO JENDEEN DEIA.

Apostoloak erakutsirik, Jesusganatu ziran Judeatarrak asko izan ziran; baña erakuste ura ezertan artu ez, eta Apostoloak gogorki erabilli zituztenak askoz geigo ziran. Beren setan gogorturik gelditu, ta Judeatar oek, Esteban Santua il zuten. Santu au, Apostoloak Eleizaren serbikintzarako ordendu zituzten zazpi Diakonoetatik bat zan, eta Jesukristok erakutsi zuana sinisterazitzeko, erio-tza eraman zuan; orregatik da *Protomartir*

edo lenengo martiria. Gero Samariatarretatik Jainkoaren itza artu, ta asko ondu ta bataiatu izan ziran, eta Izpiritu Santua artzeko, Apostoloak eskuak buruen gañean ipiñirik, Konfirmazioko Sakramentua eman zieten. Andik geroşeago Eleizara etorri, ta jentillak edo legegabe bizi ziran jendeak, Jesukristogan sinistuzuten. Oetatik lenbizikoa, ta lenagotik Jainkoa ezagutu, ta orazio asko ta limosna andiak egiten zituana, Erromatar Kornelio Kapitana izan zan. Oni Jainkoak Aingeru bat biraldu, ta zer egin bear zuan jakiteko, Pedro billa zezala esan zion. Ordurako Jainkoak, egiteko onen berria Pedrori eman zion, eta onenbestez Kornelioren echera joan, eta itz egiten asi zaneke, Izpiritu Santua, edo grazi ugarigoa, ta izkuntz askotan itz egiteko doaia, ango guziak artu zuten. Bertatik Pedro Santuak batai-erazi, eta Jesusen Eleiz berrirako egin zitzaien deiaren gauz estali edo misterioak jentillai agertzen orduan asi zan. Dei miragarri au, Jainkoak bere nai on utsez bestegabe, sinismenik etzuten jendeak Jesukristoren sinismen eta grazira, erakarri, ta Judu gogortuen tokian ipintzea izan zan. Jesukristok zerura igo ezkeru, amabi Apostoloaz gañera, jentillai erakusteko, amairugarren bat deitu zuan, eta au Paulo Apostolo Santua da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Protomartir edo lenengo martiria ¿nor izan zan?

E. Esteban Santua.

G. Martiria ¿zer da?

E. Lekuko edo testigua.

G. Martiriak ¿noren testiguantza eman zuten?

E. Ebanjelioko egiena.

G. Juduen urrena Ebanjelioa sinistu zutenak, lenbizi ¿nor izan ziran?

E. Samaria-tarrak.

G. Eta jentillen artetik ¿nor?

E. Kornelio zeritzan Erromako Kapitan bat.

G. Gauz ori nola izan zan, esazu:

E. Kornelio, Jainkoaren bildurra zuana, ta otoitz asko ta limosna andiak egiten zitu gizon andi bat zan. Aingeru batek Pedro Santua billa zezala, edo bere echera eramanez zezala, esan zion. Ordurako Pedro Santua kontuan zegoan.

G. Eta Kornelioren echean sartu zanean ¿zer gertatu zan?

E. Erakusten asi zaneko, ala ark nola aren echeko guziak, Izpiritu Santua artu zuten.

G. Orduan Pedro Santuak ¿zer egin zuan?

E. Bereala batai-erazi zituan.

G. ¿Zer gauz andi, estali, edo zer misterio asi zan orduan agertzen?

E. Jainkoak Jesukristogan sinisteko, jentillai egin zien deia.

G. Eta misterio au ¿zer da?

E. Jainkoak jentillai deitu, ta Judu siniskaitzak utzi zuten lekua betetzea.

G. Jainkoari dei au ¿zerk eragin zion?

E. Bere ontasun, ongi-nai, ta urrikaltasunak.

G. Jentillen Apostoloa ¿nor izan zan?

E. Paulo Santua.

G. Gure Jaunak ¿noiz deitu zion?

E. Zerura igo-ezkero.



XXVI. IRAKURTZA.

ELEIZ-EGITEA.

Apostoloak Izpiritu Santua artu ta lurraren lau alderdietara banatu ziran, eta Jesukristok agindu zien bezela, bata batera, bestea bestera munduko guziai erakustera joan ziran. Baina lenago guzaiak toki batean batu, ta Kredoa antolatu zuten; edo egizko fededunak zein ziran ezagutzeko, ezagun-bide, edo sinalea egin zuten. Jesukristok eta bere izenean Eleizak irakatsi dizkigun egi sinisbearrak labur-

ki bildurik Kredoan daude. Ara nolakoa dan:

«Sinisten det Aita Jainko guzialtsu zerua-
»ren ta lurraren Kreatzalleagan; eta aren Se-
»me bakar Jesukristo gure Jaunagan, Izpiritu
»Santuaren graziz sortua izan zana; jaio zan
»Maria Birjiñagandik; padezitu zuan Ponzio
»Pilatos-en mendean, izan zan gurutz-iltzatua
»illa ta obiratua; jechi zan inpernuetara, ta
»irugarren egunean illen artetik bizirik jei-
»ki zan; zeruetara igo, ta an dago eseririk
»Aita Jainko guzialtsuaren eskuitik, andik
»etorriko da biziak eta illak epaitzera. Sinis-
»ten det dala Izpiritu Santua; Eleiza Santu
»Katolikoa, Santuen alkartasuna, bekatuen
»barkamena, aragiaren piztuera, ta beti-betiko
»bizitza. Alasen.

Apostoloak, Eleiz edo Kristau-billerak egi-
tean, Eleiz bakoitzean Apezpiku edo Obispo
bat, ta onekin batean Sazerdote ta Diakonoak
jartzen zituzten. Pedro Santuak ezarri zituan
iru Eleizak dira lenenak; oetatik bat da Erro-
ma, ta emen bere jarleku, katedra edo silla,
ipiñi zuan, eta nola orduan Erroma mundua-
ren buru ta agintari baizan, ala Pedro Santu-
ak an ezarri ta ipiñi zuan Eleiza, Eleiz guzien
buru ta nagusia da. Paulo Santua ere Erro-
mara etorri zan, eta biak, Neron agintari zala,
martirioa eramán zuten. Jesukristok, Pedro
Santua Apostoloen buru egin zuan; orregatik
aren ondorengo Apezpiku, Aita Santua deri-

tzana, Jainkoak ala naita, Apezpiku guzien le-
nengoa, ta Jesukristoren ordeko ta Eleiz gu-
ziaren Buru ta Nagusi agiria da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Apostoloak, munduan banatu baño len
izer egin zuten?

E. Kredoa egin zuten.

G. Kredoa izer da?

E. Kristau egizko fededunen siñalea.

G. Kredoa esazu:

E. *Sinisten det, Aila Jainko, etc.*

G. Apostoloak, Eleizak errietan ipintzeko,
izer egin zuten?

E. Erri bakoitzean Apezpiku bat, sazerdo-
te ta diakonoakin ordentzen ta jartzen zituz-
ten.

G. Iru Eleiz nagusienak inork egiñak eta
ipiñiak dira?

E. Pedro Santuak.

G. Bere silla edo eser-lekua inon jarri
zuan?

E. Erroman.

G. Zeratik?

E. Denbora artan Erroma munduaren
buru ta nagusi zalako.

G. Orrek izer esan nai du?

E. Eleizaren Buru agiri dana, Erromako
Aita Santua dala.

G. ¿Zergatik?

E. Pedro Santuaren ondorengoa ta aren
silla ta jar-toki berean eseririk dagoana da-
lako.

G. Eleizaren Buru agiri eztana ¿nor da?

E. Zeruian dagoan Jesukristo bera.

XXVII. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN ETA APOSTOLOEN IRAKASTEA.

Jesukristok irakatsi zuan guzia, itzez eta batiere izkribatugabe irakatsi zuan. Apostoloak lenbizian, orobat egin zuten; onela beren Maisuagandik ikasi zituzten egiak berak, ondorengo ikasleai irakatsi zizten; oek beren ondorengoai irakasteko gaian uzten zituztela. Ala Apostoloak irakatsi zutena, lenbizi Apezpikuetara, oetatik oen ondorengoetara ta onela gaurko egunean irakasteko kargua dutenetara igaro zan. Irakastearen jarraio ta ondore oni latinez *Traditio* deritza; ta euskoraz adierazteko esan dezakegu, batak besteari eskutik eskura ematea bezela, ta bere aurrekoak irakatsi zioten ura bera, ondorengoai irakastea dala. Beraz Jainkoaren itza bi aldetarakoa da: *izkribatuba ta izkribatugabea*. Jainkoaren itz *izkribatugabea*, gure lenengo guraso Adani irakatsi ziona, ta munduaren asieratik Moises-en denboran iraun zuana, eta geroz ere, izkribatuak eztauden egi batzuek gorde zituana da. Itz izkribatuba, antziñako ta oraingo lege bietako liburuetan dago; ta liburu oei, batera bildurik *Biblia* deritza. Antziñako Legeko edo Testamentu zarreko liburuak, Moises-enak eta Igarleenak

dira: oraingo Testamentu edo Lege berrikoak, Apostoloak ta Ebanjelariak izkribatu zituztenak, eta Izpiritu Santuak agertuak eta irakatsiak diralako, guziak sinis-bearrak dira. Izkribatuak ez izanagatik aurrenetik asi ta eskutik eskura bezela, kristau guzioi eman zaizkigun egiak, batez ere Eleizak bere Batzarre edo Konzilioetan erabaki ta irakatsi dituztenak, orobat sinistu bear dira.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jainkoaren itza ¿zenbat modutakoa da?

E. Bikoa: izkribatuba ta izkribatu gabea.

G. Itz izkribatu gabea ¿zer da?

E. Apostoloetatik Apezpikuetera, ta oetatik gugana eskutik-eskura bezela igaro ta etorri zaiguna.

G. Izkritura ¿zer da?

E. Lege zarrean eta berrian izkribatu ziran liburuak, batera bildurik dauzkan BIBLIA edo liburu andi bat.

G. Lege edo Testamentu zarreko liburuak ¿norenak dira?

E. Moises-en eta Igarleenak.

G. Moises-en denbora baño len, Fedeko egiak aztu gabe ¿nola iraun ta gorde ziran?

E. Gurasoak beren umeai ta oek ondo-rengoai irakatsiaz.

G. Lege berriko liburuak ¿nork izkribatu zituan?

E. Apostolo ta Ebanjelariak.

G. Izkriturak diona sinisterra beartuak ¿zergatik gaude?

E. Izpiritu Santuak irakatsia dalako.

G. Eta lenagokoak itzez irakatsi zigutena ¿sinistu bear al degu?

E. Orobat; au ere Izpiritu Santuaren irakastetik datorkigulako.

XXVIII. IRAKURTZA.

JERUSALEN GO ONDAMENDIA.

Ebanjelioaren berria barrekatuta, Jerusalemgo Erria ta Judeako Erreinoa, etziran berealakoan galdū; kristau-Eleiz berria legegabeko jendez batu arteraño, iraun zuten. Ala bear ere zan; Lege berriko Eleizaren zimendu ta sustrai izatea, Israelarren antziñako Eleizari zogokiolako. Baña geroenean ere, Jesukristok alde aurretik esanik utzi zuan bezela, Jerusalem galtzeko denbora, eldu zan. Judeatarrak, Erromatarren kontra azaldu, oek Jerusalemgo Erria inguruan artu, guda gogor bat asi, ta gose ain ikaragarria sortu, eta amak beren semeak jateraño beartu ziran. Aldi ontan Jerusalemene, milla bider milla, ta eun milla persona ill ziran. Tito zeritzan Bepasiano Agintariaren seme batek, eche guziak lurrera egotzi, ta Tenploa edo Eleiz nagusia errerazi zuan. Igarleen eta Jesukristo Beraren odola išuria izan zan zorigaiztoko Erri doakabe ura, Jainkoak onela kastigatu zuan. Jesukristo, Salbatzalletzat eza gutu ta aitortu nai etzuten Juduak, Erromatarren azpian eta menpean katibu gelditu, ta beren errietatik erbestetuak, aienatuak eta mundu guzian sakabanatuak izan ziran; eta arrezkero bizitegi jakiñik ez dutela, milla ta

bederatzi eun urteren buruan, guziz errukarri bizi dira. Orduetik, antziñako legeko zeremoni guziak galdu ziran.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Ebanjelioa munduan barreatu ta ere, Jerusalengo Erriak erori gabe ¿zergatik irau zuan?

E. Lege gabeko jendeen Eleiz berria, Judeatarren Eleiz zarraren sustrai ta zimentuaren gañean ipiñi bear zalako.

G. Jerusalem lurrera ¿nork egotzi zuan?

E. Tito zeritzan Bespasiano Agintariaren seme batek.

G. Orduan ¿zenbat jende il zan?

E. Milla bider milla, ta eun milla persona.

G. ¿Eta gose andia izan zan?

E. Ain andia, emakumeren batzuek, beren umeak jateraño eldu ziran.

G. Jainkoak Erri ura ain gogorki, ¿zergatik kastigatu zuan?

E. Jesukristori eriotza eman ziolako.

G. Gero Juduai ¿zer gertatu zitzaien?

E. Besteren menpean eta mundu guzian banatuak gelditu ziran.

G. Eta ¿gero?

E. Oraindik ere orobat arkitzen dira.

G. ¿Zenbat denbora da?

E. Milla ta bederatzi eun urte baño geigo.



XXIX. IRAKURTZA.

ELEIZAK BERE ETSAIEN ALDETIK
EKUSI ZUAN NEKE JARRAIO GAIZTO
EDO PERSEKUZIOA.

Jesukristoren Ebanjelioak ziona, mundu guziari egia zala sinisterazteagatik, Apostolo, beren Ikasle, ta lenengo Aita Santu ta Apezpiku guziak, martirioa eraman zuten. Jesukristo zerura igo ezkerro, irureun urtean gaitzik eta nekerik asko bere etsaigandik, kristau-Eleizak ekusi zuan; eta orduan Jesukristogatik bizia eman zuten gizon-

emakume ta zar-gazteak, ezin kontatu al adi-
ña izan ziran; kristauak, iñori etzioten gaitzik
egiten, onik asko baizik: ala ere mundu gu-
ziak begitan arturik zeuzkan, gezurrezko
jainkoari egiten zitzaizten agurrak eta gañe-
rako aien arteko gaiztakeri itsusi, nazkaga-
rriak ezin eraman zituztelako. Agintari ta
kargudunak, guziak beingoan galtzeko as-
moa, askotan artu izan zuten. Erritik urrutira
bota, beren ondasunak kendu, kartzeletan
sartu, ta iltzen zituzten. Baña kristauak etzi-
ran batere beldurtzen; orregatik etsaiak, aek
kastigatzeko, martiriorik gogorrenak asma-
tzen zebiltzan; burnizko azkazal eta ortza-
kin gorputzeko aragi guziak urratu, surtan
erre, olio irakiñetan eta berun urtuan sartu,
artzak eta legoiak zeuden tokira bota, oek
beren atzaparrakin puskatu ta jan zitzaten
larrua idiki, ta sabelak atera, batzuek serratu
ta erdi bi egin, besteai oñak eta eskuak eba-
ki, eta begiak, ortzak eta azkazalak ateratzen
ziozkaten. Onelako nekeak zeramazkitenak
eta iltzeraño eramaten irauten zutenai, Marti-
riak deitzen zitzaien. Alakoak, Lorenzo, Bizen-
te, Sebastian, Ines, eta Apolonia Santuak, ta
beste onelako ezin kontatu al Santu izan
ziran. Jainkoa alabatzer, ta Santu berak
Jainkoarekiko bitarteko artzera, kristauak,
Santu oen ill-obien ondoan, batu oi ziran.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Apostoloak, ¿nola il ziran?

E. Guziak martirioa eramán zuten, baita Apostoloen lenengo ikasleak ere.

G. Kristauak etsaien aldetik ekusi zuten neke edo persekuzioak, ¿zenbat denboran iraun zuan?

E. Irureun urte.

G. Etsai aek kristauak ain gaizki erabil-tzeko ¿zer gaiztakeri egin zuten?

E. Batere ez; egin al guzian ongi egiten zuten.

G. Begitan arturik ¿zergatik zeuzkaten?

E. Jentillak gezurrezko jainkoai egiten zizten agurrak, eta beste gaiztakeriak, ontzat ematen etzituztelako.

G. Eta jentillak aei, ¿zer egiten zien?

E. Ondasunak kendu, ta illerazi.

G. ¿Eta onenbestez aspertzen ote ziran?

E. Ez; kristauak eriotza ezertan etzeuka-ten, ta orregatik aek kastigatzeko bestelako kastigu ta neke-pen ikaragarriak asmatzen zituzten.

G. ¿Zer neke edo zer kastigu zan bada, kristauai ematen zitzaiena?

E. Burni edo parrilla gorituen gañean, aragia jateko erretzen dan bezela, zabaldu

ta erre; burnizko azkazalakin gorputzeko aragiak urratu, ta kupidagabe ortzak eta azkazalak ateratzen zitzen.

G. Kristauak Martiri Santuak ¿nola ondratzen zituzten?

E. Jainkoa alabatzeke ta orazio egiteke aen ill-obien ondoan batzen ziran.

XXX. IRAKURTZA.

ELEIZAKO PAKE TA BAKARZALEEN
ASITZEA.

Zenbat eta geigo ziran Jesukristoren Fedea-
gatik martirioko eriotza zeramaten kristauak,
ainbat geigo ziran berriro kristautzen zira-
nak. Orregatik beren buruak gordetzeko,
gaizkilleai erasotzea zilegi zanik, beñere etzi-
tzaien gogoratu. Azkenik nekezko irureun ur-
teren buruan, Konstantino Agintedun andiak,
kristau egin zanean, Jainkoak bere Eleizari
pakea eman zion. Orduan kristauak nai be-
zela ta libertade osoz Jainkoa serbitzen
asi ziran; baña denbora berean Jesukristori
jarraitzeko gogoa kristaurik geienetan epel-
du zan. Askok aboz kristauak zirala zio-
ten; baña Jesukristok irakatsi zituan egi-
ak, etzeuzkaten biotzeraño sarturik; lurre-
ko aberastasunak eta atsegin eragabeak etzi-
tuzten gogoz utzi nai, ezta zerurako uste ta
esperantzik artu ere. Orregatik Ebanjelioak
ziona obeki gorde nai zutenak, jendartetik ir-
ten, eta mendi-eremu-basoetan bizi izaten zi-
ran. Onelakoai monje edo *Bakartarrak*, dei-
tzen zitzaien, eta ospatsuenak Antonio Santu
andiak erakutsi ta Ijiton bizi ziranak izan zi-
ran. Abelge beartsuak bezela, ur ta ogi, bizia-

rentzat ozta bear zutenaz barautuaz, ta esku-
lanetan ari zirala, bizi izaten ziran: alkarri itz
egin gabe, geienean isillik oi zeuden: lo gu-
chi egiten zuten; orazio egiten, eta Izkitura
Santua gogoan erabiltzen, maiz ziarduen. Bi-
ziera au kristau Errietan, Benito Santuak
orretarako irakatsi zituan araubak gordeaz,
zabaldu zan, batez ere eguzki sartaldeko toki
abetan.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Nekezko edo jarrai gaiztoko denboran,
kristauak gasko guchitu al ziran?

E. Ez, baizik geitu; zenbat eta geigo il-
tzen zituzten, ainbat eta ugariago Jesukristo-
ren sinismen eta legera etortzen ziran.

G. ¿Ta aren buruak gordetzeko, ta nekee-
tatik ateratzeko, etsai neke-emalleai eraso-
tzen al zien?

E. Ez: Jainkoak debekaturik dauka bi-
dezko Buru agintari nagusien kontra azal-
datzea, naiz edozer aitzakiz dala.

G. Kristau egin zan lenengo Agintedun
andia ¿nor izan zan?

E. Konstantino.

G. Kristauen gauzak orduan, ¿nola geldi-
tu ziran?

E. Askoz obeto; Jainkoaren serbikintzara-
ko, nai adiña esku ta erabide bazutelako.

G. Kristauen Jainkoaganako gogoa ta zor zaion onginaia, ¿noiz epeltzen ta galtzen ari zan?

E. Denbora artan berean, etsaigabe ta neke gabe bizi ziranean.

G. Besteak baño kristau obegoak izan nai zutenak, ¿zer egin zuten?

E. Gaiztoagandik aldegin ta baztertu, ta bakartasunean bizi oi ziran.

G. Onelakoai ¿nola zerizten?

E. Monje edo *Bakartarrak*.

G. ¿Nola bizi izaten ziran?

E. Asko barautuaz, lan gogorrean eta beti orazio egiten.

the following is a list of the
 names of the persons who have been

admitted to the office of the

Secretary of the State of New York

for the purpose of the

execution of the

functions of the

office of the

Secretary of the State of New York

for the purpose of the

execution of the

functions of the

office of the

Secretary of the State of New York

for the purpose of the

execution of the

functions of the

office of the

Secretary of the State of New York

for the purpose of the

execution of the

functions of the

office of the

Secretary of the State of New York

for the purpose of the

execution of the

KRISTAU IKAS-BIDEAREN

BIGARREN PARTEA.



I. IRAKURTZA.

FEDE, ESPERANTZ ETA KARIDADEA.

Kristau-dotriñak, lau zati edo parte ditu; *Kredoa*, *Aita gurea*, Jainkoaren legeko *Agin-duak*, eta Eleizako *Sakramentuak*. *Kredoan*, Fedez sinistu bear deguna, arkitzen da; *Ai-ta gurean*, esparantzaz eskatu bear deguna; *Aginduetan*, Jainkoaren amodioz egin bear deguna; eta *Sakramentuetan*, oek ematen diguten grazia. Onela *Erlijioa* deritzan bertutea, Jainkoa ondratu eta serbitzeko egin bear dan guzia, *Fede*, *Esperantz* eta

Karidadean bildurik dago. Bertute oek, geren indarrez ezin irichi ditzakegu: Jainkoak bere ontasun eta urrikaltasunez eman bearko dizkigu. Jainkoak bere Elizari, edo Adanogandik asi ta oraindañoko fededun guzien batzarrearri agertu diona, antziñako Aitagoi, Igarle ta Apostoloak irakasten digutena, ta Jainkoak bere mirariz adierazi duana, naiz izkribatua, naiz izkribatugabea, guzia egia dala, Fedez sinisten degu. Jainkoak, gauza guziak diran bezela ezagutzen ditu. Ezin engaña diteke ta ezin engaña gaitzake; ta orregatik agertu duan guzia, geienean ongi aditu ezin badegu ere, aloterik batere gabe sendoki sinisten degu. Esperantzaz Jainkoak agindu dizkigun ongiak, orain emen beraren grazi santua, ta gero zeruan betiko bizitza irichiko ditugulako uste guziaz ichedoten ditugu. Karidadeaz, Jainkoa beste gauza guziak baño geigo maitatu ta onesten degu, eta Beragatik geren buruari bezela lagun urkoari nai ditugu. Fede ta Esperantza baño bertute andigoa ta ederragoa, ta oek gabe zeruan beti gurekin iraungo duana Karidade edo Jainkoagako naitasuna da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Kristau-dotriñ guzia, ¿zenbat gauzatarator dator?

E. Lautara.

G. ¿Zer dira?

E. *Kredoa, Aila gurea, Jainkoaren legeko Aginduak eta Eleizako Sakramentuak.*

G. Erlijioa edo kristauaren Jainkoarekiko egin-bide guzia, ¿zenbat bertutetan dago?

E. Irutan.

G. ¿Zer dira?

E. Fede, Esperantz eta Karidadea.

G. Eta gerenez eta inork eman gabe ¿bertute oek irichi ote ditzakegu?

E. Inola ere ez: gure indarraz goragokoak dira, eta Jainkoak eman bearko dizkigu.

G. Fedeak gudan ¿zer egiten du?

E. Jainkoak bere Eleizari agertu dion guzia sinisterazitzen digu.

G. Jainkoak gizonai itzegin diela, ¿nondik edo nola dakigu?

E. Berak egin dituan mirari ta gauz arri-garrien bitartez.

G. Eta esan digun guzia ain sendoki ¿zer-gatik sinisten degu?

E. Jainkoa ezin engaña ditekkelako, ta ezin engaña gaitzakelako.

G. Esperantzak ¿zer egiten du?

E. Jainkoagan berak eskañi dizkigun ondasunak ichedon.

G. Ondasun oek, ¿zer dira?

E. Bizitz ontan grazia ta bestean gloria.

G. Karidadea, ¿zer da?

E. Jainkoari ta lagun urkoari zaien onginai ta maitetasuna.

G. Iru bertute oetatik andiena ¿zein da?

E. Karidadea.



II. IRAKURTZA.

TRINIDADE EDO IRUBATASUN SANTUA.

Kredoa edo Kristau-siñalea: *Sinisten det Aita Jainko* etc. da. (lenago 107-garren orrial-dian ezarria dagoan bezela). Egizko Jainko bakar bat, gauza guzien Jaun eta Jabea, dan guzia egin, zaindu ta gobernatzen duana, guziz ona ta Santua, guzi-guzia dakina, beti ta gaur dana, eta beti irauteko dagoana, badala sinisten degu. Bera da kreatureta guzien Aita, guziak Berak egiñak dira, eta irauten duten artean diraute, Aita onak bezela bere eskuz dauzkalako. Baña gauzari dagokan bezela itz egiten degula, izakizunez bakarrik Be-

re Seme bakarraren Aita da. Seme au, Aitak bere barrunbean, kreatura guziak baño len ezagüieraz sortu zuan Aditza ta *Jakiundea* da; ta dan guzia, onen bitartez Aitak egin zuan. Aitarekin Semea berdiñ-berdiña da. Aitak bere burua, ezagutu ditekene adiña ezagutzen du, ta duan ezagungarritasunari dagokan bezela, onesten ta amatzen du bere Semea, onek ere bai bere Aita; eta bien alkarrekiko naitasun onen bitartez, bata ta bestearekin berdin-berdin dan Izpiritu Santua, Aitagandik eta Semeagandik dator. Onela Jainkoagan Aita bat, Seme bat eta Izpiritu Santu bat dira. Iru oetatik bata iñola ez da bestea; ta iru oetatik bakoitza, beste biak bezela, Jainko da; bada Aitasuna, Semetasuna ta Izpiritu Santutasuna gauza bana edo bereziak izanagatik, Irutasun edo Trinitade au guzia Jainkotasun bat baizik ez da. Eta Jainko bakar bat baizik ezin izan ditekene; bada bi baliara, batak ezin lezake besteak duana, ta ezlitza ke izango Jainkoa dan bezela oso ta beti Jauntasun eta Jabetasun guziak dituana.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

- G. Kredoa ezazu:
- E. *Sinisten det etc.*
- G. ¿Jainkoa zer da?

E. Da gauza guzien Jaun Goiena, Jabe ta Nagusia.

G. Guzialsua ¿zergatik deitzen diozu?

E. Guzia egin, eta nai duan guzia beti dezakelako.

G. Aita ¿zergatik deitzen diozu?

E. Berak egin, zaindu, ta eskutik bezela iduki, ta bere umeai bezela begiratzen digulako.

G. Jainkoaren egizko Semea izakizunez ¿zein da?

E. Beraren Aditz andia, Beraren Jakinduria, ta Berak Beregan sortua.

G. Jainkoaren Seme au, bere Aitarekin ¿berdiñ al da?

E. Bai: Aita beziñ neurrigaberik andia ta ederra, ta Aita diñakoa da.

G. Aita-Jainkoak bere Semea ¿amatzen eta onesten du?

E. Bai: eta Seme-Jainkoak ere bere Aita maite du.

G. Aitaren eta Semearen amore oni, ¿nola deritza?

E. Izpiritu Santua.

G. Au, ¿norgandik dator?

E. Bata ta besteagandik, Aita ta Semeagandik.

G. Ta Izpiritu Santua, Aita ta Semearekin ¿berdiñ al da?

E. Bai: irurak berdiñ-berdiñak dira.

G. ¿Iruretatik bakoitza bata bestea da?

E. Ez; irurak bana dira.

G. Bakoitza, ¿Jaïno da?

E. Bai: Iruretatik bakoitza Jaïno da.

G. Ta orregatik, irurak ¿iru Jaïno òto dira?

E. Inola ere ez: Aita, Semea ta Izpiritu Santua, irurak Jaïno Bera bakar bat dira.

G. ¿Jaïno bat baño geigo izan diteke?

E. Inola ozin diteken gauza bat orise da.

III. IRAKURTZA.

JAINKO-SEMEAREN GIZONTZEA TA GURE EROSPENA.

Jainkoaren Seme bakarra Jesukristo gure Jauna da: beti da ta eternidade guzian Jainkoagan zegoan. Aragi egin eta gurekin bizi izan zan. Jainkozko Aditz andi au beti Jainko zan, eta Jainko izatea utzi gabe, gureak bezelako gorputz eta anima bat, Beregan artu zituan. Alaz guziz ere, Jainkozko Aditz aragitu au, (edo orobat dana) Jesukristo egizko Jainko ta gizona, Persona bakar bat da. *Izpiritu Santuaren graziz ta bertulez sortu, ta Maria Birjiñagandik jaio zan.* Sortze ta Jaiotze au mirariz beteak izan ziran. Jesusen Ama, Jesus jaio baño len, jaiotzean eta jaio ezkeru, beti-betiko Birjiñ garbia da. Jesus, Ama Birjiñaren sabelean bizitzen asi zanetik bere Aita Eternoak Izpiritu Santuaren grazi, santutasun, doai ta bertutez ezin geigoraño orniturik, bekaturik chikienerako gairik batere gabe apaindu zuan. Gugatik, gure onerako, gure zuzenbiderako, gure animen osasunarako, gu zeruratu ta an gloriz eta atsedeen-pozkidaz betetzeko, Jainkoaren Seme-Jainkoa gizon egin zan. Eta one-

gatik beragatik, *Ponzio Pilatos-en mende*an padezitu, *ta gurutz-iltzatua, illa ta obiratua izan zan*. Zigun naitasunaren andiz, demonioaren katibutasunetik ateratzeko bere odola ta bizia pozik eman zituan.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo gure Jauna *¿zein da?*

E. Aditz aragitua da.

G. Aditz aragitu au, *¿zer gauza da?*

E. Jainkoaren Semea.

G. *Aragitu zala edo aragi egin zala* esateak *¿zer esan nai du?*

E. Gizon egin zala esan nai du.

G. *¿Eta orregatik Jainkoaren Semea aldatu edo len zanetik besterik egin al zan?*

E. Ez: gizon egin zan baño len zan bezela, Jainko gelditu zan.

G. Guk ditugun bezela, *¿gorputz-animak bai alditu?*

E. Bai: Gizon oso, errurik eta utsik gabe Jainko Gizona da.

G. Gizon danez, *¿noren semea da?*

E. Ama Birjinarena.

G. Ta Jainko danez *¿noren semea da?*

E. Bakarrik Jainkoarena ta ez besterena.

G. Jainkoaren Semea ta Mariaren Semea, *¿bi persona al dira?*

E. Ez: baizik Jesukristo persona bakar bat da.

G. Jesukristo, Izpiritu Santuaren egitez eta graziz sortua izan zala, zergatik esaten da?

E. Mirariz, eta gizonak orretan egitekorik etzuala, sortu, ta aren Birjiñtasunari kalterik batere egin gabe jaio zalako.

G. Jainko Semea, zertako gizon egin zan?

E. Gure onagatik, gure animen osasunarako, ta gu zerura eramateko.

G. Bere Pasioa ta Eriotza zertako izan ziran?

E. Gu erosteko ta demonioaren katibutasunetik ateratzeko.

IV. IRAKURTZA.

JESUKRISTOREN INPERNUETARA JESTEA,

AREN PIZTUTZEA

TA ZERURA IGOTZEA.

Jesukristo ill eta aren gorputza gurutzetik jechi ta ill-obi batean gorde zuten; eta anima inpernuetara edo munduaren asieratik orduraño izan ziran Santuak zeuden lurpeko atsedeen-toki batera jechi zan. Jainkoaren Se-meak, an zeuden Santuak atera, ta zerura igo zanean, Berakin ara eramane zituane. Aren animak eriotzan bere gorputzagandik alde egin zuan; baña Jainkotasuna bata ta bestea-gandik kendu gabe beti biakin batua egon zan. Izkriturak esan zuten bezela, *irugarren egunean piztu*, edo «illen artetik» bizirik jeiki zan; Dabidek eta beste Igarleak alde aurretik esanik zeukaten guzia, gero Jesukristoz gertatu zan. *Zeruetara igo, eta Aita-Jainko Guziatsuaaren eskuitik eseririk dagoala, esaten da*; guri adierazteko, guziz bere erara atsegin-pozkida oso betez dagoala; ta aingeru ta gizonen egizko Errege ta Juezik goiena danak bezela, Zeru ta lurrean naiduan guzia egiteko eskua ta almena baduala. Jainkoaren *Eskuiak* Jesukristoren

diñatasun eta anditasun ezin goragokoa, eta gizona dan ainbatean ere, kreatura guziak bano bikañagoa dala, aditzera ematen digu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo ill ta Bere anima guziz Santua ¿nora joan zan?

E. Inpernuetara jechi zan.

G. ¿Bekatu mortalean iltzen diranak beren nekepen tormentuak daramazkiten lurpeko su-leizera jechi zala uste al dezu?

E. Ez: baizik Jainkoaren grazian il ziranak zeuden atsedentoki, edo justuen linbora jechi zan.

G. Zer bada, ¿arteraño zerura ez al zan gizonik igo?

E. Ez: mundua egin zan-etzkerotik, ill ziran justuen Animak, Jesukristo etorri zai, ark zerura eramateko, begira zeuden.

G. ¿Jesukristoren gorputza ill-obian bere Jainkotasunagandik berezia edo kendua al zego?

E. Ez: ill-obian ere, Jainko-Semearen gorputza zan.

G. Jesukristok padezitu ta piztu zala, Izkriturak zioten bezela, ¿zergatik esaten da?

E. Igarleak lenagotik esan bezela, gertatu zalako.

G. Jesukristo, ¿nola dago zeruan?

E. Jainko Guzialtsuaren eskuian eseririk.

G. Zer bada, ¿Jainkoak eskuiko edo ezkerreko eskurik bai aldu?

E. Ez: baña, Jesukristoren diñatasun andia guri erakusteagatik, ala esan oi da.

G. Eserita dagoala, ¿zergatik esaten da?

E. Nai duan bezela atsedeten dagoala, adierazitzeagatik.

G. Eta geigo, ¿zergatik?

E. Jueza ta Erregea dala aditzera emateagatik.

V. IRAKURTZA.

AIZKEN-EPAIA

Jesukristo zeruan atsedeten badago ere, ezta orregatik beñere guzaz aztutzen: beti bere gogoan gauzka: beti gure aldera ari da; eta Jainkoak ematen dizkigun grazi, mesede ta ontarte guziak, ark egin zituan irabaziatatik artzen ditugu. Bere Aitari gure aldez orregutzen dion Apaiz Nagusia, ta arekin gure bitartekoa da, eta beñere gelditu gabe, Gurutze gañean egin zion Doneskañia, beti eskaintzen ari da. Zerutik begira dagokigu, eta Artzai-irakasle eta beste Eleizgizonen bitartez, oiei bere graziaren laguntza diela, Bere Eleiza zaindu ta gobernatzen du. *Biziak eta illak epaitzera, andik etorriko da.* Begiaz ekusten degun lurbira guzi au, noizbait bukatu bearra da; eta orduan agiri dan *guzia* suak erreko du. Eguzkiak eta illargiak, beren argia galduko dute; izarrak zerutik eroriko dira; emengo gauz guziak irabiatu, ondatu ta egingetuko dira; Aingeruak tronpetak soñua joko dute, ta illak piztu, ta ill-obietatik irtengo dira. Orduan Jesukristo odeien gañean, Altasun andiz zerutik jechiko da. Onak bere eskuiko aldean, ta gaiztoak ezkerrekoan jarri-eraziko ditu. Bakoitzari berea

emateko, guziaz beren bizitzako kontuak artuko dizte. Onak zerura eramán, ta gaiztoak inpernuko su-leizean ondatuko ditu. Epai au noiz izango dan, inork eztaki; baña izaten danean, mundu guzia ikaraz utziko duala, gauza jakíña da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jesukristo zeruan dagoala, ¿bere Eleizari kontu egiten al dio?

E. Bai: andik ere bere Artzai, Jaupari edo Sazerdoteen bitartez zaindu ta gobernatzen du.

G. Ta Jesukristo bera ¿Sazerdotea ote da?

E. Bai: gugatik bere Aitari beti otoitz egiten ari dan Apaiz edo Sazerdote-Nagusia da.

G. Ta orretarako bere Aitari, ¿zer Doneskañi egiten dio?

E. Gurutze gañean egin zion ura bera.

G. ¿Berriz lurrera biurtuko ote da?

E. Bai: munduak bukatu bear duan azkeneko egunean, biziak eta illak epaitzera etorriko da.

G. Azkeneko egun artan ¿zer gertatuko da?

E. Lurraren gañean agiri dan guzia erre, eta egingetuko da.

G. Eta zeruan, ¿zer gertatuko da?

E. Izarrak erori, ta eguzkia ta illargia illunduko dira.

G. Eta aingeruak, ¿zer egingo dute?

E. Tronpeta soñuz, gizon emakume guziak batuko dituzte.

G. Jesukristo ¿nolatan etorriko da?

E. Odoi baten gañean, Altasun andiz be-tea agertuko da.

G. ¿Nola juzgatuko gaitu?

E. Bakoitzari dagokan bezela: ongi bi-zi bagera, zerura, ta gaizki bizi bagera, in-fernura amilduko gaitu.

G. Epai au, ¿noiz izango da?

E. Ori inork eztaki.

VI. IRAKURTZA.

IZPIRITU SANTUA.

Izpiritu Santua, Karidade edo Maitetasuna da; ta Karidade au, Jainko bera da: Aita Eternoak eta bere Semeak alkar maitatzen dutela, alkarrekiko naitasun onetatik, biak bezela Jainko dan, eta biakin berdin dan Izpiritu Santua darraitzen da. Irurak persona bana badira ere, biak bezela Jainko ta Jaun, edo biak diran Jainko Bera da. Orre-gatik, Aitari ta Semeari egiten zaizten onore ta agurmen guziak, orobat Izpiritu Santuari zor zaizka, ta ala ematen diozkagu, esaten degunean: *Gloria Aitari ta Semeari ta Izpiritu Santuari, lenendik zan bezela, orain eta beti-raunde guzian. Alassen.* Izpiritu au, Igarleen, Ebanjelarien eta gañerako Jainkoagandik ikasi zutenen, ezpañen bitartez itz egin zuan Jainkozko Izpiritua da. Izpiritu Santua deritza, gure izpiritu edo animaren sortitzgañeko bizitza, Santutasuna ta Jainkoaren gogoko ta adiskide egiten gaituan grazia ematen digulako. Izpiritu Santuaren doai au, Jainkoak gure biotzetara isuri duan bere maitetasuna da: eta maitetasun onek pozik eta atsegiñez gure borondatea Jainkoanarekin bat egiteko, ta ark nai duana guk nai izateko, gogo ta

asmoa ar-erazitzen digu: eta asmo onekin gure borondatea utzi, ta Jainkoak nai duana artzen degunean, ordian zerua irabazteko diña diran lan onak egiten ditugu. Guk gurenez, gure gorputzari ta aragi gaiztoari dagozkan gauzetan baizik; atsegin gustorik ezin dezakegu: orregatik, Jainkoak Izpiritu Santuaren doai ta graziz laguntzen eztigula, gauz onik ez dezakegu egin.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Izpiritu Santua ¿zer da?

E. Jainkozko Maitetasuna dan Jainko Bera.

G. ¿Norgandik darraitzen da?

E. Aita ta Semeagandik.

G. Biakin ¿berdin al da?

E. Bai: aek bezela Jainko ta Jauna da.

G. Aita ta Semearekin batean, agurmen ¿nola egiten diogu?

E. *Gloria Aitari ta Semeari ta Izpiritu Santuari etc.*, esanaz.

G. Izpiritu Santua ¿zergatik deitzen diogu?

E. Gure izpirituaren bizitza, grazi ta Santutasuna, edo Jainkoarekiko onak eta Santuak egiten gaituan grazia Bera dalako.

G. Izpiritu Santuaren doai au ¿zer gauza da?

E. Beraren graziz artzen degun Jainkoaren Maitetasuna?

G. Maitetasun onek, ¿zer egiten du gudan?

E. Pozez eta gogotik Jainkoak nai duana eragiten digu.

G. Eta poz-atsegiñ au, etorria edo bestek eman gabe ¿gerenez deguna al da?

E. Inola ere ez: bada Jainkoak eman bearra degu.

G. Gerenez ¿zeron atsegin oi degu?

E. Gure gurari makur ta gorputzak eskatzen diguna.

G. Zerua irabazteko lan onak ¿nola egin ditzakegu?

E. Jainkoaren graziz eta Izpiritu Santuaren doaiz.

VII. IRAKURTZA.

ELEIZARENA.

Eleiza da Fededun guzien Batzarrea edo egizko Jainkoaren legea irakatsi ta ikasten dutenen Billera. Eleiza *bat*, *Santu*, *Katoliko* ta *Apostolikoa* da; ta Billera onek Jesukristo Buru dala, gorputz bat egiten du. Beraz Eleiza zatitua, puskatua, edo erdiratua ezin egon liteke. Orain diogun Eleiz au, arrizkoa ez da; baizik Jainkoaren sinismena dutenez egiten dana. Eleizak sinisten duanaz beste gauzak erakusten dituztenak, erejeak dira. Erromako Aita Santua Eleizaren burua dala ukatu, edo aparteko Eleiz bat asmatu ta egiten dutenak, Zismatikoak dira. Eleiza ona ta Santua da, erakusten duan guzia ona, bere Sakramentuak Santuak, eta Jesukristo bere Buru Nagusia, Santutasun guziaren iturria; eta Eleizan biltzen diran Fededun guziak berari jarraitu ezkero, Santuak izango lirake. Orain Eleizan onak eta gaiztoak alkarrekin nastuak bizi dira; baña Aizken-Epaiko egunean al-kargandik bereziturik, onak alde batera ta gaiztoak bestera ipiñiak izango dira. Eleiza katolikoa edo guzierakoa da, denbora ta toki guzietakoa. Guziakikoa da guzientzat dalako. Lenengo guraso Adan, Noe, Abraan eta Moi-

ses-enerañoako Aitagaien denboran ere, orain dan Eleiz bera zan, ta Eleiz onek munduaren azkeneraño iraungo du. Moises-en ondoren bere anai Aaron-en odoletik zetozenak, bere Apaiz-nagusi izan ziran, eta oek bukatuta Jesuskristo. Gero Jesuskristoren ordeko Pedro Santua gelditu zan; eta oni oraindañoako Erromako Aita Santuak jarraitu diote. Eliza, munduaren leku guzietara zabaltzen da, ta guzietan Fede ber-bera aitortzen du, ta Sakramentu berak ditu. Eleiz Ama Santuaren batasunean baizik, Santurik ez da; ta Eleizatik kanpora bizi diranentzat Zerurik ez dago. Aizkenik, Eleiza Apostolikoa deitzen da, Apostoloak irakatsi zutena bera irakasten dualako; eta oraindaño izan ditugun Apostoloen ondorengo Artzai irakasleak, batez ere, Eleiz guzien Burua dan Erromako Eleiza, Apostoloetatik datorrelako.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

- G. Eleiza ¿zer gauza da?
 E. Da Buru baten azpian bizi diran sinisle edo fededunen Billera.
 G. Sinisle fededunak ¿zein dira?
 E. Erlijio edo egizko legeari darraizkanak.
 G. Ta egizko legea ¿zer da?

E. Jainko Berak irakatsi diguna.

G. Egizko Eleiza ote dan edo ez ?nondik edo nola ezagutuko degu?

E. Orretarako lau siñale edo ezagun-bide badira: eta dira: Eleiza izatea *bat*, *Santua*, *Katolikoa* *ta* *apostolikoa*. Lau siñale oiek dituan Eleiz edo fededunen Batzarrea, egizko Eleiza da.

G. Eleiza *bat* ?nola da?

E. Buru bakar baten azpian batua dagoa-lako.

G. Eleizaren Burua ?zein da?

E. Jesukristo.

B. ?Eta emen agiri dan beste Buru bat ez aldu?

E. Bai: ori da Erromako Aita Santu Pedro Santuaren ondorengo, Jesukristoren Orde-ñezkoa.

G. Erejeak ?nor dira?

E. Egizko Eleizak dionez, beste gauzak sinisten edo irakasten dituztenak.

G. Zismatikoak ?zein dira?

E. Aparteko Eleiz bat egin nai dutenak.

G. Eleiza, *Santua* ?nola da?

E. *Santua* da, irakasten duana, dituan Sakramentuak eta bere Buru Jesukristo santuak diralako.

G. ?Eleiz-gorputz onen bizikideak, guziak Santuak al dira?

E. Ez guziak: Eleiza, onaz eta gaiztoz

nasturik dago, ta munduaren aizkeneko egu-
neraño ere ala egongo da.

G. Eleiza Katolikoak ¿zer esan nai du?

E. Eleiza guzierakoa ta guziarikoa dala.

G. Guzierakoa ¿nola da?

E. Mundua asi ezkeroko denbora guzie-
takoa dalako.

G. ¿Leku guzietara luzatu ta zabaltzen al
da?

E. Bai: munduko toki ta bazter guzietan
Eleiz bat bera da.

G. Apostolikoa izateak ¿zer adierazi nai
du?

E. Apostoloak irakatsi zuten dotriña bera
Eleizak ere gordetzen eta irakasten duala.

G. ¿Zer geigo adierazten du?

E. Oraindañoko Apezpiku ta Eleiz-Artza-
iak Apostoloen ondorengoak dirala.

VIII. IRAKURTZA.

SANTUEN KOMUNIO EDO ALKARTASUNA.

Orain diogun komunioa aldareko Sakramentuaren komunioa bakarrik ez da; ezpada Eleizak animentzat dituan ondasunak Eleizbarrunbean diran fededun guzientzat izatea. Eleizan bizi diran fededunak, batzuek baterako, besteak besterako dira; batzuek irakas-teko, besteak ikasteko; batzuek agintzeko, besteak agintzen zaiena egiteko; baña oiek guziak, alkargana fedez ta karidadez baturik, Eleiz bakar bat baizik ez dira. Gizonak, begiak ekusteko, belarriak entzuteko, mingaña itz egiteko, eskuak ukitzeko ta oiñak ibiltzeko ditu; ta alaz guziz ere, gorputz bat baizik ez da. Gorputzeko zentzu oek alkarri laguntzen dioten bezela, Eleizan bizi diranak ere, alkarri laguntzen diote, eta batek egiten dituan obra onak Jainkoaren grazian badaude, guzienak dira. Eleizatik kanpora arkitzen diranak, eskomulgatuak arkitzen diralako, ez dute besteen lan onetatik fedegabeak edo sinismenik ezdutenak baño prochu edo ongarri geigo ateratzen. Eskomulgatu oek, egin dituzten pekatu andien penitentzia egin nai ez dutenak izaten dira, ta orregatik Eleizak, orretarako eskua duanak bezela, beregandik kendu ta

botatzen ditu. Mundu ontan bizi geran artean, barrengo ta kanpoko gure etsaiakin gerra degu: orregatik guzaz emen egiten dan Eleizari, *Eleiz gudaria* deritza. Baña zerukoak, lenagotik etsaiak garaitu ta bentzutu zituztelako, orain inoren bildurgabe, pake osoan bizi dira: orregatik ango Eleizari, *Eleiz garailea* edo benzularia deritza. Emen bizi geranak, besteen obra onetan nork bere zatia edo puska degun bezela, orobat zerukoak Jainkoari egiten diozkaten eskari ta otoitzotan prochu ta onik asko degu. Purgatoriokoak ere, gure barau, limosna, otoitz, neke ta gañerako egintz onetan, beren partea dute; guk aien alde egiten degunarekin, an daramazkiten neke-penak arindu ta guchitzen zaiztelako.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Santuen Komunioa edo Alkartasuna zer da?

E. Eleiz-barrunbean egiten diran lan onen irabazia, Eleiz berean bizi diran guzientzat izatea.

G. Ta Eleizatik kanpora eskomulgatuak daudenak, Eleizan egiten diran obra onetatik, irabazirik edo ondasunik ateratzen al dute?

E. Bat ere ez: fedegabeak bezela dirata.

G. Batek egiten dituan obra onak guzien onerako izatea ¿nondik jaiotzen da?

E. Guziak gorputz baten bizikari ta pus-
kak izatetik.

G. Eleizak eskomulgatzen dituanak ¿zein dira?

E. Egin dituzten bekatu andien peniten-
tzia egin nai ez dutenak.

G. Santuen Komunio edo Alkartasun ori
¿zeruraño luzatzen al da?

E. Bai: an bizi diran zorionekoak beren
orazio ta eskariaz mesederik asko egiten di-
gute.

G. Eta Alkartasun ori Purgatorioko ani-
men garbi-tokiraño ¿eltzen al da?

E. Baita araño ere: gauden tokitik an da-
ramazkien neke-penak arindu ditzakeguta.

G. ¿Nola?

E. Jainkoari otoitz limosna ta beste lan
onak eskeñiaz.

IX. IRAKURTZA.

BEKATUEN BARKAMENA.

Eliz-barrunbean baizik, bekatuen barkamenik bestetan iñon ez da; eta barkamen au Santuen Komunioari darraikan ondorea da. Jesukristoren puskak geralako, arekin ondo bagaude, aren merezimentu ta irabazietatik nork bere zatia ta partea ateratzen degu. Jainko-Gizona da, ta Jainko dan ainbatean bekatuak barkatzeko eskua ta almena du. Zerura igotzeko aurrean, berekin bere Eskolan, edo Ikastegian azi zituan ikasleai esku au utzi zien, esaten ziela: *Izpiritu Santua ar zazute: bekatuak barkatzen dizkiotzutenai, barkotuko zaitze; barkatzen ez dizkiotzutenai, ez zaitze barkatuko.* Bekatuak barkatzeko almena, berak ordendu zituzten Jaupari edo Sazerdoteetara, Apostoloetatik igaro zan, oietatik urrengoetara, ta orrela guganaño. Bataioa, bekatuak lenena barkatzen dituana da, naiz dala gure lenengo guraso Adanegandik datorkigun jatorrizko bekatua, naiz dirala batek bere borondatez egin dituanak. Bataiatu ezkerro egiten diran bekatuak barkatzeko, beste bide bat degu, eta au da Penitenziko edo Konfesioko Sakramentua; bekatu mortalak barkatzeko bearrekoa da, ta

benialak barkatzeko, egokia. Bekatu mortala edo eriozkoa, Jainkoaren grazia galeraiztzen duana ta betiko eriotza darraikana da. Onelakoak, gizon iltzea, aragizko bekatuak, ordikeria, lapurreta ta besteak dira. Bekatu benialak, Karidadea ez du oso itzaltzen; baña epeldu bai: ala dira, inoren kaltegabeko gezur ariñ bat, bear dan baño geiseago jate bat, ta beste onelakoak. Bekatu chiki oen barkamena iristea errazago da; baña chikiena ere Jainkoarekiko gaitz andia da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Eleizatik kanpoan, ¿bekatuen barkamenik bai ote da?

E. Ez, eztago: bekatuak barkatzeko eskua ta indarra Jesukristok du, ta ez bestek.

G. Jaunak, ¿nori eman zion esku au?

E. Bere Apostoloai.

G. Eta Apostoloetatik, ¿norgana igaro zan?

E. Apezpiku ta Sazerdoteengana.

G. Bekatuak ¿zer Sakramentuz barkatzen dira?

E. Bataioz ta Penitentziz.

G. Jatorrizko bekatua ¿zer gauza da?

E. Sortzen geradenean, geren gurasoetatik datorkiguna.

G. Personala ¿zer bekatu da?

E. Da personari dagokana, ta gerok gerren borondatez egiten deguna.

G. Bekatu mortala edo eriotz-emaillea, ¿zer da?

E. Inpernua merezi duana.

G. Bekatu beniala edo barkagarria ¿zer da?

E. Jainkoaren grazia ta adiskidetasuna oso galerazen ezuana.

G. Batek bere naiaz egiten dituan bekatuen barkamena, ¿nola iristen da?

E. Konpesio edo penitentziaren bidez.

G. Eta ¿jatorrizko bekatuarena?

E. Bataioaren bitartez eta orobat bataiatzen danaren beste bekatuena.

G. Bekatu beniala, ¿izugarria al da?

E. Bai, jauna, Jainkoaren aurrean bekaturik chikiena ere beti da gaitz andi bat.

X. IRAKURTZA.

PIZTUERA TA BETIKO BIZITZA.

Jainkoa ezdegu serbitu bear orain zori-
onekoak izateagatik; ezpada geroko guretzat
gorderik daukan doatasun ta zorionagatik.
Orain munduko ondasun eta atsegin-poz-
kidak geienez gaiztoentzat izan oi dira; eta
beartasunak, neke eta atsekabeak onentzat.
Ezdegu beraz bizi bear, orain ongi izateko
ustean; baizik Jainkoak, iltzen geraneko ze-
ruan guretzat daukan zori onaren ustean; gu
iltzen geranean, gure animak eztirala illko
sinisten degu; ta gure gorputzak ustelduko
badira ere, Jainkoak bere guzialaz osatu, ta
batuko dituala beren lenagoko animakin, eta
gorputz-animak ala baturik beti iraungo dute-
la, iñoiz alkargandik aldegingabe betiko doa-
tsu zeruan edo beko su-leizean betiko doa-
kabe. Gorputz-animak alkarrekin berriro
batze oni deitzen diogu *Aragiaren Piztuera*,
edo bizitz berria. Pizte berri au, mundu-
baren azken-egunean egingo da; ta orduan
guziok Jainkoaren aurrera joango gera, ba-
koitzak bere bizian egin duan aren kontua
ematera, naiz dala ona, naiz gaiztoa: ongi egi-
ñaren saria betiko bizitza izango da; ta gaiz-
ki egiñarena, betiko eriotza ta neke-pena. Gu-

ri Zeruko bizia adierazteagatik Jesukristok dio, ango atsegintasuna oturunz edo jateketa andi baten antzekoa dala. Zeruan bizi diran Santuak, lurrean bizi diran Erregeak baño doatsugoak dirala erakusteagatik, zeruan bizitzeari *Erreinoa* ere deitzen dio. Zeruari ematen zaion *Paradisua*ren izenak, poz-gozamenez betetako berjera edo lore di bat bezelakoa dala, esan nai du. Inpernua berri, lurraren barrunbeko su-leize, argigabeko ichitegi ta leize guziz illun bat da. An gaiztoak, itzaltzen ez dan eta sekulan itzalliko ez dan su batez, kanpotik eta barrendik erretzen dira. An dira betiko negarra, ortz-karraskak ta biotz barruneko arra, garra, damu ta mindura; neke-pen aietatik gordezko, izan zituzten eraz eta eskubidez baliatu etziralak; ta beren paltaz galdu, ta atsekabezko leku artara erori ziralako. Beñere atsedeten utzigabe, utsikitzen ari zaie ta ariko ere zaie arra, prochu gabeko errukia, denbora joanez-gerozko damua, garbaia ta negarra.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Gure Jainkoagandik ichedoten degun utsikgabeko zori on ta doatasun oso betea, goraingo bizitzarako ote da?

E. Ez: Onelako zoriona ezta iristen illezke-ro baizik.

G. Gu iltzen geranean, ¿gorputzak in ba-tean iltzen ote dira gure animak?

E. Ez: Anima illezkorra edo ezin il dite-keana da.

G. Gure gorputzak, ¿betiko iltzen al dira?

E. Ez aizken epaiko egunean berriro piz-tuko dira.

G. Pizte au ¿nola egingo da?

E. Il ziran guziak, lenago emen izan zi-tuzten gorputz aek berak berriro artzera bi-urtuko dira, ta egin zituzten lan on edo gaiz-toen kontuak ematera Jainkoaren epaira joango dira.

G. Kontuak eman eta ¿zertan geldituko dira?

E. Onak zeruko bizitz betikoetara joango dira, ta gaiztoak betiko inpernura.

G. Zeruan beti bizitzea, ¿zer gauza da?

E. An poz-atsegin-gozamenez beterik beti irautea.

G. Zeruetako Erreinoak, ¿zer esan nai du?

E. Esan degun berau.

G. Zeruko en zorion, doatasun ta gloria ¿zertan dago?

E. Arpegiz-arpegi Jainkoa ekustean.

G. Betiko eriotza, ¿zer gauza da?

E. Jainkoa beñere ekusigabe, inpernuan

beti surtan erretzen ta erretzen egon-bearra.

G. Gaiztoak inpernuan daramazkiten ne-
keak, zer gauza dira?

E. Sua, illuntasuna ta kontzientziko arrak
egiten dizten utsikiak dira.



XI. IRAKURTZA.

AITA GUREKO ORAZIOA.

Aita gurea asitzen dan orazioa orain esatera noana da; *Aita gurea*. etc. (lenago 81-orrian dago). Eztegu esaten *Aita nerea*; ezpada *Aita gurea*, aditzera emateagatik, ez diogula Jainkoari eskatzen guretzat bakarrik, ezpada Eleiz guziarentzat eta fededun guzientzat. *Aita gurea* deitzen diogu, geren bizia, geran guzia ta degun guzia beragandik degulako; eta onez gañera, beraren graziak bere Seme bakar Jesukristoren anaiak egiten gaitualako. Jainkoa leku guzietan eta non nai dago, orre-gatik ere *Zeruelan zaudena* esaten diogu, bere

arpegia an agertzen digulako, ta aren gloria ta esku andi-luze guzitarakoa agertzen digutenak zeruak diralako. *Erabil bedi santuki zure izena*. Kreatura guziak Jainkoaren izena ondratu bezate. Bekatuak Jainkoaren desondragarriak dira, batez ere kristauak egiten dituztenak; fedegabeak, kristauen bekatuak ekusi, ta gu bizi geran legea, ona ezta la uste izaten dutelako, ta orregatik lege santu onetara etorri nai izaten ez dutelako. *Betor gugana zure Erreinoa*: betor zure grazia, gugan bekatua ez dedilla nagusi izan; eta gero ill-ekeroz uste degun zeruko gloria ta sekulako bizitza betoz. Geren borondatea utzi, ta aingeruak eta doatsuak zeruan darraizkan eran, arenari garraizkanean, zeruan bezela lurrean ere Jainkoaren borondatea egingo da; ta Jainkoanarekin bat egiten ez danean, gure borondatea gaiztoa izango da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

- G. *Aita gurea*, esazu:
- E. *Aita gurea*, etc.
- G. *Aita nerea* zergatik esaten ez dezu?
- E. Nik neretzat bakarrik Jainkoari eskatzen eztiodalako.
- G. Jainkoa gure Aita gnola da?

E. Naizen ta dedan guzia, argandik artua dedalako.

G. Ta bestera ¿bere semea al zera?

E. Aren graziz bai, ta beragatik Jesukristoren anaia naiz.

G. Zeruetan zaudena ¿zergatik esaten dezu?

E. Aren gloria zeruetan obeto agertzen zaigulako.

G. Jainkoaren izena ¿nola santu egin edo santipikatzen da?

E. Kreaturak ematen dioten onore edo ondraz.

G. *Jainkoaren borondatea lurrean* ¿nola egiten da?

E. Aren graziak gugan erreinatu ta agintzen dualarik.

G. Ta gure borondatea Jainkoarenarekin bat egiñik ezpadago ¿ona al da?

E. Inola ere ez: orrela ezpadago, gaiztoa da.

G. Jainkoaren naia edo borondatea zeruan egiten dutenak ¿nor dira?

E. Aingeruak eta zeruan bizi diran zori-
onekoak.

XII. IRAKURTZA.

AITA GUREAREN JARRAIOA.

Egunoroko ogiak, egunean eguneko jan-edana ta bizitzeko bear dan guzia esan nai du. Gizon guziak, ala aberats, nola beartsuak, jan-edana ta duten guzia, Jainkogandik dute-la jakiñik eta ezaguturik egon bear dute; ta gure ogia eskatzera egunoro biurtu bear gera, gure premi-bearra, egun guzietan asi ta berritzen dalako. Onez gañera *ogiaren* ize-naz, gure animen jan-edan, bazka edo alimentua aditzen da; eta animaren alimentua, Jainkoaren itza, beraren grazi, ta Aldareko Sakramentu guziz Santua da. Jainkoari bekatu guzien barkamena eskatzen diogu; guziok bekatariak geralako; eta guchienaz gure kaltean diran bekatu benial eta uts-ariñak, egunoro egiten ditugulako. *Aita gurea* esaten degunean, guk besteai barkatzen ezpadiogu, Jainkoak guri ez barkatzea, ontzat ematen degu. Bekaturik ez egiteko, bekatura garamazkiten tenta-aldiak gugandik kendu ditzala, Jainkoari eskatzen diogu. Eta aizkenik, *gaitz guzitik* eta bereziki *gaiztoa* deritzan demonioaren eraso-aldietatik *libra gaitzala*, eskatzen diogu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

- G. *Gure egunoroko ogiak* ¿zer esan nai du?
- E. Bizitzeko bear ditugun gauz guziak.
- G. Eta egunorokoa ¿zergatik deitzen diogu?
- E. Egun guzietan aren bearrra degulako.
- G. Eta, ¿zer geigo esan nai du?
- E. Gure izpirituaren jan-edan, bazka edo alimentua.
- G. ¿Au zer da?
- E. Jainkoaren itz, grazi, ta Jesukristo gure Jaunaren gorputza.
- G. ¿Gizon guziak bekatu egiten al dute?
- E. Bai: guziok bekatariak gera.
- G. ¿Ta besteai barkatu bear al diegu?
- E. Jainkoak guri barkatzea nai badegu, bai.
- G. Bekatu ¿zerk eragiten digu?
- E. Tentazioak.
- G. ¿Nola garaitu ditzakegu?
- E. Jainkoaren graziz.
- G. *Aila gurearen aizkencan* esaten degun gaiztoa ¿zein da?
- E. Demonioa.

XIII. IRAKURTZA.

GAÑERAKO OTOITZ EDO ORAZIOAK.

Aita gureaz osteronzean, Jainko berak agertu dizkigun egiak sinistuez ondratzeko, Kristauak geienean esan oi duten orazioa, Kredoa da: gure bekatuen barkamena eskatzeko, *Ni bekataria* asitzen dan aitormen edo konpesioa darraika: eta aizkenik *Agur Maria*, Ama Birjiñari zor zaion onore ta ondra emateko ta Jainkoari gugatik erregutu dezala eskatzeko. Kristau guziak, orazio oiek jakin, ta egunoro goizean ta arratzean bederik esan bear dituzte. Onez gañera, al dutenean, Eleizan esan eta kantatzen diran Jainkoaren gauzak entzutera, joan bear dute. Gauz oietatik geienak, zazpi orduak derizten Dabid-en Salmo edo kantak dira; *Bezperak*, *Konpletak*, *Matutiak*, *Prima*, *Terzia*, *Sesta* eta *Nona* edo lenengo ordua, irugarrena, seigarrena ta bederatzigarrena. Sazerdoteak Meza ematean, esaten dituan orazioak entzutera, eta beste Sakramentuak eman, ura bedeinkatu ta gañerako Eleizako bedeinkazioak egiten dituztenean, al duten ongiena laguntzen kristauak leiatu bear dira. Baña batek gogoa beste ganzetan daukala, belarri utsaz orazioak entzun, ta ao utsaz itz

onak esatea, baldin biotzak eta izpirituak laguntzen ezpadiote, Jainkoari erregutzea ez da. Orazio ta kristauak sinistu bear dituan egi guzien bilgun laburra, batek bere arpegian egiten duan Gurutzearen siñalea da. Gurutzearen siñalea geren gañean egitean, Jainkoa aotan artzen degu, esaten degula: *Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Santubaren izenean*. Onela, Trinitade edo Irubatasun guziz Santua, Jainko bakar bat ta iru persona banadala, sinisten eta aitortzen degu. Eskuaz gurutzea egitean, Jesukristok egin zuan gure Erospena, ta onezaz batean Jainko-Semearen Gizontzea edo Enkarnazioa, adierazten degu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Kristauak geienean esan oi dituzten orazioak izein dira?

E. *Aita gurca, Abe Maria, Kredoa ta Konpesio edo Ni bekataria.*

G. *Abe Maria ta Konpesioa*, esan itzatzu:

E. 1. *Agur Maria, graziz belea, Jauna zurekin.*

2. *Bedeinkatua zu andre guzien arlean, eta bedeinkatua zure sabeleko frutu Jesus.*

3. *Maria Santua, Jainkoaren Ama, erregu zazu gu pekatariokgatik orain eta gure eriozko orduan. Ala izan dedilla.*

Ni bekataria konpesatzen naitzaio Aita Jain-

ko Guziallsuari, Maria Santa beti Birjiñari, Migel Goiaingeru santuari, Juan Baulista santuari, Pedro ta Paulo apostolo santuai, ta zuri, nere Aita, egin dedala asko ta asko bekatu, pentsamentuz, itzez eta egitez, nere kulpaz, nere kulpaz, nere kulpaz chit andiz. Argatik erregutzen diot Maria santa beti Birjiñari, Migel Goiaingeru santuari, Juan Baulista santuari, Pedro ta Paulo apostolo santuai, Santu guziai, eta zuri, nere Aita, erregulu dizaiozula nigatik Jainko gure Jaunari. Alassen.

G. Kredoa esatea, ¿orazio egitea al da?

E. Baita aren izena santu egitea ere.

G. Aitormen edo *Konpesioa* ¿zer da?

E. Gure bekatuena ezagumen umil bat.

G. Eta ¿zertako da?

E. Bekatuena barkamena iristeko.

G. *Agur Maria* ¿zertako da?

E. Birjiña guziz Santua ondratu, ta Jainkoarekiko gure bitarteko izan dedin eskatzeko.

G. Lau orazio oek, bakoitzak ¿noiz esan bear ditu.

E. Egunoro goiz-arratzaldetan.

G. Eleizan Eleiz-gizonak esaten dituzten orazioak ¿zer dira?

E. Batez ere, Dabid-en kanta edo Salmoak.

G. Salmo oiek ¿noiz edo zenbat ordutan esaten dira?

E. Zazpi ordutan, eta onela bereizturik, *Bezperak, Konpletak, Matutiak, Prima, Terzia, Sesta ta Nona*, derizte.

G. ¿Orazioa bear bezela egin, eta Jainkoari erregutzeko, aoz itz utsak esatea, asko al da?

E. Ez: orazioak biotzez eta gogoz esan bear dira.

G. Orazio eta kristan-ikasbide guziaren bilgun laburra ¿zer da?

E. Gurutze santuaren siñalea.

G. Gurutze santuaren siñalea egin, eta esaten ditugun itzak ¿zer esan nai dute?

E. Irubatasun edo Trinitade guziz Santuaz sinisten degula, ta deiez dagozkiola.

G. Bekokitik bularrera, ta ezkerreko besa-burutik eskuikora eskua eramateak ¿zer esan nai du?

E. Jainkoaren Semearen Gizontzea, ta Gurutzearen bitartez egin zuan Erospena.



XIV. IRAKURTZA.

AMAR AGINDUAK.

Jainkoak Israeltarrai eremutik igarotzean eman zizten Mandamentu edo Aginduak, esatera noan oek dira:

1. *Nere aurrean inola ere, etc.* (lenago 24-garren orrian dagoan bezela.)

Euskal-Errietan, esatera noan eran, irakatsi oi dira.

Jainkoaren legeko Aginduak, amar dira:
«*Lenengoa*, gauza guzien gañean, Jainkoa
«*amatzea*. *Bigarrena*, juramentu alperrik ez
«*egitea*. *Irugarrena*, jai-egunak santifikatzea.
«*Laugarrena*, aita ta ama ondratzea. *Bostga-*

«*rrena*, inor ez iltzea. *Seigarrena*, aragizko
«*bekaturik* ez egitea. *Zazpigarrena*, ez ostu-
«*tzea*. *Zortzigarrena*, testimonio paltzorik ez
«*jasotzea*, ta gezurrik ez esatea. *Bederalziga-*
«*rrena*, lagun urkoaren emazterik ez dese-
«*tzea*. *Amargarrena*, besteren ondasunik ez
«*deseatzea*.

«Amar Agindu oiek bitan sartzen dira:
«Gauza guzien gañean Jainkoa maitatu; ta
«lagun urkoa gere burubak bezela.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jainkoaren legero amar Agindua
esan itzatzu:

E. Lenengoa da *Jainkoa gauza guzien ga-
ñean amatzea etc.* (166 orrian dagoan bezela.)

XV. IRAKURTZA.

LENBIZIKO IRU AGINDUAK.

Lenengo Aginduan agintzen zaigu, Jainkoa, gure Kreatzalle, Egille ta Jaun Soberanoari bezela, zor zaizkan agurmen eta buru-beratzeak egiten diozkagula, ondratu dezagula; ta egiteko oni, Jainkoa *adoratzea* deritza. Fedez Berak Eleizari irakatsi diona sendoki sinisturik; Esperantzaz Berak agindurik dauzkan ongiak uste osoz ichodoten ditugula, eta aizkenik maitetasun edo Kariadenez maitatuaz, eta aren Aginduak gordiaz, Jainkoa ondratzen eta adoratzen degu. Jainkoak agintzen diguna egiñaz obeditzera; bear deguna eskatuaz, otoitz egitera, ta Beragatik baizik beste inor ez maitatzera beartuak gaude: eta ori ere Eleizak irakasten duan eran, eta ez bestela. Bigarren Aginduan Jainkoak agintzen digu, egiaz bear danean, eta gauz onen gañean baizik ez dezagula juramenturik egin. Agindu berean *blasfemia* debekatzen zaigu: au inpernuko izkuntza ta Jainkoari ta Santuai bidegabeko itz gaiztoak esatea da. Irugarren Aginduan agintzen zaigu, Jainkoak mundua egiñ, eta atsedean zuan egunaz oroitzen gerala, ta Jesukristo illen artetik piztu zan eguna gogoan daukagula,

Igandea gorde dezagula: gañerako jaiak ere, emen bertan sartzen dira. Jainkoari atsegiteko, jai osoetan nekazarien esku-lanik egin gabe, Meza osoa ta Kristau-dotriña entzunaz, eta bekaturako bide guzietatik iges eginaz, guziak gorde bear ditugu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Jainkoa adoratzea zer da?

E. Gure Jaun goienari bezela, onore ta agurmen egitea.

G. Jainkoa nola edo zer bidez ondratzen degu?

E. Fede, Esperantz eta Karidadearen bitartez; edo Jainkozko sinistez, kristau icharopenez eta zeruko maitetasunez.

G. Jainkoa oneztu, ongi nai ta maite degula nola adierazten degu?

E. Bere Aginduetan esaten diguna eginaz.

G. Kreaturai edo Jainkoak eginak diran gauzai ondra ematea zerilegi al da?

E. Bai, Jainkoari begiratu, ta Aren ize-nean ondratzen baditugu.

G. Juramentu egitea zerilegi al da?

E. Bai, juez edo agintariren batek agintzen duanean, egiz eta onez eta egin-bide andiren bati indarra eman bear zaionean.

G. Gure artean Larunbata edo atsedene-
guna zer da?

E. Antziñako legean Larunbata zan beze-
la, orain Jesukristoren Lege berrian Igandea
da, ta gorde bear diran gañerako jai-egunak
onetara datoz.

G. Egun oietan zeretan ari bear degu?

E. Orazio egiten.

G. Eta zeretan geigo?

E. Dotriña ikasten.

G. Jai-egunetan egin bear ez diran gau-
zak zer dira?

E. Bekatua ta nekazariari dagozkan esku-
lanak dira.

XVI. IRAKURTZA.

LAUGARREN, BOSTGARREN, ETA SEIGARREN AGINDUAK.

Laugarren Aginduak umeai agintzen die-
na da, beren gurasoak irakasten diotena umil-
ki entzun, agintzen dutena egin, aien atele-
kak eta kastiguak umilki eraman, eta gauz
guzietan lagunduaz berak ondratzea, Gura-
soen kontra egiten diran utsak kontuzkoak,
eta beste lagun urkoen kontra egiten diranak
baño andigoak dira. Onez gañera, Apezpiku
edo Obispoak, Eleizako agintari, Jaupari edo
Sazerdoteak, Eleiz-artzai ta Eleiz-gizonak
irakasten diguten Maisu nagusiak, eta gure-
kiko eskuren bat duten guziak, ondra ditza-
gula agintzen digu. Erregea ere ondra de-
zagula, ta aren ordeaz agintzen duten kar-
gudunai, bakoitza bere tokian, guziak Jain-
koak ipiñiak dirala ezaguturik, begimen
ona ekarri dizaiegula agintzen digu. Bost-
garren aginduak, inor iltzea, besteri bide-
gabezko itz gaiztoak esatea, gaitzen bat egi-
ten digunari, ordaña biurtzea; nor nai gai-
tzestea ta begitan idukitzea, gaizki naizko ase-
rre geiegia, eta onelakoak debekatzen di-
tu. Seigarrenak, esku-ukitze zikin ichusiak,

bear ez diran aragizko atsegin eta egipen galgarriak, debekatzen ditu. Biotza, asmo, gogo edo Jaunaren begietan ongi ez diruditen pentsamentuetatik gorde bear da. Lagun gaiztoetatik, alperkeriatik, jan-edan geiegitik, jantzi ederregietatik, eta mundutarren andikeri, arrokeri ta erokerietatik, iges egin bear degu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Ait-amak ¿nola ondratu bear ditugu?

E. Irakasten digutena ongi artu, ta aien aginduak egiñaz.

G. Gurasoi damu-naigabe ta atsekabe egitea ¿gauza gaiztoa al da?

E. Bai, oso gaiztoa da.

G. Gure izpiritu edo animen Ait-espiritualak ¿nor dira?

E. Apezpiku, Sazerdote ta zerurako bidea irakasten diguten guziak.

G. Agindu onek ¿zertara geigo beartzen gaitu?

E. Erregeari ta aren ordekoai obeditzera.

G. Iñor iltzea debekatzen duan Aginduak, iñor jotzea, golpatzea, zauritzea, eta naiz animan, naiz gorputzean edozer gaitz egitea, ¿eragosten al du?

E. Ori ez eze, baita iñori bidegabeko itzak esatea ere.

G. Gaitz egin digunari gaitza biurtzea, ta arganako bekaitz edo gorrotoa biotzean gordetzea ¿zilegi ote da?

E. Inola ere ez: inori ez dio gaitzik opa bear; ezta inorganako gorrotorik iduki ere.

G. Seigarren Aginduak, aragizko bekatuaren izenez debekatzen diguna ¿zer da?

E. Aragiari atsegin ematen dioten egipen lizun desonesto guziak.

G. Aragiari dagozkan ichura gaiztoko gauzak ikustea, ta aiei begira egotea ¿bekatu al da?

E. Bai: ekusteak, begiratzeak, itzketak gogoetak, pentsatzeak, guziak debekatuak dira.

G. Engañoiz eta azpitik bezela ostutzea, ¿debekatu al da?

E. Nola nai dala, ostutzea beti da bekatu.

G. Besteri kendua beretzat gordetzea ¿zilegi al da?

E. Ez: al dan lasterreña jabeari biurtu bear zaio.

G. Gezurrezko testiguantz paltsoa, Justiziari dagozkan egitekoetan ezezik, ¿beste edozer gauzatan ere debekatu al dago?

E. Testiguantz paltsoa beti da bekatu, eta gaizkeri bat egin duana salatzea ere, debekatu dago, orretarako motibo justurik ezpada.

G. Inork egin duan bekatuaz itzegitea ¿zilegi al da?

E. Baldin orretarako premi andirik ezpago, ez da zilegi; baizik bekatu.

G. Gezurra esatea ¿zilegi al da?

E. Inola ere ez: beti egia esan bear da; baña egia estali diteke, orretarako motiboren bat izan ezkeru.

G. Bederatzigarren Aginduak debekatzen duana ¿zer da?

E. Atsegin zikin desonestoen gutizi ta nai-keria.

G. Eta amargarrenak ¿zer debekatzen du?

E. Besteren ondasunaren nai ta gutizia.

G. Gutizi oek ¿zergatik debekatzen dira?

E. Bekatu geienen jatorriak diralako.

XVII. IRAKURTZA.

ELEIZ-AMA SANTUAREN LENENGO IRU

AGINDUAK.

Eleiza gure Ama da, ta orregatik ark
esan eta agintzen diguna egin bear degu.
Eleizak agintzen dizkigunak, bost gauza di-
ra: Lenengoa, *Igandeetan eta gorde bear di-
ran beste jai egunetan, Meza osoa entzutea.*
Bigarrena, urtean bein bederik konpesatzea,
edo lenago, iltzeko perillik uste badu, edo ko-
mulgatu bear balitz. Irugarrena, Pazko lo-
ratuan edo garizumakoan, komulgatzea. Lau-
garrena, *Eleiz Ama Santuak agintzen digu-*
nean barautzea. Bostgarrena, *amarrenak eta*
primiziak pagatzea. Eleizaren lenbiziko Agin-
duak, *Igandeetan eta gañerako jai-egunetan*
Meza nagusira, bezperetara, sermoiak entzu-
tera, eta beste Eleizkizunetara ezin joan da-
nak, Meza oso bat beintzat gogoz, debozioz ta
zertan ari dan gogoratuaz, entzun dezala
agintzen du. Bigarren Agindua, urtean bein
bederik, edo lenago, iltzeko zorian eta peri-
llean arkitu, edo komulgatu bear badu, bere
Konpesoreari dituan bekatu guziak aitortzea.
Konpesatzeko premi gabe ain luzaro irau-
tea, erraz ez da; eta bekatu andiak egin ezke-
ro, alik lasterren Jainkoaren grazian jartzera

saiatzen ez diranak, kristauaren izenik ez dute merezi. Irugarrenak, bakoitzak bere erriko Eleizan, Pazko-garizumakoan komulgatzea, ta Jesukristoren gorputza urtean bein guchienaz artzea agintzen du. Aldareko Sakramentua sarriago artzea, Eleizak inñori ez dio eragotzen; ezpada, antziñako kristauak egin oizuten bezela, entzuten dituzten Meza guzietan komulgatzea naiko luke. Ezagumentuan sartu ez diran aur gazteak, eta gauz ona ta gaiztoa zer dan ez dakitenak, aizkeneko bi Agindu oek esaten dutena egitera, beartuak ez daude.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Eleizaren Aginduak ¿zergatik gorde bear ditugu?

E. Eleiza gure Ama dalako.

G. Bere Aginduak esan itzatzu:

E. I. *Igandeetan, etc.*

G. Igande ta beste jaietan, guchienaz ¿zer tara gaude beartuak?

E. Meza osoa entzutera.

G. Eta Mezatan egotea ¿asko al da?

E. Ez: zertan dagoan begiratu bear da.

G. Geren bekatuak noizbait konpesatzera ¿beartuak al gaude?

E. Bai: urtean bein bederik.

G. Eta ¿zergatik?

E. Bekatuen lo-sorroan denbora luzean ondatuak ez egoteagatik.

G. Sarritan komulgatzea zona al da?

E. Bai: ta Eleizak ala nai luke.

G. Eginkizun au betetzeko zinoiz eta zenbat aldiz komulgatu bear da?

E. Urtean bein guchienaz.

G. Eta zer egunetan?

E. Pazko loratu edo Jesukristo piztu zan garizumako Pazkoa deritzanaren egunetan.

G. Ume chiki gazteak, jaio ziranetik zzenbatgarren urtean komulgatu bearrak dira?

E. Gauz ona ta bekatua zer diran ezagutzera eltzen diran urtean.

XVIII. IRAKURTZA.

ELEIZAREN BESTE BI AGINDUAC.

Eleizaren langarren Aginduak, berak agindu ta esaten dituan egun guzietan barautu gaitezela dio: eta barau egun oiek, Pazko aurreko garizumaren berrogei egunak orrela barautuaz, eta lan onak egiñaz, Jauna illen artetik piztu zan egunaren jai andirako prestatu ta zuzendu gaitezen dira. Onez gañera, Eleizak, urteko lau denbora ta bijilietan barautzea agintzen du. Urtearen lau denborak, uda-berria, udara, udazkena ta negua dira. Denbora bakoitzean, aste baten iru egunetan; Asteaizken, Ostiral eta Larunbatean barautu bear da. Bijiliak, Eleizak berezi ta autu dituan jai-aurre batzuek barautzeko dira. Barautzea, aragi ta janari debekaturik ez jatean, eta egunean otordu edo bazkari bat baizik ez egitean dago, ta ori egüerdi ondoan da. Barau-egunetan arratzean egin oi dan apari-ariñ edo kolazioa zilegi da; baña Jainkoaren beldur diran kristau onak egin oi duten bezelakoa egin bear da. Agindu onek, ostiral-larunbatean eta garizumako Igandeetan aragia jatea debekatzen du; Ostiralean, Jesukristoren Pasio ta eriotzagatik; eta Larunbatean, Beraren

Ill-obi edo Sepulturagatik. Beste barau-egunak ere badira; baña erri guzietan era batekoak ez; bakoitzak bere errian irakasten diran baraubak egitea, asko du. Bostgarren Aginduak, *Eleizari amarrenak eta primiziak pagatzea* agintzen du. Bearra egiten duan langilleari, bere saria zor zaio. Meza esan, Sermoia egin, Sakramentuak eman, eta gañerako Eleizkizunetan ari diran Apaiz eta Eleizgizonak, gure onagatik eta guri zeruko bidea irakasteagatik nekatzen dira: beraz, bizitzeko bear dutena zor zaiote. Jainkoak, antziñako legean, orduko Eleiz-gizonai amarrenak ematea, Bere itzez agerian agindu zuan. Jesukristoren oraingo lege berrian, Jainkoak zenbat eman bear dan ez du esaten; baña Eleizak, lenengo frutu ta amarretatik bat Apaiz-entzat bear dirala agintzen du. Amarrenak eta primiziak egiteko usadioa, erri guzietan bat ez da: eginkizun ontan, bakoitzak bere errian ekusten duan oiturari jarraituko dio. Kristauak, amarrenak eta primiziak onenetatik egitera beartuak ez daude; baña nor beretzat onena artu, ta Jainkoari ta Eleizari ez aĩñ ona ematea, siñale charra da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Baraua agintzen digun Aginduak zertara beartzen gaitu?

E. Aragi ta beste janari debekaturik ez jatera, ta egunean otordu bat baizik ez egitera.

G. Ta barau-egunetan otorduz kanpora zezer jan al diteke?

E. Gauza guchi ta apari ariña dala bai.

G. Apari ariñ edo kolaziotan, ¿zenbateraño jan diteke?

E. Kristau on eta Jainkoaren beldurriak jan oi duten ainbateraño.

G. Garizumako egun guzietan ¿zertako barautu bear gera?

E. Pazko-jai andirako presta gaitezen.

G. Urteko lau denborak ¿zer dira?

E. Urtearen denbora bakoitzean atera bear diran asteko iru barau egunak dira.

G. Ostiral-Larunbatetan Eleizak aragia jatea ¿zergatik debekatzen du?

E. Jesukristo gure Jaunaren Pasio ta illobi edo sepultura guri gogorazitzeagatik. Orain debeku ontan Larunbata ez da sartzen.

G. ¿Zenbat amarren, eta zertatik egin bear da?

E. Obispadu ta errikoak egiten dutenetik, eta aiek bezela.

G. ¿Amarrenari onena eman bear al zaio?

E. Ez beintzat charrena; guziak, Jainkoak emanak dira, ta beretzat onena artu, ta Jainkoari ta Eleizari ez aiiñ ona ematea, siñale charra da.

XIX. IRAKURTZA.

SAKRAMENTUENA.

Jainkoak bere Aginduetan agintzen diguna, guk geren indar utsez, ezin deza-kegu: orretarako, laguntz au Sakramentu-en bidez berak bere graziz lagundu bear digu. Sakramentua, ezin ekusi ditekean gra-ziaren siñale agiri dana, eta berak gure animetara dakarren grazia ezagüerazten di-guna da. Ala, Bataioko Sakramentuan, ba-taiatzen danaren gorputza urak kampotik bustitzen eta garbitzen duan denbora berean, Jainkoaren graziak anima barrendik garbitu, ta bekatuaren errua kentzen dio. Sakramen-tu bat artzen duan edozeñek, Jainkoak iraka-tsi dituan egien sinismenik edo federik bal-din badu, eta artzeko bear dan bezela presta-tzen bada, ziur egon bear du, mundu ontan dezakegun ainfatean, ondasunik andiena dan grazia baduala. Jesukristo gure Jaunak bere Odol, Pasio ta Eriotzaren merezimentu ta irabaziaz guganatzeko, eta guk animen bi-zitzarako bear degun guzirako, Sakramen-tuak utzi zizkigun. *Bataioaren* bitartez Eleiz barrenean sartzen gera, ta uraren eta Izpiritu Santuaren bitartez, berriz jaio, ta Kristau ta Jainkoaren eta Eleizaren ume egiten gera.

Konpirmazioak, Jainkoak irakatsi dituan egia-
ak len baño bizi-rogo eta gogo geigoz si-
nisteko indarra ematen digu. *Eukaristiak*,
Komnioak, edo Jesukristoren Gorputz San-
tuaren Aldareko Sakramentuak, bazkatu ta
mantentzen gaitu, eta gure animai bear
duten mantenua bizitzeko ematen die. *Peni-
tentziak*, gure animen gaitzak eta eritasunak
sendatzen ditu. *Azken-oleazioak*, orduan ani-
marako ta gorputzerako bear ditugun lagun-
tzak eta indarrak ematen dizkigu. *Ordenak*,
Eleiz-gauzak egiteko, eta guri zeruko bidea
irakasteko bear ditugun Apaiz eta irakasleak
ematen dizkigu. *Ezkontza* edo *Matrimonioa*
umez orain mundua, ta gero zerua onez eta
santuz betetzeko, Jesus-ek utzitako Sakra-
mentua da. Zazpi Sakramentuak oek dira.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Sakramentuak ¿zer gauza dira?

E. Jainkozko graziaren siñale sentigarri
agiri diran batzuek.

Eta, ¿graziaren bear al gera?

E. Bai: ori gabe ez dezakegu gauz onik
egin.

G. Beraz, Sakramentuak bear bezela ar-
tzea, ¿ondasun andiren bat da?

E. Oraingo bizitzan dan andiena.

G. Sakramentuak, ¿nork utzi zituan?

E. Gure Jaun Jesukristok.

G. ¿Zertako?

E. Bere Odol garbi, baliotsuaren irabaziak eta merezimentuak guganatzeko.

G. Sakramentuak ¿zembat dira?

E. Zazpi.

E. Lenengoa *Bataioa*. Bigarrena *Konfirmazioa*. Irugarrena *Penitentzia*. Laugarrena *Komunioa*. Bostgarrena *Aizken-oleazioa*. Seigarrena *Ordena*. Zazpigarrena *Eskontza* edo *Matrimonioa*.



XX. IRAKURTZA.

BATAIOA.

Jainkoaren Erreinoan ezin inor sartu diteke, lenago urez eta Izpiritu Santuz berriro jaio eztala. Gizon guziak, Adanen sagar-jate gaiztotik zetorkien jatorrizko bekatuaren bidez ill ziran, eta bataiatzen diran guziak Jesukristogan pizten dira. Beraz, Bataioco Sakramentua guzientzat bearra da; baita aur jaio-berrientzat ere. Bataiatzen dan gizon edo emakumea, larria bada, eta berak egindako bekatuak dituana, oriek ere jatorrizko bekatuakin batean, bere bataioan barkatzen zaizka; baita oriei zegoten inper-

nura bearra ere. Onetarako, bataiatzen danak Jesukristoren Lege santua ongi jakin eta sinistu bear du. Lege onek diona egiteko itza eman, Satanas eta aren lanak, eta aren arrokeri eta arinkeri guziak utzi, eta aurreron-tzean Jainkoaren Aginduak gordetzen dituala, obeto biziko dala eskañi bear du. Bataiatzen dana aurra bada, aren ordezt Aita ta Ama Pontekoak erantzun eta itza ematen dute. Bataioa egiten da, bataiatzen dana gain-berra urezt bustiaz, eta aldi berean bataiatzalleak itz abek esanaz: *Nik bataiatzen zaitut Aitarene eta Semearene eta Ispiritu Santuarene izenean.* Al bada, Bataioa Elizan egin bear da, ta Apai-zak egin bear du; baña estutasunean edo premian edozeñek, naiz gizonak naiz emakumeak egin dezakean gauza, ta dakinak egin bear duana da, Bataiogabez anima galdu ez dedin. Bataioa, baten gañean bi bider ezin egin ditek-e, eta bein baño geiagotan inor ezin bataia-tu liteke.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Bataioa izertako bear da?

E. Zeruetao erreinoan sartzeko.

G. Bataioa inola egiten da?

E. Bataiatzen danari, burutik beera ura egozten zaiola, eta orduan itz batzuek esaten dirala.

G. ¿Zer itz dira oriek?

E. *Nik bataiatzen zaitut, etc.*

G. Sakramentu onek ¿zer egiten du?

E. Bekatu guziak kentzen ditu.

G. Aur jaio-berriak ¿zer bekatu izan al dezake?

E. Jatorrizko bekatua.

G. Bekatu ori ¿nondik dator?

E. Adanek egin zuan bekatutik.

G. Bataiatzen danak, ezagüeran sartu ezker, ¿zer egin bear du?

E. Kristau-dotriñak irakasten dituan eginisbearrak, sinistu ta aitortu bear ditu.

G. Bataiatzen danak utzi bear dituan gauzak ¿zein dira?

E. Demonioa, aren lan, arrokeri ta arinkeriak.

G. ¿Zer agindu bear du?


E. Jainkoaren Aginduak gordetzea.

G. Esan deguna, aur jaio-berriak ¿nola egin dezateke?

E. Aien ordez beren ait-ama Pontekoak guzia egiñaz.

G. Bi bider inor ¿bataiatu al diteke?

E. Ez: beñ baño geigotan ezin bataiatu diteke.



XXI. IRAKURTZA.

KONFIRMAZIOA.

Bataioaren urrengo Sakramentua, *Konfirmazioa* da. Sakramentu au guziak artzea, on litzake; baña bearrezkoa edo nai-ta-nai-ez ar-tu bear dana ez da; ta orregatik bataiatu ta bereala, aurrai etzaie ematen; ezpada orretar-ako jakin bear dana ikasten ñutenean. Gu-rasoak beren aurrai ñotriña kontuz irakatsi bear die, ta al ainbatean Elizara ta eskolara, Apaizak eta Eskola-Maiñuak irakasten dute-na ikastera, biraldu bear dituzte: ta ñotriña jakingabez umekak galtzen badira, gurasoak Jainkoari contu estua eman bearko diote.

Umeak ere beren aldetik egiñala egin bear dute dotriña ikasteko, ta beren bizian aztutzen ez uzteko. Ikasi dutenak Apezpiku edo Obispo Jaunagana joan bear dute; Konfirmazioa emateko eskurik beste inork ez duta. Apezpikuak, konfirmatu bear dituan aurren buru-gañean bere eskuak zabaldu, ta Izpiritu Santuari deituaz olioaz eta baltsamoz egindako krismaz, guzien bekokiak gantzutzen ditu, eta gantzutzean, bakoitzari gurutzearen siñalea egiten dio. Sakramentu onek gure animetan egiten duana da, Jesusen gurutzeaz ez lotsatzeko, etsaiaren tenta-aldi gaiztoai gogortzeko, ta Jainkoaren izenean edozer neke umilki eramateko, izan bear degun bezelako kristau onak gu egitea. Ori adierazteko, Obispoak konfirmatzen danari masalleko bat ematen dio. Konfirmazioa bein baizik ematen ez da, Bataioaz gertatzen dan bezela.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Aurrai Konfirmazioa ¿noiz eman bear zaie?

E. Orretarako bear ainbat ikasirik daudenean.

G. Aurrai dotriña irakasteko ardura iduki bear duana ¿nor da?

E. Ait-Amak orretara beartuak daude.

G. Eta aurren egin-bearra ¿zer da?

E. Irakasten zaiena kontuz entzun, eta buruan ondo gordetzea.

G. Konfirmazioa emateko esku-almena duana ¿nor da?

E. Apezpiku edo Obispoa bakarrik.

G. Apezpikoak orretan egiten duana ¿zer da?

E. Izpiritu Santuari deituaz, konfirmatu bear diran aurren gañean bere eskuak zabal-tzen ditu.

G. Eta ¿zer geigo?

E. Krisma Santuaz bekokian gurutze bat egiten die.

G. Guzi onek ¿zer esan nai du?

E. Bear bezelako Kristau ona izateko, Sakramentu onen bidez Izpiritu Santua artzen degula.

G. Kristau bear bezelakoak izatea ¿zer-tan dago?

E. Etsaiaren tenta-aldi guziai gogor egi-tean, eta Jesusen izenean edozer bidegabe-keri, naigabe ta atsekabe jasotzeko prest ego-tean.

G. Konfirmazioa, bein baño geigotan ¿ar-tu al diteke?

E. Bein baizik ezin artu diteke.



XXII. IRAKURTZA.

ALDAREKO SAKRAMENTUA.

Komunio edo Aldareko Sakramentua, gure animen jan-edanerako, Jesukristo gure Jau-nak ematen dizkigun bere Gorputz eta Odola da. Sakramentu andi onek, ogi-ardoen azalmenaz, Jesus bere gauza guziakin osorik, beregan gorderik dauka. Sakramentu au, Mezan egin eta ematen da; eta Meza, Jesus bere buruz, gizon-emakume guzien bekatuen barkamenerako, Ait Eternoari Gurutzean egin zion Donetskañiaren, eta Bere Eriotza gure oroimenera erakartzen duan berriztamena da. Antziñako legean, Jainkoari egin oi zitzaizkan Sakripizioak, Jesukristok Gurutzeko Eriotzaz bere Ait Eter-

noari egin zion eskañi edo Sakripizioaren antz-iduria baizik etziran: eta Jesukristok egunoro esateko utzi zigun Mezak, Gurutze-ko Sakripizio andi onen oroimena berritu, ta aren indarra ta balioa guganatzen du. Jesukristok ill bear zuan bezperan, Sakramentu au nola egin zuan, Mez-emalleak Mezan adierazten du. Orduan ark esan zituan itzak esaten ditu, ta une artan bertan, ogiaren izapea Jesukristoren Gorputz, eta ardoaren izapea bere Odol biurtzen dira; ta biurtze au, begiz ekusten ezpada ere, Fedez ezagutzen degu. Gure begiak Sakramentuan ekusten duten guzia, ogi edo osti mee zuri baten iduri bat da; baña Fede edo sinismen onak, Jesusen Gizatasuna, ta Beraren Jainkotasuna ta oiei dagozkaten gauza guziak irakasten dizkigu. Ogi ta ardoaren idurian Jesus oso guzia dago, ta baita iduri bakoitzaren zatirik chikienean ere: baña orregatik ere Jesus zerutik ez da kentzen; eta zernan dagoana, emen munduko Sakramentu guzietan miragarritzko eran dagoana Bera da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK

G. Aldareko Sakramentua izzer gauza da?

E. Ogi ta ardoaren antz eta idurian dagoan Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odola da.

G. Onela ¿zertako eman zitzaigun?

E. Gure animen janari izateko.

G. Ekuskarri miragarri au ¿non egiten da?

E. Mezako Sakripizio Santuan.

G. Meza ¿zer da?

E. Jesukristok bere buruaz Gurutzeko eriotza eramanik Ait-Eternoari gure alde egin zion Sakripizioaren mirarizko berriztamena.

G. Mezan gertatzen dan miraria ¿zer da?

E. Ogi-ardoak Jesukristoren Gorputz eta Odol biurtzen dira.

G. Biurtze ori ¿nola egiten da?


E. Sazerdoteak esaten dituan Jesusen orduko itzen bitartez eta indarrez.

G. Baldin itz oiek esan eta geroz, guk an len bezela ogia ta ardoa ekusten baditugu, ¿nola izan diteke ori?

E. Ori gertatzen da, ogi ta ardoen izapeak an ez egonagatik, aien iduriak an gelditzen diralako.

G. Jesukristo an dagoala ¿nola ezagutuko degu ba?

E. Fede edo sinismen onaren bidez; eta ala dala sinisteko, ez dan gauzarik ezin esan dezakean Jesukristok esatea, asko dalako.



XXIII. IRAKURTZA.

KOMUNIOA.

Maiz jan gabe, osasunaz iñor ezin bizi diteke. Animaren izpirituzko bizitza, Jainkoaren grazia da: beraz grazi au ematen duan Aldareko Sakramentua noizean bein artu gabe, ezin bizi diteke. Zenbat eta geigotan bat komulgatu, edo Jesusen Gorputz Sagradua artzen duan, ainbat eta indartsugo, sendogo ta bizkorrago animaren grazizko bizitza egiten du. Illak ezin jan dezakete; ta osasuna duanari on egiten dion janari berak, eri-gaisoari gaitz egiten dio. Orobat, grazizko bizitz eta osasunaz Aldareko Maira dijoanari,

Sakramentu Santu onek on egiten dio; baña zertan ari dan, eta zer artu bear duan gogoratu gabe dijoanari, ta Jesusen Gorputz Santua, beste edozer janari balitz bezela, bekatu mortalean dagoala artzen duanari, gaitz egiten dio. Onela komulgatzen danak, bere kondenazioa ta inpernura joan bearra jan eta edaten du. Sakramentu Santuaren irabazi ta ondasunak Komuniotik atera nai dituanak, ongi prestatu ta apaindua, bere anima eraman bear du; Fedeko mirari edo Misterioak, batez ere Sakramentu miragarri artan gure Jainko Jesus bere gauza guziakin egiaz dagoala, ongi sinistuaz, eta bere etsai guziakin lenago pakeak egin, eta iñori gaitzik nai ez diola joan bear du. Eta nola aur chikiak, gauz oiek ezagutzeko gai ez diran, orregatik ongi ikasi arteraño, Komunioa etzaiote ematen. Sakramentu au, bizitz ontatik besterako unean daudenai ematen zaiotenean, *Biatikoa* edo biderakoa deritza; animak bere zeruko bide luze andian bear duan janaria dalako.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Aldareko Sakramentua noizbait artzea ggauxa bearra ta premizkoa al da?

E. Bai: gure animaren bizitza ori data.

G. Guchitan komulgatzen danaren animari zer gertatzen zaio?

E. Argal, indar gabe ta gaizki egotea.

G. Jesukristoren Gorputzak, Komunioan artzen duten guziaz on egiten al die?

E. Guziaz ez: ezpada grazian eta bear dan bezela ongi prestatu ta zuzenduaz artzen dutenai.

G. Jauna artzeko bear diran prestatze edo zuzen-bideak inolakoak dira?

E. Lenbizi bekatuen loietatik garbitu ta graziaz apaindurik egotea.

G. Bekatu mortalak, Komulgatzea inzerगतik eragozten du?

E. Anima iltzen duan eriotz gaiztoko bekatua dalako, ta illa dagoanak janaririk ezin artu dezakelako.

G. Eta komulgatzeko bear diran gañerako prestatze edo zuzen-bideak inolakoak dira?

E. Fede edo Jainkoak agertu dizkigun egien sinismen ona, ta bertute guziaz batez ere, lagun urkoarekin karidadea ta onginaia.

G. Bekatu mortalean dagoala komulgatzen danak ingaitz andia egiten al du?

E. Chit aundia, bere kondenazioa jaten dualako.

G. *Biatikoa* edo biderakoa inzer da?

E. Iltzeko unean arkitzen diran eriaz ematen zaien aizkeneko Komunioa,



XXIV. IRAKURTZA.

PENITENTZI EDO KONPESIOA.

Bataio ta Konfirmazioaren ondoren; erio-
tzaraño, Aldareko Sakramentua baizik kris-
tauak ez luteke bear; baña bataiatu ezker-
geienak, orduko beren grazia ta Jainkoari
zor zaion maitetasuna galtzen dutelako, orre-
gatik, bataiatu ezker- egiten dituzten be-
katu andi, agitz ichusi, animaren iltzalle ta
inpernurako bide diranen barkamenerako,
Jesusek Konpesioko Sakramentua eman zi-
gun. Baña Sakramentu onezaz bere burua
bekatuen azpitik atera nai duanak, Jainkoa-
gan sinistu, ta bere beldur dala, Jainkoa bere

bekatuagatik aserretu dualako damua, eta orrelako gaizkirik geigo ez egiteko egizko asmo sendoaz artu bear du. Damutasun onek, bekatariaren biotza miñez ausitzen du: orregatik *kontrizioa* edo ausitzea deritza, ta Jainkoari zor zaion maitetasunaren asiera bat da. Damua edo dolorea bi aldetarakoa da: bata, *maite-damua* da, maite izan bear lukean Jainko guziz ona, aserretu dualako, bekatariak biotzetik artzen duan damua. Besteari *izu-damua* deritza, inpernuak izutu, ta ara amiltzeko beldurrak bekatariari ar-erazten diona. Biak onak dira; baña bata bestea baño obegoa. *Izu-damua* ona da; baña berez utsik eta Konpesio gabe, bekatuak barkatzeko diña ez da. *Kontrizioa* deritzan *maite-damua*, obegoa ta batetik dituan bekatu guziak barkatzeko asko dana da; konpesatzeko asmoa izan ezkerro. Orra bekatariak ongi konpesatzeko, lenagotik egin bear duana. Gero bekatuak zenbat diran, eta nolakoak egin dituan ekusita, ez bat geigo ta ez bat guchigo, guziak diran bezela, Konpesoreari aitortu bear diozka. Aizkenik ematen zaion penitentzi ta absoluzioa, artuko ditu. Konpesoreak eman oi dituzten penitentziak, orazioa, baraua, limosna ta oiei dagozkaten gauzak dira; eta bekatuaren anditasunari eta bekatariari begiratuaz ematen ditu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Konpesioko Sakramentua ¿norentzat egiña da?

E. Bataiatu ta geroz bekatu mortalen bat egin duanarentzat.

G. Bekatu mortala ¿zer da?

E. Jainkoaren grazia galerazi, ta betiko eriotza inpernuan daramana.

G. Sakramentu Santu au artzeko kristauak egin bear duana ¿zer da?

E. Damuz beterik konpesoreari bere bekatuak agertu, ta ark agintzen diona egin.

G. *Kontrizioa* ¿zer gauza da?

E. Biotz osoz maite izan bear lukean Jainko guziz ona aserretu dualako *maite-damua*, geigo pekaturik ez egiteko asmo sendoaz.

G. Eta *Atrizioa*, ¿zer gauza da?

E. Inpernura erortzeko beldurrak ar-erazten duan *izu-damua*, geigo pekaturik ez egiteko asmo sendoaz.

G. Jainkoa maitatu gabe, bekatua ¿gaitzetsi al diteke?

E. Jainkoari zor zaion maitetasun andi bero irazekia ez izanagatik, amodio onen asieraren bat beintzat bear da.

G. Konpesoreari bekatariak bere bekatuak ¿nola esan bear diozka?

E. Ez bat geigo ta ez bat guchigo, diranak diran bezela.

G. Satisfazioa edo bekatuaz egin zan zorren ordaña ¿zer da?

E. Konpesoreak agintzen duana egin, eta ark emandako penitentzia betetzea.

G. Penitentzi oiek ¿nolakoak izan oi dira?

E. Orazioak, barauak eta limosnak.

XXV. IRAKURTZA.

GAI BERARI DARRAIKANA.

Bekatariak bere bekatuak esan, eta eman zaion penitentzia egiteko itza eman ta gero, baldin konfesoreak baderitza, bekatu egiñaz damutua arkitzen dala, bekatuena lokarriak askatuaz, absoluzioa ta barkazioa eman bear dio; eta ezpere, arekin batean inpernura joan nai ezpadu, len zegoan bezela loturik utzi, ta ukatu bear dio. Bekataria bere bekatuaz ongi damuturik dagoan edo ez, konfesorea aloan badago, aldi batean absoluzioa luzatu bear dio, egun batzuen buruan biurtzeko epea ematen diola. Bear dan bezela artzen dan absoluzioak, bekatu guziak, diranak dirala, bekatariari kentzen dizkio. Chiki-ariñak, erraz egiñ, eta erraz barkatu ditezkean benial edo barkagarriak badira bekatuak, oek, konfessore gabe ere, orazioak, limosnak, eta bestelako lan onak egiñaz barkatu ditezke. Baña zenbait chikiak diruditen bekatu benialetatik ere garbitu bear gera; baita berriaz egitetik gorde ere. Bekatu chiki oek dituela Jainkoaren grazian iltzen diranak, eta bekatu larri andien zor guzia pagatu gabe daudenak, aek eta oek, ill eta ondoren Purgatorioko pena deritzan neke-pen bat eramaten

dute. Emen bizi geranok, aien alde egiten ditugun orazio ta lan onakgatik, andik irtetzen dira; edo beintzat ango nekeak arindu ta guchitzen zaizte. Eleizak, onelako orazio, Meza, limosna edo alako lan onak egiten dituanari, batzuetan ematen diozkan induljentzi edo barkamenak, orretarako dira; gure egiñal guztiak bekatuzko zor guzia pagatzeko diña ez diranean, Jesukristok utzi ziozkan ondasun eta irabaziak, Santuenakin batean guganatzten dituala, Eleizak laguntzen digu.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Konpesoreak, bere bekatuak esaten dituanari ¿absoluzioa eman bear al dio?

E. Ez: egizko damua duala deritzanean baizik.

G. Konpesoreak ongi begiratu gabe, eman bear etzaionari absoluzioa ematen dionean, ¿zer gaitz egiten du?

E. Aren bekatua, beregan artzen du.

G. Bekatu chiki-ariñak barkatzeko ¿konpesio bearrik bada?

E. Oiek bestela ere, barkatzen dira.

G. ¿Nola barkatzen dira?

E. Meza, orazioa, limosna, edo alako lan onak egiñaz.

G. *Garbilegia* esan nai duan *Purgatorioa*, ¿zer da?

E. Beren bekatuen zor guzia, Jainkoari pagatu gabe il ziranak, beste munduan dararmaten neke-pena.

G. Oiek ¿zer zor dira?

E. Bekatu ariñak, edo osoro pagatu gabe gelditu ziran beste bekatuen zorrak.

G. Purgatorioko animen nekeak ¿nola arindu ditzakegu?

E. Aiekгатik Jainkoari erregutuaz.

G. *Induljentzi* edo barkamena ¿zer da?

E. Bekatuen zorren alde egin bear ditugun ordanen utsuneak betetzeko, Eleizak egi-ten digun grazi ta mesedea.



XXVI. IRAKURTZA.

AIZKEN-OLEAZIOA

Aizken-Oleazioa edo *Extrema-Unzioa*, eri edo gaiñoai ongi iltzeko grazia ta laguntza ematen dien Sakramentua da. Eriari, dituan bekatu chiki oriez damutzen bada, barkatzen diozka; eta beste bekatuak erakarri dioten argaltasunetik sendotzen du. Eriotzko orduan, beste denboraz baño gogorrago izan oi diran etsaiaren eraso gaiztoak garaitzeko, indar asko ematen dio; ta ongi bada-goka, lenago zuan osasuna ere, eriari biurtu dezaioke. Apezpikuak bedeinkatutako olioaz Sakramentu au ematen dutenak, Sazerdo-

teak dira; Olio bedeinkatuaz eria begietan, belarrietan, sudurretan, aoan, eskuetan, oñetan, eta gerri-alde edo bekatu-bide guzietan gantzutzen dutela, ta gantzutze bakoitzean eriak bere gorputzeko parte bakoitzarekin egin dituan bekatuen barkamena Jainkoari eskatzen diote. Oleazioko Sakramentua artzeko dagoanak, Jainkoaren grazian egon bear du: ta iltzeko perill urkoan arkitzen diranentzat egiña bada ere, aizken-aizkeneraño ichodon gabe, eriarri bere ezagüeran dagoala ematea, obe da.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Aizken-oleazioko Sakramentuari dago-
kan grazia ¿zer da?

E. Ongi iltzeko grazia.

G. Sakramentu onek barkatzen dituan be-
katuak ¿zer dira?

E. Bekatu ariñ edo benialak, eta beste be-
katuen ondore ta kutsuak.

G. Geigo ¿zer egiten du?

E. Eriari, eriotzko orduan etorri oi diran
eraso gaiztoak garaitzeko indarra ematen dio.

G. Sakramentu au eman bear duten Mi-
nistroak ¿nor dira?

E. Sazerdoteak.

G. ¿Nori eman bear zaio?

E. Iltzeko perill urkoan dauden eriai.

G. Ta Sakramentu au emateko gatzkenara-
ño ichodon bear al da?

E. Ez: lenagotik eman bear zaie, obeto
jarri ta prestaturik artu dezaten.

G. Gantzuera asko gzerगतik egiten dira?

E. Gorputzeko parte askorekin egiten di-
ran bekatuak adierazteगतik.

G. Gantzuera oiek gzergez egiten dira?

E. Apezpiku Jaunak bedekinkatutako olioaz.



XXVII. IRAKURTZA.

ORDENA.

Ordena, Jesukristok bere Eleiz Santuari bear duan guzirako Maiñuak, animako Gura-soak, Sendatzalleak, Juezak eta gañerako Apaizak egiteko utzi zigun Sakramentua da. Gure Jaunaren Apostolo edo Ikasleak, mundutik joan ziran; baña Eleiza betikoa da, ta munduak dirauen arteraño iraun-bearra, ta langille ta serbitzari gabe ezin iraun lezake: orregatik Apostolo ta Ikasleen orde, Eleizak bere eginkizunetarako, gizon ordenduak bear ditu. Ordentzen danak, bere burua santu egiteko grazia ezezik, baita besteai Sa-

kramentuak, eta oien bidez grazi santugille bera emateko eskua ere artzen du. Konfirmazioko ta Ordenako Sakramentuak, Apezpikuak baizik bestek ezin eman ditzake. Sazerdote edo Mez-emalleak Obispoari laguntzeko dira; eta Apaiz-urrenak, Ebanjelariak edo *Diakonoak* deriztenak, Obispo ta Sazerdoteai beren Eleizkizunetan laguntzeko, ta pobreen kontua idukitzeko dira. Orra Ordena nagusi ta goienak: oiek baño chikigoak eta beragoak beste bost dira. Lenengoa, *Subdiainoa*, Diakonoaren urrengoa ta Epistolaria. Bigarrena, *Akolitoak*, Meza laguntzalleak, Obispoari jarraitzeko, ta Eleizan kandelargiak ta binajerak Mezara eramateko sinalatuak. Irugarrena, *Irakurleak*, etorkizunak Eleizan irakurtzeko diranak. Laugarrena, *Exorzizta* edo konjuratzalleak. Bostgarrena, *Ostiarikoak* edo ate-zaiak, Eleizako ateak idiki edo ichitzeko kontua dutenak. Orra andi ta chiki, guzitara zazpi. Andienak Mez-emallearenak, (emen Obispoarena aditzen da;) Ebanjelariarena ta Epistolariarena dira: chikigoak gañerako lauak. Guziak batetan ezin artu ditezke; ezpada banaka, ta bata bestearen ondoren, beenetik asi eta goiena dagoan Apaizkuntzara igotzen dala. Lenengo malla, buruko illea ebaki, ta koroia egitea da; au ez da Ordena, baizik ordentzeko bidea, eta Apaiz-gai egiteko, ta Apaiz-jantzia ipin-

tzeko zeremoni santua. Eleiza serbitzen dutenak, Apaizak eta Eleiz-gizonak deitzen dira; ta oiez osterontzean, kristau artean bizi diranak, Eleizgeak edo Legoak dira.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Ordenako Sakramentuak ordentzen danari ematen dion grazia ¿zer da?

E. Sakramentuak emateko eskua ta Eleiz-kizunen bat agerian egiteko almena.

G. Grazi au osorik artzen dutenak, ¿nor dira?

E. Apezpiku edo Obispoak.

G. ¿Orrela oiek Sakramentu guziak eman ditzakete?

E. Baita Konfirmaziokoa ta Ordenakoa ere.

G. Konfirmazio ta Ordenako Sakramentuak oiek biak, Jaupari edo Sazerdoteak ¿eman ditzakete?

E. Ez: oiek Apezpikuarentzat gordeak daude.

G. Diakono edo Ebanjelariaren egitekoa ¿zer da?

E. Apezpiku ta Mez-emalleari beren Eleiz-kizunetan laguntzea.

G. Beste Ordenai ¿nola derizte?

E. *Subdiakono* edo *Epistolariak*; *Akolito* edo *Meza-laguntzalleak*; *Irakurleak*; *Konjura-*

tzalle edo *Exorziztak*; *Ostiarior* edo Ate-zaiak.

G. Guzitara ¿zenbat dira?

E. Zazpi.

G. Sagraduak edo nagusiak ¿zeintzuk dira?

E. Mez-emalle, Ebanjelari, ta Epistolaria-rena.

G. ¿Beste Ordenarik artu gabe, bat bertatik Mezaz Ordendu al ditek?

E. Ez: lenago Ordena-malla guzietatik igaro bear du.

G. *Prima* esaten diogun ille ebakitzea, edo Ordendu bear duanari buruan egiten zaion koroia ¿zer gauza da?

E. Eleiz-jantzia artzeko zeremoni Santu bat.

G. Eta zeremoni onek ¿zer egiten du?

E. Len Eleizan egitekorik etzuan gizona, Eleiz-gizon egiten du.



XXVIII. IRAKURTZA.

EZKONTZA.

Jainkoak lenbiziko gizona egin zuanean, laguntzat emakume bat eman zion; eta lenengo gizon-emakume biakgandik, beste guziak jaio zitezela, nai izan zuan; eta Matrimonio edo Ezkontza onela egin zuan. Lenbiziko gizonaren bekatuagandik zetorren gaitzerako grina makurrak ezkontz-lana zikindu ta itsusitu zuan; baña Jesukristok, lenagotik zuan garbitasunera biurtu zuan; eta len gizon eta emakumearen arteko artu-eman bat baizik etzana, ezkonduentzat zegozkan grazi bere-

ziak ematen ziozkala, Sakramentu egin zuan. Gizon eta emakume bakar baten arteko batasuna, eta eriotzak ezpada, bestek askatu eta urratu ezin dezakean ezkontz-lokarria da. Ezkonduak anima birekin gorputz bat baizik ezpalira bezela, alkarri ongi nai bear diote; alkarri bizitzako lan eta neke guzietan lagundu, jaiotzen zaizten umeak azitzeko bear dutena billatu, ta itzez eta bizitz onaz umeak jakin bear dutena irakatsi bear die: orrela oiek aien ondoren, lurraren gañean Jainkoa serbitu ta gero, betiraunde guzian zorionekoak zeruan izan ditezen. Senar-emazteen arteko batasuna, Jesukristoren eta Eleizaren arteko batasunaren antz-iduri ta imajiña da. Baña Ezkontza chit Santua ta ona bada ere, ezkondu gabe gorputz eta anima osoro garbi bizitzea, obegoa da. Ezkonduak, Jainkoaren eta munduaren bitartean erdi bat Jainkoarentzat, eta beste erdia munduarentzat dutela, beren eche ta echetarren kontua iduki bear dutenak bezela, erdi bi egiñak bezela daude. Dontzella garbi ezkondu gabea, bere buru osoa Jainkoari emateko, askatua ta libre dago. Baña biziera garbi au guzientzat egiña ez da; baizik Jainkoak nai duanari ematen diona.

GALDEAK ETA ERANTZUNAK.

G. Matrimonia  nork egin zuan?

E. Munduaren asieran Jainko Berak.

G. Eta bere antzi nako garbitasunera  nork biurtu zuan?

E. Sakramentu izatera Jesukristok goratu zuan.

G. Ezkontzak  zer adierazten du?

E. Jesukristok bere Eleizarekin duan batasuna.

G. Sakramentu oni dagokan grazi berezia  zer da?

E. Senar-emazteak gorputz bat baizik ez-palira bezela, alkar maitatzeko ematen duan grazia.

G. Eta gero senar-emazteak, alkarri zor dioten maitetasunetik  zer dator?

E. Neke ta premi guzietan alkarri laguntzea.

G. Beren umeen alde egin bear dutena  zer da?

E. Ardura ta arreta andi bat iduki, ta Jainkoaren beld rrean azi ta ezi.

G. Ezkonduen biziera ba no beste bizi-modu obegorik  zerurako bai al da?

E. Bai: ezkondegabe, ta aragizko lanetan gorputzez edo gogoz batere kutsutu gabe bizitzea.


G. Onelako bizitza izerगतik da ohea?

E. Onela bizi dana, Jainkoa serbitzeko askatugo dagoalako.

G. izerगuziak onela bizi al ditezke?

E. Inola ere ez: bada bizitz ain garbia, Jainkoak artarako autu duanari bakarrik ematen dion doia da.







KRISTAU-IKASBIDEAREN

OSAGARRIA



Gurutze santuaren sinaleagatik, † gure etsaietatik † libra gaitzatzu, gure Jaun eta Jainkoa †—Aitaren, eta Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean. † Amen. Jesus.

PATER NOSTERRA.

Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena; betorkigu zure erreino: egin bedi zure borondatea, zeruan bezela lurrean ere.

Gure egunoroko ogia gaur eman zaigu; eta barkatu gure zorrak, guk ere zordunai barkatzen diztegun bezela: eta ez utzi tentazioan erortzen; baizik libra gaitzatzu gaitzetik. Amen.

AVE MARIA.

Agur, Maria, graziz betea, Jauna zurekin; bedeinkatua zu andre guzien artean: eta bedeinkatua zure sabeleko frutu Jesus.

Santa Maria, Jainkoaren Ama, erregu zazu

gu pekatariokgatik orain eta gure eriozko orduan. Amen.

Gloria Aitari, ta Semeari, ta Izpiritu Santuari, lenendik zan bezela orain eta beti-beti Amen.

KREDOA.

Sinisten det, Aita-Jainko guzialtsu, zeru ta lurraren Kreatzalleagan. Eta aren Seme bakar Jesukristo gure Jaunagan: sortua izan zana Izpiritu Santuaz, jaio zan Maria Birjiñagandik, padezitu zuan Ponzio Pilatos-en agintearen azpian, izan zan gurutziltzatua, illa ta obiratua. Jechi zan inpernuetara; piztu zan illen artetik irugarren egunean. Igo zan zeruetara, ta an dago eseririk Aita-Jainko guzialtsuaren alde eskuitik. Andik etorriko da biziak eta illak epaitzera. Sinisten det Izpiritu Santuagan; Eliz Ama Santu Katolikoa; Santuen alkartasuna; bekatuen barkazioa; aragiaren piztuera, ta beti-betiko bizi-tza. Amen.

SALVEA.

Agur, Erregiña, errukizko Ama, bizitza, gozotasun eta gure esperantza. Agur: Zuri deiez gaude Ebaren ume erbestetuak. Zugana gaude suspirioz, lantuz eta negarrez, malkozko ibar ontan. Ea bada, bitarteko gurea, zure begui errukitsu oriek gugana itzuli itza-

tzu. Eta erbeste onen ondoren Jesus zure sa-
beleko frutu bedeinkatua erakutsi zaiguzu.
¡O errukitsua! ¡O biotz biguña! ¡O Maria Bir-
jiñ gozoa! Erregu zazu gugatik, Jainkoaren
Ama Santua, Kristoren aginsarien diña egin
gaitean. Amen.

JAINKOAREN LEGEKO AGINDUAK

AMAR DIRA.

Lenengo irurak Jainkoaren ondrari dagoz-
kio, ta beste zazpiak, lagunaren onari.

Lenengoa, Jainkoa amatzea gauza guzien
gañean.

Bigarrena, juramentu alperrik ez egitea.

Irugarrena, Jai-egunak santifikatzea.

Laugarrena, Aita ta ama ondratzea.

Bostgarrena, iñor ez illtzea.

Seigarrena, aragizko pekaturik ez egitea.

Zazpigarrena, ez ostutzea.

Zortzigarrena, testigantz paltsorik ez jaso,
ta gezurrik ez esatea.

Bederatzigarrena, lagunaren emazterik ez
deseatzea.

Amargarrena, besteren ondasunik ez de-
seatzea.

Amar Agindu oiek bitan sartzen dira: Jain-
koa gauza guzien gañean amatu: eta laguna
gere buruak bezela.

AMA ELIZA SANTUAREN AGINDUAK

BOST DIRA.

Lenengoa, Igandeetan eta beste Jaietan Meza osoa entzutea.

Bigarrena, urtean bein guchienaz konpesatzea, edo lenago, iltzeko perillik esperatzen bada, edo komulgatu bear balitz.

Irugarrena, Piztuerako Pazkoetan komulgatzea.

Laugarrena, Ama Eliza santuak agintzen duanean, barautzea.

Bostgarrena, Jainkoaren Elizari zor zaiona pagatzea.

G. Agindu oiek izertako dira?

E. Jainkoaren aginduak guk obeto gordetzeko.

AMA ELIZA SANTUAREN SAKRAMENTUAK

ZAZPI DIRA.

Lenengo bostak premizkoak dira, edo artu bear diranak obraz edo deseez, eta oiek gabe gizona ezin salba diteke, desprezioz uzten baiditu; beste biak borondatezkoak dira.

Lenengoa, Bautismoa.

Bigarrena, Konfirmazioa.

Irugarrena, Penitentzia.

Laugarrena, Komunioa.

Bostgarrena, Extrema-Unzioa.

Seigarrena, Sazerdoteen Ordena.

Zazpigarrena, Matrimonioa.

GUZIZKO KONPESIOA.

Ni bekataria konpesatzen naitzaio Jainko guzialtsuari, Santa Maria beti Birjiñari, San Migel aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Paulo apostoloai, Santu guziai, eta zuri, Aita, egin dedala asko ta asko pekatu, pentsamentuz, itzez eta egitez nere kulpaz, nere kulpaz, nere culpa chit andiz. Argatik erregutzen diot Santa Maria beti Birjiñari, San Migel aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Paulo apostoloai, Santu guziai, eta zuri, Aita, erregutu zaiozula nigatik Jainko gure Jaunari. Amen.

MAITE-DAMUZKO EGINTZA.

Jesukristo nere Jauna, egizko Jainko ta Gizona, nere Egille ta Salbatzallea: Zu zerana zeralako eta maite zaitudalako beste gauza guziak baño geigo, damu det, Jauna, nere biotz guzitik Zu ofenditua; asmo sendoa artzen det geigo pekaturik ez egiteko, ta apartatzeko pekaturako okasio guzietatik; konpesatu ta penitentzia kunplitzeko.

Eskaintzen dizkitzut, Jauna, nere bizitz, lan eta nekeak nere pekatuen ordañerako.

Zure ontasun eta miserikordi azkengabea esperantza daukat, barkatuko dizkidatzula zure Odol prezioso, Pasio ta Eriotzaren me-

rezimentuakgatik; eta grazia emango dida-
zula onbiurtu, ta zure serbitsu santuan irau-
teko nere bizitzaren azkeneraño. Amen, Jesus.

FEDEKO ARTIKULUAK

AMALAU DIRA.

JAINKOTASUNARI DAGOZKIONAK

OIEK DIRA.

Lenengoa, sinistea Jainko guzialtsu bakar
bat dala.

Bigarrena, sinistea Aita dala.

Irugarrena, sinistea Semea dala.

Laugarrena, sinistea Izpiritu Santua dala.

Bostgarrena, sinistea Kreatzallea dala.

Seigarrena, sinistea Salbatzallea dala.

Zazpigarrena, sinistea Glori-emallea dala.

GIZATASUN SANTUARI DAGOZKIONAK

OIEK DIRA.

Lenengoa, sinistea Jesukristo gure Jauna,
Gizon danez, Izpiritu Santuaren egitez sor-
tua izan zala.

Bigarrena, sinistea Maria Birjiñagandik
jaio zala, Señora au Birjiñ gelditurik, Kristo
jaio baño len, jaiotzean eta jaio ezkeru.

Irugarrena, sinistea Pasio ta eriotza supri-
tu zituala, gu pekatariok salbatzeagatik.

Laugarrena, sinistea inpernuetara jechi zala, ta aren etorrera santuaren zai zeuden anima justuak libratu zituala.

Bostgarrena, sinistea illenartetik irugarren egunean piztu zala.

Seigarrena, sinistea zeruetara igo, ta an dagoala eseririk Aita-Jainko guzialtsuaren alde eskuitik.

Zazpigarrena, sinistea biziak eta illak epaitzera etorriko dala: au da, onai gloria ematera, agindu santuak egin zituztelako, eta gaiztoai sekulako pena, egin etzituztelako.

MISERIKORDIZKO OBRAK

AMALAU DIRA.

ANIMAKO ZAZPIAK OIEK DIRA.

Lenengoa, ez dakienari irakastea.

Bigarrena, premi duanari kontseju ona ematea.

Irugarrena, gaizki egiten duanari zuzenbidea ematea.

Laugarrena, charkeriak barkatzea.

Bostgarrena, triste dagoana konsolatzea.

Seigarrena, gure projimoen miseri ta argaltasunak pazientziz supritzea.

Zazpigarrena, bizi ta illakgatik Jainkoari erregutzea.

GORPUTZEKO ZAZPIAK OIEK DIRA.

Lenengoa, gaiño daudenak bisitatzea.

Bigarrena, gose dagoanari jaten ematea.

Irugarrena, egarri dagoanari edaten ematea.

Laugarrena, katiboak libratzea.

Bostgarrena, larrugorrian dagoana jantzi-
tzea.

Seigarrena, bidezkoari ostatu ematea.

Zazpigarrena, illak enterratzea.

G. Miserikordizko obrak zergatik deitzen
zaie?

E. Justiziz zor eztiralako.

G. Pekatu mortalaren azpian znoiz obli-
gutzen dute?

E. Gizon adituen iritzian, larriak diran
premietan.

GORPUTZAREN SENTIMENAK

BOST DIRA.

Lenengoa, ekustea begiaz.

Bigarrena, entzutea belarriaz.

Irugarrena, gustatzea aboaz.

Laugarrena, usai egitea sudurraz.

Bostgarrena, ikutzea eskuaz.

G. Zertako eman zizkigun Jainkoak sen-
tiduak eta beste almenak?

E. Guziaz guzian Bera serbitu genezan.

ANIMAREN ALMENAK

IRU DIRA.

Oroimena, Adimena ta Naimena.

G. Jainkoak, Oroimena ¿zertako eman zigun?

E. Jainko Beraz eta bere mesede aundiaz oroitzeko.

G. Adimena, ¿zertako eman zigun?

E. Jainkoa ezagutu ta Beragan pentsatzeko.

G. Naimena, ¿zertako eman zigun?

E. Guziz gañ Jainko Bera maite izan genezan, ontasun guzia duana bezela, eta laguna bere izenean.

IGES EGIN BEAR DIEGUN

ANIMAREN ETSIAIAK

IRU DIRA.

Lenengoa, Mundua, Bigarrena, Demonioa, Irugarrena, Aragia.

G. Mundua ¿zein da?

E. Munduko lagun gaiztoak

G. Munduagandik ¿nola iges egiten da?

E. Bere arrokeri ta utskeriak urruinduaz.

G. Demonioa ¿zein da?

E. Jainkoaren kontra alchatu zan aingeru gaiztoa.

G. Demonioagandik inola iges egiten da?

E. Orazio ta umiltasunaz.

G. Aragia inzein da?

E. Gure gorputzaren griña gaiztoak.

G. Aragiagandik inola iges egiten da?

E. Mortifikazio, bijili ta barauz, gorputzaren griña makurrak eziaz.

G. Griña makurrak inola ezitzen dira?

E. Loari, jan-edanari, ta beste atseginai zerbait kenduaz.

G. Eta ori erresago inola irichi genezake?

E. Lagun charretatik, eta aragizko pekatuaren irrisikoetatik iges eginaz.

G. Etsairik andiena inzein da?

E. Etsairik andiena aragia da; aragia gulgandik ezin apartatu genzakelako; baña mundua ta demonioa bai.

JAIKOAGANAKO BERTUTEAK

IRU DIRA.

Lenengoa, Fedea; Bigarrena, Esperantza; Irugarrena, Karidadea.

GIZONAREN AZKEN-MUGAK

LAU DIRA.

Eriotza, Epaia, Inpernua ta Zerua.

KRISTAU DOTRIÑAREN AGERKERA

GALDETZEN ETA ERANTZUTEN DALA.

Galdetzen det: ¿Kristaua al zera?

Erantzuten det: Bai jauna, Jainkoaren graziz.

G. Kristauaren izen ori, ¿norgandik izan zenduan?

E. Kristo gure Jaunagandik.

G. Kristauak ¿zer esan nai du?

E. Kristoren gizona.

G. Kristoren gizonaz ¿zer aditzen dezu?

E. Bataiatzean artutako Kristoren Fedea duan gizona, ta aren serbitsu santura eskañirik dagoana.

G. Kristauaren siñalea ¿zer da?

E. Gurutze Santua.

G. ¿Zergatik?

E. Kristo gurutziltzatuaren iduria dalako.

G. Siñale au ¿zenbat modutan egiten du kristauak?

E. Bitan.

G. ¿Zer dira?

E. Ziñatzea ta santiguatzea.

G. Ziñatzea ¿zer da?

E. Eskuiko eskuaren aurreneko beatzaz iru gurutze egitea: *lenengoa*, bekokian; *bigarrena* aboan; *irugarrena* bularretan, Jainko

gure Jaunarekin itz egiten dala.

G. ¿Ikusi nola?

E. Gurutze Santuaren sinaleagatik † gure etsaietatik † libra gaitzatzu, gure Jaun eta Jainkoa †

G. *Bekokian* ¿zergatik sinatzen zera?

E. Pentsamentu gaiztoetatik Jainkoak libra gaitzan.

G. *Aboan* ¿zergatik?

E. Itz gaiztoetatik Jainkoak libra gaitzan.

G. *Bularrelan* ¿zergatik?

E. Obra ta deseo gaiztoetatik Jainkoak libra gaitzan.

G. Santiguatzea ¿zer da?

E. Eskuiko eskuaren bi beatzaz Gurutze bat egitea; bekokitik bularreraño, ta ezkerreko sorbaldatik eskuikoraño; Trinidado chit Santuari deitzen zaiola.

G. ¿Ea nola egiten dezun?

E. Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu Santuaren izenean. † Amen.

G. Sinale au ¿noiz egin bear dezu?

E. Lan onen bat asitzen dedan guzian, edo premi, tentazio edo perillen batean arkitzen naizenean; batez ere oetik jaikitzean, echetik irtetzean, Elizan sartzean, jaterakoan, eta lo egiterakoan.

G. ¿Zergatik orrenbeste bider?

E. Denbora ta leku guzietan gure etsaiak erasotzen digutelako.

G. ¿Zer etsai dira oiek?

E. Mundua, Demonioa ta Aragia.

G. ¿Gurutzeak bertuterik badu etsai oien kontra?

E. Bai jauna.

G. Gurutzeak bertute ori ¿nondik izan zuan?

E. Gurutzean Kristok bere eriotzaz etsai oiek bentzitu zitualako.

G. Gurutzea adoratzean, ¿zer esaten dezu?

E. Adoratzen eta bedeinkatzen zaitut, Kristo, zure Gurutze Santuaz mundua libratu zendualako.

KRISTAU DOTRIÑAREN

PARTIERA.

Izen eta siñaletik kristaua zerala ikusi det.
Esan zadazu orain:

G. Kristauak ezagüieran sartzen danean, ¿zenbat gauza jakin bear ditu?

E. Lau gauza.

G. ¿Zer dira?

E. Zer *sinistu*, zer *eskatu*, zer *egin* eta zer *artu* bear duan.

G. Zer *sinistu* bear duan ¿nola jakingo du?

E. *Kredoa* ta *Fedeko Artikuloak* jakinda.

G. Zer *eskatu* bear duan ¿nola jakingo du?

E. *Pater-nosterra* edo Elizako beste *orazioak* jakinda.

G. Zer egin bear duan ¿nola jakingo du?

E. Jainkoaren legeko aginduak, *Eliz Ama Santuarenak* eta *Miserikordizko obrak* jakinda.

G. Zer artu bear duan ¿nola jakingo du?

E. *Eliz Ama Santuaren Sakramentuak* jakinda.

KRISTAU DOTRIÑAREN

LENENGO PARTEA.

KREDOA TA ARTIKULOAK EMEN AZALTZEN DIRA.

G. Lenbizi Kredoak ¿nork esan zuan?

E. Apostoloak.

G. ¿Zertako?

E. Guri Fede Santuko gauzak irakasteko.

G. Eta zuk Kredoak ¿zertako esaten dezu?

E. Kristauak degun Fede au aitortzeko.

G. Fedea ¿zer da?

E. Ikusi ez deguna sinistea.

G. Kristo jaiotzen ¿ikusi al zenduan?

E. Ez jauna.

G. Iltzen edo zeruetara igotzen ¿ikusi al zenduan?

E. Ez jauna.

G. ¿Sinisten al dezu?

E. Bai jauna, sinisten det.

G. Eta ¿zergatik sinisten dezu?

E. Jainkoak agerturik, Eliz Ama Santuak onela irakasten digulako.

G. Fedeko artikulua ¿zer dira?

E. Sinistu bear ditugun Fedeko misterioric nagusienak.

G. Eta Fedeko artikuloa ¿zertako dira?

E. Trinitade chit Santuaren eta gure Sal-

batzalle Jesukristoren berri, zearo emateko.

G. Jainkoa ¿nor da?

E. Esan eta pentsatu al ditekean baño gauzik bikañen eta miragarriena: Jaun bat aizkenik gabe ona, guzialtsua, jakintsua, justua, gauza guzien asiera ta akabera; onak saristatu, eta gaiztoak kastigatzen dituana.

G. Trinitade chit Santua ¿nor da?

E. Jainko Bera, Aita ta Semea ta Izpiritu Santua: iru persona banaroak eta egizko Jainko bat.

G. Aita ¿Jainkoa da?

E. Bai jauna.

G. Semea ¿Jainkoa da?

E. Bai jauna.

G. Izpiritu Santua ¿Jainkoa da?

E. Bai jauna.

G. ¿Iru Jainko al dira?

E. Egizko Jainko bat baizik ez da.

G. Aita ¿Semea al da?

E. Ez jauna.

G. Izpiritu Santua ¿Aita edo Semea al da?

E. Ez jauna.

G. ¿Zergatik?

E. Personak banaro edo berezi diralako; egizko Jainko bat bada ere.

G. Jainko guzi-altsua ¿nola da?

E. Bere nai izatez, beste gabe, nai duan guzia egiten dualako.

G. Jainko-Kreatzallee ¿nola da?

E. Gauza guziak ezerezetik egin zitualako.

G. Jainko-Salbatzallea ¿nola da?

E. Grazia eman, eta pekatuak barkatzen dizkigulako.

G. Jainko-Gloriemallea ¿nola da?

E. Aren grazian irauten duanari, gloria ematen diolako.

G. Jainkoak guk bezela ¿gorputzaren pigurik badu?

E. Jainkoa Izpiritu garbi ta gorputz gabekoa da, ta gorputz pigurik ez du.

G. Eta Jesukristok ¿ote du?

E. Bai jauna, Jesukristok gorputz pigura badu, Jainko-Gizon egiña dalako.

G. Iru personetatik ¿gizon zein egin zan?

E. Bigarrena, au da, Semea.

G. Aita-Jainkoa ¿gizon egin ote zan?

E. Ez jauna.

G. Izpiritu Santu-Jainkoa ¿gizon egin ote zan?

E. Ez jauna.

G. ¿Zein egin zan ba?

E. Seme-Jainkoa bakarrik, Gizon eginik Jesukristo deritzaiona.

G. Beraz orrela, Jesukristo ¿nor da?

E. Jainko biziaren Semea, gu salbatzeagatik, eta guri nola bizi erakusteagatik gizon egin zana.

G. Jesusek ¿zer esan nai du?

E. Salbatzalle edo Libratzallea.

G. ¿Zertatik salbatu edo libratu ginduan?

E. Gure pekatutik eta demonioaren mendetik.

G. Kristok ¿zer esan nai du?

E. Gantzutua.

G. ¿Zerzaz izan zan gantzutua?

E. Izpiritu Santuaren grazi ta doaiz.

G. Kristo gure Jauna, ¿nola sortu, eta nola jaio zan Ama Birjiñagandik?

E. Jainkoak obra miragarri bat eginik.

G. Eta Kristoren ama, geroztik ¿beti izan zan Birjiña?

E. Bai jauna, beti izan zan Birjiña.

G. Eta Kristok ¿zergatik nai izan zuan ill gurutzean?

E. Gu pekatutik eta inpernuko eriotzatik libratzearren.

G. Kristo ill ezkerro inpernuetara jechi zala esaten danean, ¿zer aditzen dezu?

E. Ez det aditzen kondenatuen lekura jechi zala, baizik justuak zeuden Linbora.

G. Eta ¿nola jechi zan?

E. Kristoren anima Jainkotasunakin bat.

G. Ta gorputza ¿nola gelditu zan?

E. Jainkotasun Berakin bat.

G. Irugarren egunean ¿nola piztu zan?

E. Aren gorputz eta anima gloriosoa berriro bat egiten zirala, ez geigo iltzeko.

G. Zeruetara ¿nola igo zan?

E. Bere-bere birtutez.

G. Aita-Jainkoaren alde eskuitik eseririk egoteak zer esan nai du?

E. Jesukristok, Jainko danez, Aita-Jainkoak ainbat glori duala; eta gizon danez, beste guziak baño geigo.

G. Bizi ta illak epaitzera noiz etorriko da?

E. Munduaren aizkenean edo akaberan.

G. Ta orduan, zill guziak piztu bear dute?

E. Bai jauna, izan zituzten anima ta gorputz berackin.

G. Santuen alkartasuna sinisten det, esaten dezunean zer sinisten dezu?

E. Kristau Fededun guziak, beste guzien animako ondasunetan parte dutela, Elizaren gorputzeko parteak diralako.

G. Eta Eliza zer da?

E. Kristau Fededun guzien Billera, Erromako Aita Santua buru dala.

G. Eta Aita Santua nor da?

E. Kristoren ordanezkoa lurrean, guziok berari obeditu bear dioguna.

G. Kredoa ta artikuloaz gñera, beste gauzik sinisten dezu?

E. Bai Jauna, Iskritura Sagraduan dagoana, ta Jainkoak Elizari agertu dion guzia.



ENKARNAZIOKO MISTERIOAZ.

G. Enkarnazioko Misterioa ¿zer da?

E. Triniteade chit Santuko bigarren persona, Seme-Jainkoa, Maria Birjiñaren errai garbietan gizon egitea.

G. Jainko-Semea gizon egiteaz ¿zer aditzen da?

E. Gureen antzeko gorputz eta anima bat artu zituala.

G. Eta Jainkoaren Semea Gizon egin zanean ¿Jainkotasuna utzi ote zuan?

E. Ez jauna; baizik Jainko ta Gizon, Jainkozko persona bat geratu zan.

G. Miragarritzko lan au ¿noren bidez egin zan?

E. Ez gizonaren egitez; baizik Izpiritu Santuaren graziz.

G. Jainkoa Gizontzeko, Izpiritu Santuak zer egin zuan?

E. Lau gauza.

G. Zer dira?

E. *Lenengoa*: Maria Birjiñaren sabel garbian, onen odol garbiaz gorputz bat moldatu: *bigarrena*: ezerezetik anima bat kreatu: *irugarrena*: anima au gorputzarekin batu; eta *lau-garrena*: gorputz eta anima abek Trinidadeko bigarren Personakin bat egin: era ontan Jainkoa Gizon egiña geratu zan.

G. Eta lau gauz oek bata bestearen ondoren gertatu ote ziran?

E. Ez jauna; baizik batetan, Maria Birjiñak Aingeruari baimena eman zionean.

G. Miragarritzko lan au Izpiritu Santuakin batera, Aitak eta Semeak zer alzuten egin?

E. Bai jauna, irurak egin zuten.

G. Izpiritu Santuaren lana izan zala, zer-gatik esaten dezu ba?

E. Jainkoaren gudanako maitetasun andiaren lana izan zalako; eta maitetasuna Izpiritu Santuari dagokitzen zaion, Aitari altasuna, ta Semeari jakinduria bezela.

G. Aitak eta Izpiritu Santuak zer Gizatasunik artu al zuten?

E. Ez jauna; baizik Seme-Jainkoak bakarrik Gizatasuna artu zuan.

G. Beraz, Aitak eta Izpiritu Santuak, ¿zer izate dute?

E. Aitak eta Izpiritu Santuak Jainkozko izatea bakarrik dute.

G. Jainko Gizon egiñak, ¿izena zer du?

E. Jesukristo.

G. Eta Jainkoa Gizon egiteko, zeruko mandataria Maria Birjiñagana ¿zein etorri zan?

E. Gabriel Goiaingeru Santua.

G. Maria Birjiña orduan, ¿non bizi zan?

E. Nazaret deritzaion erri chiki batean.

G. Eta Jainkoaren Gizontzea ¿zer egunetan gertatu zan?

E. Marcho edo Epaillaren ogeita bostean.

G. Jesukristo, ¿noiz edo non jaio zan?

E. Eguberri egunean, Belengo echola pobre batean.

G. Jesukristok, ¿zenbat Entendimentu ditu?

E. Jesukristok bi Entendimentu ditu, bata Jainko dan aldetik, eta bestea Gizon dan aldetik.

G. Eta Jesukristok, ¿zenbat Borondate ditu?

E. Jesukristok bi Borondate ditu, bata Jainko dan aldetik, eta bestea Gizon dan aldetik.

G. Jesukristok, ¿zenbat Memori ditu?

E. Jesukristok Memori bakarra du, ta au Gizon dan aldetik; Jainko dan aldetik gauza

guziak batera ezagutzen ditu, ta Memori bearrik ez du.

G. Jesukristok zenbat Persona ditu?

E. Jesukristo Jainkozko Persona bat da, Triniteade Santuko bigarrena.

G. Jesukristok, zaitik edo amik badu?

E. Jesukristok, Jainko danez, Aita du, Aita Betikoa, Triniteade Santuko lenengo Persona, amik gabe; eta Gizon danez, Ama du, Maria beti Birjina, aitik gabe.

G. Jesukristo Jainko dan aldetik edo Gizon dan aldetik da lenagokoa?

E. Jesukristo, Jainko danez, asierik eta aizkenik gabe beti-betikoa da; baña Gizon danez, ez da betikoa; baizik Ama Birjinaren sabelean sortu ezkerozkoa.

G. Jesukristo orain non dago?

E. Jesukristo, Jainko danez, toki guzietan dago; eta Gizon danez, zeruan eta Aldareko Sakramentu Santuan zeruan dagoan bezela.



ALDAREKO SAKRAMENTU SANTUAZ

G. Aldareko Sakramentu Santuan ¿zer dago?

E. Jesukristo gure Jauna, egizko Jainko ta Gizona, Zeruan dagoan bezela.

G. Konsagratu baño len, Ostian ¿zer dago?

E. Ogi piška bat.

G. Eta konsagratu ezkerro, Ostian ¿zer dago?

E. Konsagratu ezkerro, Ostian Jesukristo gure Jaunaren Gorputza dago, bere Odol Anima ta Jainkotasunakin, eta iru Persona Jainkozkoak ere bai.

G. Konsagratu baño len, Kalizan ¿zer dago?

E. Ardo purua ur tanto batekin.

G. Eta konsagratu ezkerro, Kalizan ¿zer dago?

E. Konsagratu ezkerro, Kalizan Jesukristo gure Jaunaren Odola dago, bere Gorputz,

Anima ta Jainkotasunakin, eta iru Persona Jainkozkoak ere bai.

G. Ortaz, ¿Jesukristo guzia Ostian eta Kalizan egongo da?

E. Bai jauna, Jesukristo guzia dago Ostian eta Jesukristo guzia dago Kalizan.

G. Eta Sakramentu Santuan Jesukristo gure Jauna ¿ikusten al da?

E. Ez jauna; ez da ikusten ogiaren eta ardoaren kolore ta beste aldakoiak baizik; baña ogi ta ardorik an ez dago, apaizak konsagrazioko itzak esan ezkeror.

G. Osti konsagratuaren erdia edo parte bat artzen duanak, ¿Jesukristo guzia artzen aldu?

E. Bai jauna, Guzia, oso artzen du; Jesukristo gure Jauna Ostiaren parterik chikienan osorik dagolako, Osti guzian bezela.

G. Eta Osti konsagratua apaizak puska askotan partitzen badu, Jesukristo gure Jauna ¿partitzen ote da?

E. Ez jauna, baizik Jesukristo guzia parte bakoitzean gelditzen da; andian bezela, chikian.

G. Ongi komulgatzeko ¿zenbat gauza jakin bear dira?

E. Iru jauna.

G. ¿Zer dira?

E. *Lenengoa*, zer artzera dijoan jakitea: *bigarrena*, barau osoan egotea: *irugarrena*, Jainkoaren grazian arkitzea.

KONPESIO ONAREN KONDIZIOAZ.

G. Konpesio onaren kondizioak ¿zenbat dira?

E. Bost jauna.

G. ¿Zer dira?

E. *Lenengoa*, *Esamiña*.

Bigarrena, *Dolorea*.

Irugarrena, *Propositua*.

Laugarrena, *Konpesioa*.

Bostgarrena, *Satispazioa*.

G. *Esamiña* ¿zer da?

E. Egindako pekatuak gogora ekartzea, guziak konpesatzeko.

G. Pekatuetan gogora ekartzeko ¿zenbat denbora bear da?

E. Denbora jakinik ez da; baña bakoitzat neur lezake, bere kemonai ta konpesatu gabe joan zaion aldiari begiraturik.

G. Gai ontan ¿zer ardura jarri bear da?

E. Balio andiko beste lanetan jartzen dan ardura; inportantzirik andieneko eginkizun bat, ongi konpesatzea degulako.

G. *Esamiña* ongi egiteko ¿zer egin bear da?

E. Gure Jaunari lenbizi laguntza eskatu zerbait otoitz egiñaz.

G. Pekatuetan, memorira ¿nondik ekarriko dira?

E. Jainkoaren eta Elizaren aginduetatik, zer agindu ausi dituan, eta zenbat bider gogoratuaz.

G. Eta zenbat pekatu egin diran gogoratzeko, ¿zer miatu bear da?

E. Pentsamentuz, itzez, egitez edo egingabez zenbat bider agindu oiek ausi ote diran, zearo miatu bear da.

G. Eta kontua oso ta garbiro ateratzeko, ¿zer geigo gogoratu bear da?

E. Nor bere estadu, opizio edo bizi bidean utsik egiñ ote duan ere, arretaz begiratu bear da.

G. Dolorea, ¿zer da?

E. Jainkoa openditutako damua.

G. Eta Dolorea ¿zenbat modutan da?

E. Bitan: batari Kontrizioa, ta besteari Atrizioa deritzate.

G. Kontrizioa, ¿zer da?

E. Jainkoa openditutako damua, izanik Bera aiñ ona, santu ta maitagarria.

G. Atrizioa ¿zer da?

E. Jainkoa openditutako damua, pekatuaren itsuskeriagatik, edo pekatua bide dala, zeruko gloria galdu, eta betiko inpernua merezi izan dualako.

G. Eta dolore bietan onena, ¿zer da?

E. Kontrizioa askoz ohea da Atrizioa baño.

G. ¿Zergatik?

E. Kontrizioa Jainkoaren maitetasun oso-

tik sortzen dalako, eta Atrizioa Jainkoaren beldurretik.

G. Kontrizioa daukanari zer gertatzen zaio?

E. Konpesatzeko asmoz Kontrizioa daukanari, konpesatu baño len pekatuak barkatu, ta Jainkoaren grazian gelditzen da.

G. Eta Atrizioz konpesatzera dijoanari, zer al zaizka pekatuak barkatzen?

E. Bai jauna, barkatzen zaizka; baña bere pekatuak konpesoreari esan, eta absolzioa artu ezkeror; ta ez lenago.

G. Pekatu mortalean dauden bi persona konpesatzera balijoaz, bata Kontrizioz, eta bestea Atrizioz, eta konpesatu baño lenago biak illko balira, zer gertatuko litzaeke?

E. Kontrizioz dijoana salbatu, eta Atrizioz dijoana kondenatu egingo litzake.

G. Pekatu mortalean dagoana, iltzeko peligroan, konpesore gabe arkituko balitz, pekatutik nola libratuko litzake?

E. Kontriziozko aldi bat eginda.

G. Propositua, zer da?

E. Asmo sendo bat artzea, bere bizi guzian beñere pekaturik ez egiteko, eta pekatu-rako okasio guzietatik apartatzeko.

G. Eta pekatu-rako okasiotik apartatu al ditekela, apartatzen ez danak, zegizko propositurik bai aldauka?

E. Ez jauna, baizik palsoa.

G. Konpesioaz, zer aditzen dezu?

E. Pekatu mortal guziak konpesoreari aitortzea, bat ere lotsaz utzi gabe.

G. Pekatu benialak konpesatzeko, obligaziorik bada?

E. Pekatu benialak konpesatzea obe da; baina obligaziorik ez degu.

G. Pekatu mortal bat konpesatzea azutzen bada, konpesio ona izango ote da?

E. Konpesio ona izango da, esamñaren paltaz aztu ezpaziao; baina aztutako pekatua urrengo konpesioan konpesatu bearko du.

G. Pekatu mortal bat lotsaz konpesatu gabe uzten duana, beste penitentziz salbatu al ditek?

E. Ez jauna, ezin salba ditek, Santu guziak baño penitentzi geiago egingo balitu ere.

G. Pekatariak pekatu chit larri ta ichusi bat edo asko egin balitu, zerremedioa billatu al dezake Erromara joan gabe?

E. Bai jauna, edozein konpesorek erremedioa billatu dezaioke, Erromara joan gabe.

G. Konpesoreak penitentea salatu al dezake?

E. Ez jauna, inolako moduz; bizirik dagoala erreko balute ere.

G. Beraz, pekatuak konpesatu gabe uzteko, gaitzekirik batere ez da?

E. jEz auna; eta pekatuak konpesatzen

ez dituana, bere kulpaz kondenatuko da, er-remedio gabe.

G. Satispazioa izer da?

E. Pekatuengatik zor dan pena penitentzizko obraz ordaintzea.

G. Eta satispazio au izeretan dago?

E. Konpesoreak ematen dien penitentzia artu ta kunplitzean.

G. Kunplitzeko asmoaz penitentzia artzen duanak, gero kunplitzen ezpadu, konpesio ona egiten al du?

E. Bai jauna; baña penitentzia andia bada, eta kunplitu gabe uzten duanak, pekatu mortala egiten du, eta pekatu au urrengo konpesioan konpesatu bearko du.

(Komulgatu bear dutenak guchienaz oneraño ikasi bear dute, eta egunoro pasadacho bat emanta, Errosarioko misterioak ikastea ere, chit ongarri izango lukete.)

KRISTAU DOTRIÑAREN

BIGARRRN PARTEA.

ZER ESKATU BEAR DAN EDO ELEIZ-AMA
SANTUAREN ORAZIOAK EMEN
AZALTZEN DIRA.

Zer sinistu bear dezun, badakizula, ekusi
det; au da, lenengo jakin bear dan gauza:
goazen bigarrenera, au da, zer eskatu bear
dan jakitea; esan zazu:

G. *Aita gurea*, ¿nork esan zuan?

E. Jesukristok bere aotik.

G. ¿Zertarako?

E. Guri orazio egiten irakasteko.

G. Otoitz edo Orazio egitea ¿zer da?

E. Orazioa da, biotza Jainkoagana jaso ta
mesedeak eskatzea.

G. Otoitzean ¿zer egiten da?

E. Jainko gure Jauna adoratu ta alabatu;
esker onak eman eta eskatu; Bera geigo eza-
gutu ta maite izan; gure eskergabekeriakga-
tik negar egin, eta Jesukristo gure Jaunaren
antzeko birtuteak jarraituko ditugula eskañi.

G. Otoitza ¿zenbat eratakoa da?

E. Adimenezkoa eta abozkoa.

G. Adimenezko otoitza ¿zer da?

E. Itz gabe gogoz egiten dana: gauz onen batez oroituaz: adimenez artan ongi pentsa: eta naimenez erabaki, eta asmo onak artuaz: egin kontu: pekatuko irriškotik alde egingo dedala; konpesatu ta onbiurtuko naizala, eta beste oien antzekoak.

G. Abozko otoitza zer da?

E. Itzez egiten dana: egin kontu; Errosarioa erreztatzea.

G. Otoitz egitea zer gauza bearra al da?

E. Bai Jauna, eta otoitz egin nai ez duana, gaizkindu edo kondenatuko da; eta Jainko Berak otoitz egiteko agintzen digu.

G. Eskatzen dioguna, Jainkoak emango digula, zuste osoa ichegon algenezake?

E. Bai jauna, Jainko Berak agindu duakako; batez ere Bere adiskidetasunean arkitzen geranean.

G. Eta zenola inoiz eskatzen dioguna Jainkoak ematen ez digu?

E. Ori gertatzen da, gure onerako egoki ez dalako, edo gaizki eskatzen diogulako.

G. Otoitz zer ongi nola egiten da?

E. Arretaz eta icharopenez; umiltasun eta iraupenez.

G. Eta guzi ori ezin dezakenak, zer egin bear du?

E. Alduana egin, eta otoitzean iraun.

G. Lagun askok alkarrekin otoitz egitea, zer gauz ona al da?

E. Bai jauna, chit ona; eta baita bakarrean otoitz egitea ere gauz ona da.

G. Jainkoak gure agurmen eta otoitzak, ¿zertako bear ditu?

E. Ezertako ez; guk ordea guzirako Jainkoa bear degu; eta Jainkoak nai du, gorputz eta animaz Bera onra dezagula.

G. Pater noster esaten dezunean ¿norekin itz egiten dezu?

E. Jainko gure Jaunarekin.

G. Jainko gure Jauna, ¿non dago?

E. Leku guzietan, batez ere zeruan eta Aldareko Sakramentu Santuan.

G. Orazioetan onena, ¿zer da?

E. Aita gurea.

G. ¿Zergatik?

E. Apostoloak eskatu, ta Jesukristok bere aotik esan zualako.

G. Geigo ¿zergatik?

E. Zazpi eskari karidade guzian jarriak ditualako.

G. ¿Zer dira?

E. *Lenengoa*, santifikatua izan bedi zure izena.

G. Eskari ortan, ¿zer eskatzen dezu?

E. Jainkoaren izena mundu guzian ezagutua ta onratua izan dedilla.

G. *Bigarrena*, ¿zer da?

E. Betorkigu zure erreinoa.

G. Eskari ortan, ¿zer eskatzen dezu?

E. Jainkoa nagusi izan dezagula gure animetan emen lurrean graziz, eta gero gloria eman dizagula.

G. *Irugarrena*, zer da?

E. Egin bedi zure borondatea, zeruan bezela lurrean ere.

G. Eskari ortan, zer eskatzen dezu?

E. Jainkoaren borondatea lurrean gaudenak ere egin dezagula, zorionekoak zeruan egiten duten bezela.

G. *Laugarrena*, zer da?

E. Gure eguneroko ogia gaur eman zaiguzu.

G. Eskari ortan, zer eskatzen dezu?

E. Gorputzarentzat mantenu ongi dago-kiguna Jainkoak eman dizagula, ta animarentzat grazizko mantenua ta Sakramentuak.

G. *Bostgarrena*, zer da?

E. Barkatu gure zorrak, guk ere zordunai barkatzen diztegun bezela.

G. Eskari ortan, zer eskatzen dezu?

E. Gure pekatuak Jainkoak barka ditzaizkigula, gaizki egiten digutenai guk barkatzen diztegun bezela.

G. *Seigarrena*, zer da?

E. Ez utzi tentazioan erortzen.

G. Eskari ortan zer eskatzen dezu?

E. Pentsamentu ta tentazio gaiztoetan erortzen, ez dizagula utzi Jainko gure Jaunak.

G. *Zazpigarrena*, zer da?

E. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.

G. Eskari ortan ¿zer eskatzen dezu?

E. Animako ta gorputzeko gaitz eta peli-
gro guzietatik libra gaitzala Jainko gure Jau-
nak.

G. *Aita gurea zeruetan zaudena* ¿zergatik
lenengo esaten dezu?

E. Biotza Jainkoagana jaso, eta umiltasun
eta konpianztaz mesedeak eskatzeko.

G. *Amen* aizkenean esaten dezun itz ark,
¿zer esan nai du?

E. Ala izan dedilla.

G. Ama Birjiñari batez ere, ¿zer orazio
esaten dizkatzu?

E. *Ave Maria ta Salvea*.

G. Lenen aldiz *Ave Maria* ¿nork esan zuan?

E. Gabriel Aingeru Santuak, Maria Birji-
ña bisitatzerara etorri zanean.

G. *Salvea* ¿nork esan zuan?

E. Ama Eliza Santuak bereturik dauka.

G. ¿Zertako?

E. Aingeruen Erregiñ Maria chit Santuari
mesedeak eskatzeko.

G. *Ave Maria* edo *Salvea* esaten dezunean
¿norekin itzegiten dezu?

E. Gure Señora Maria Birjiñarekin.

G. Gure Señora Maria Birjiña ¿nor da?

E. Señora bat bertutez eta graziz betea;
zeruan dago ta Jainkoaren Ama da.

G. Eta aldarean dagoana ¿nor da?

KRISTAU DOTRIÑAREN

IRUGARREN PARTEA.

ZER EGIN BEAR DAN, EMEN AZALTZEN DA.

Zer sinistu bear dezun eta zer eskatu bear dezun, badakizula ekusi-det: ekusi dezagun orain, nola dakizun kristaua bezela, zer egin bear dezun. Esan zazu:

G. Jainkoaren legeko lenengo agindua ¿zer da?

E. Gauza guzien gañean Jainkoa amatzea.

G. Jainkoa ¿nork amatzen du?

E. Aren agindu santuak gordetzen dituenak.

G. Jainkoa gauza guzien gañean amatzea, ¿zer da?

E. Guziaz galdu naigo izatea, Jainkoa open-ditu baño.

G. Agindu onek ¿zertara beartzen gaitu?

E. Gorputz eta animako erreberentzi guziaz Jainkoa bakarrik adoratzera, Fede osoz Beragan sinistu ta esperatzen degula.

G. Agindu onen kontra ¿nork pekatu egi-ten du?

E. Idolo edo Jainko paltsoak adoratu edo aiētan sinisten duanak.

G. Eta ¿nork geigo?

E. Aztikeri, zorginkeri, edo eragabeko gauzetan sinisten duanak.

G. Fedearen kontra ¿nork pekatu egiten du?

E. Fedeko egiren bat ukatu, edo alotean jartzen duanak.

G. Eta ¿nork geigo?

E. Ukatu gabe, aitortu bearrean, ez sinistu bezela egin: adoramena paltsoetan parte artu; Fedearen etsaia lagundu; edo katoliko ez diran dotriñak irakurri, pagatu edo zabalitzen dituztenak.

G. Eta ¿nork geigo?

E. Bear ainbat dotriña ez dakianak, eta Fedearen kontrako gauzak alegiñaz eragozten ez dituanak.

G. Esperantzaren kontra ¿nork pekatu egiten du?

E. Jainkoaren errukiaz etsi, edo esperantza galtzen duanak, edo Jainkoaren errukiaz uste geiegi artzen duanak.

G. Agindu onen eran, Karidadearen kontra pekatu ¿nork egiten du?

E. Inpernuko deabruaren antzera, Jainkoari edo Jainkozko persona edo gauzai gorroto diotenak.

BIGARREN AGINDUA.

G. Bigarren agindua zer da?

E. Ziñ edo juramentu alperrik ez egitea.

G. Ziñ edo juramentu egitea zer da?

E. Jainkoa testigutzat jartzea.

G. Ziñ edo juramentu alperra inork egiten du?

E. Egi gabe, justizi gabe edo premi gabe, juramentu egiten duanak.

G. Egi gabeko juramentua zer pekatu da?

E. Pekatu larria, naiz eta gai chikian izan, gezurretan ari dala oartu ezker.

G. Alotean juramentu egiten duanak, inpekatu larria egiten ote du?

E. Bai jauna, gezurretan juramentu egiteko irriskoan jartzen dalako.

G. Justizi gabe juramentu alperra inork egiten du?

E. Gauza gaiztoa egingo duala, ziñ edo juramentu egiten duanak.

G. Eta orrelako juramentuaz zer pekatu egiten da?

E. Gaiztakeri andiz bada, pekatu larria; eta bestela pekatu arina.

G. Eta orrelako juramentuak, pekatu arin larriak inergatik dira?

E. Gezur edo gaiztakeriaren alde Jainkoa testigutzat jartzea lotsagabekeri andia dalako.

G. Eta gaiztakeri batez juramentu egin duanak, zer egin bear du?

E. Egindako juramentuaz damutu, eta ez osatu.

G. Premi gabe juramentu egitea, zer pekatu da?

E. Egiz eta justiziz baldin bada, pekatu beniala.

G. Eskañi on edo promesak ez betetzea, edo luzaroko uztea, pekatu znoiz izango da?

E. Gizon adituen iritzian, orretarako motiborik ez danean.

G. Promes edo botoa zer da?

E. Ez egitea baño, egitea ohea dan gauza bat, Jainkoari eskaintzea.

G. Eta zenbaitek Santuai promesak zno-la egiten dizte?

E. Promes oiek ez dira santuai eginak; baizik Jainkoari santuen bitartez.

G. Blasfemi edo arnegua zer da?

E. Jainkoaren, Ama Birjinaren edo Santuen kontra itz desondragarriak esatea; eta ori, eriozko pekatu ikaragarria da.

IRUGARREN AGINDUA.

G. Irugarren agindua zer da?

E. Jai-egunak santifikatzea.

G. Jai-egunak znozk santifikatzen ditu?

E. Meza osoa entzun, eta beretan premi andi gabe lanik egiten ez duanak.

G. Eta lana eman edo eragiten duanak, ¿pekatu egiten ote du?

E. Bai jauna, berak egingo balu bezela, eta geigo; gaitz-bidea ematen dualako.

G. Eta Jai-egunetan premi andi gabe lan egitea, ¿zer pekatu da?

E. Pekatu larria, batez ere besteai gaizki irakasten bazaie, edo bi ordu baño geigo luzatzen bada.

G. Eta Meza entzun ezker, ¿Jai-eguna alperkerian igaro al ditek?

E. Ez jauna; baizik premizko zer-egiaz gañera, sermoiak entzun, dotriña ikasi edo irakatsi, Sakramentuak artu, liburu onak irakurri, errosario, gurutze-bide ta beste debozioak egin, eta lagun-urkoaren onerako miserrikordizko egintzetan aritzea, egoki izango da.

G. Eta Jai-egunetan ¿jostatu al ditek?

E. Bai jauna, jolas ori geiegizkoa ezpada, eta Jainkoaren opentsarik ezpadakar.

G. Eta lanen bat egin ote ditek edo ez jakiteko, ¿zer egin bear da?

E. Bere anima-zai edo Parroko jaunari galdetu.

(Jai-egunak bear bezela gordetzen ezpadira, Jainkoaren kastiguz, erri ta echeetara zorrigaitz andiak etortzen dira.)

LAUGARREN AGINDUA.

G. Laugarren agindua zer da?

E. Aita eta Ama ondratzea.

G. Gurasoak zer ondratzen ditu?

E. Obeditu, lagundu eta begiramen ona gordetzen dienak.

G. Gai ortan pekatu larria zer egiten du?

E. Echeko gobernu ta oitura onezko gauzetan gurasoai obeditzen ez dienak; premi-al-dietan laguntzen ez dienak; itz gaizto edo biraoak esan, burla egin, eskua jaso, edo beste charkeriren bat egiten dienak; eta agitz gurasoen bendizio edo oniritzi gabe ezkontzeko asmoetan dabiltzanak.

G. Ait eta Amaz gañera, gurasotzat zer besterik ezagutu bear da?

E. Beren ordañezko guziak, eta hategi ere, Eleiz-gizonen eta gizartean buru edo nagusi egiten dutenak.

G. Guraso edo nagusiak zer tokian daude?

E. Jainkoaren tokian; bidezko nagusitasun guzia Jainkoagandik datorrelako.

G. Eta nagusiak gauza gaizto bat agintzen badute, zer egin bear da?

E. Gauz gaiztoa agintzen duanak, pekatu egiten du, eta etzaio obeditu bear; gizonai baño len Jainkoari obeditu bear zaiota.

G. Agintedun gaiztoaren kontra alchatzea, ¿bidezko gauz ona ote da?

E. Ez jauna, bere gaiztakeriak aginpidea kentzen ez diolako.

G. Gurasoak umeai ¿zer zor diote?

E. Mantenu ta irakaspide ona; gaiztotu ez ditezen begiratu; okertzen badira zuzendu; gertari edo ejemplo ona eman, eta umeak geiegi gogaitu gabe, bizi-bide on batean jarri.

G. Gizon ezkonduak beren emazteakin ¿nola izan bear dute?

E. Naitasun eta begiramen onez, Kristo Eleizarekin bezela.

G. Eta emazteak senarrakin ¿nola izan bear dute?

E. Naitasun eta obedientziz, Eleiza Kristorekin bezela.

G. Eta nagusi-echekoandreak mirabeakin ¿nola izan bear dute?

E. Mirabeak ere Jainkoaren umeak dirala oartu, eta lurreko nagusiak ez-ezik, Jainkoa ere ongi serbitu dezaten, ardura iduki bear dute.

G. Eta mirabeak nagusiackin ¿nola izan bear dute?

E. Bere nagusietan Jainkoa serbituko balute bezela.

G. Eta nagusi edo agintedunak, geienbat ¿zertara daude beartuak?

E. Jainkoaren ordaneko diran bezela,

zerbait neke eramanik ere, mendekoen egizko onari begiratu bear diote.

G. Eta gobernariak bere erriko animen onari, ¿begiratu bear al diote?

E. Bai jauna, eta zuzentasun eta oitura onak gordeaz, Eleizari laguntzen ezpadiote, pekatu larria egiten dute; eta guzion Jauna dan Jainkoaren opensa agiriko ta eskandaloak, al dutelarik, eragotzi ta kastigatu bear dituzte.

BOSTGARREN AGINDUA.

G. Bostgarren agindua ¿zer da?

E. Inor ez iltzea.

G. Agindu ontan ¿zer agintzen da?

E. Inori gaitzik ez egitea, ez itzez, ez egi-
tez eta ez gogoz.

G. Agindu onen kontra pekatu ¿nork egiten du?

E. Norberari edo besteri eriotz edo gaitz andiren bat opa dionak, edo gorroto izan, edo gaizkilleari barkatu nai ez dionak.

G. ¿Nork geigo?

E. Bestea ill, eritu edo golpatzen duanak.

G. Eta ¿nork geigo?

E. Orditu, edo osasunaren kalte andiz jan edo edaten duanak; premi andi gabe, bizia galtzeko irriskoan jartzen danak; eta bere bu-
ruari edo besteri birao egiten dionak.

G. Birao egitea ¿zer da?

E. Nork beretzat edo besterentzat gaitz bat eskatzea, esanaz, egin kontu; bertan ilko al aiz.

G. Birao egitea, ¿zer pekatu da?

E. Gaitz andia opa izan ezkerro, pekatu larria.

G. Eta ¿gaitz andirik opatzen ezpada?

E. Pekatu ariña; baña ez beti.

G. Eta gaitz andirik opatu gabe birao egitea, pekatu larria ¿noiz izango da?

E. Batez ere pekatu larria egiten dute, guraso edo nagusiak beren ume edo mende-koen aurrean biraoak esaten dituztenean; eta birao egiteko oitura iduki, eta oitura gaizto ori kentzeko alegiñik egiten ez dutenak.

G. Eta ori pekatu larria, ¿zergatik izaten da?

E. Beren itz eta egintz gaiztoz gaitzbide edo eskandalo andia ematen dutelako.

G. Eskandaloa, ¿zer da?

E. Nork bere kulpaz besteri pekaturako bidea ematea.

G. Eta eskandaloa, ¿nola ematen da?

E. Aginduz, alabatuz, irakatsiz, eragotzi bear dana ez eragotziz, eta beste modu askotara.

(Orrela pekatu egin oi dute lege gaiztoak jartzen dituztenak, edo orretarako botoak ematen dituztenak, paper charrak izkribatu,

erosi, zabaldu, dotriñ okerrak irakasten dituztenak, eta oien antzekoak.)

G. Bidegabekeriz gaitz bat egiten duana, ¿zertara dago beartua?

E. Gaizki egin dion ari ordaiñ ona ematera.

G. Arrazoi gabe bizia kentzera datorkiona, besteak illko balu, ¿pekatu egingo ote luke?

E. Ez jauna; eta gerra justuan iltzen duanak ere, ez du pekatu egiten.

G. Nork bere buruari eriotza deseatzea, ¿pekatu ote da?

E. Asmo onez eta bere naia Jainkoarenaz bat egiñik, eriotza deseatu, eta eskatzea ez da pekatu.

G. Sabeleko aurra galtzeko edo aborto bat izateko alegin egitea, ¿zer pekatu da?

E. Pekatu guziz andia.

G. Desapio egitea, ¿zer pekatu da?

E. Alkar iltzeko edo gaitz andiren bat egiteko bada, pekatu larria; eta orretarako nola nai laguntzen dutenak ere, guziak eskomulgaturik geratzen dira.

SEIGARREN AGINDUA.

G. Agindu onen kontra, pekatu larria ¿nork egiten du?

E. Ezagüera osoz eta atsegiñez gauza de-

sonestoak pentsatu, esan, entzun, irakurri edo begiratzén dituanak; eta nork bere buruarekin edo besterekin ukitze loi, edo gauza ichusiak egiten dituanak.

G. Garbiak izateko erabide onak, ¿zer dira?

E. Orazioa, Sakramentuak maiz artzea, lan eta lagun onak.

G. Eta ¿zer geigo?

E. Jan-edanean kontuzkoa izatea, gorputza ilduratu, eta begi eta beste sentimenak gordetzea.

G. Garbitasunaren kaltegarriak ¿zer izan oi dira?

E. Jan-edan geiegiak, bišita, izketa eta erretiro charrak, alperkeri, liburu eta paper gaiztoak.

G. Eta bide kaltegarri oietatik iges egiten ez duanak, ¿zer pekatu egiten du?

E. Baldin borondatez norbera edo besteren bat irriško andian jartzen baditu, pekatu larria.

«Orrela oraingo teatro asko, dantza eta zenbait jaskera pekatu larri, eta eskandalo andi izan oi dira».

ZAZPIGARREN AGINDUA.

G. Zazpigarren agindua, ¿nork ausitzen du?

E. Arrazoirik gabe, ondasunetan inori kalte egiten dionak, edo kalte egiten laguntzen duanak.

G. Besteren gauza daukana, edo besteri kalte egiten lagundu duanak, konpesatzea asko aldu barkatzeko?

E. Ez jauna, al bait lasterren zor duana ordaindu bear du, eta guzia ezpadezake, alduan partea.

G. Eta ezin dezakenak, zer egin bear du?

E. Al bait lasterren alduana pagatzen saiatu.

G. Okerrik egin ote dezun ezagutzeko, modu erraza bai al dakizu?

E. Bai jauna, bestearen tokian nerau jarri; eta ala ere alotean banago, ongi dakin bati galdetu.

G. Tratuetan, korrituko diruetan eta beste onelako gauzetan, gizonen legeak kastigatzen ez duana, zontzat eman ote ditek?

E. Ez jauna: Jainkoak eragozten duan guzia pekatu dalako.

G. Testamentario edo Jabe-gaiak, testamentuan agintzen dana kunplitzen ezpadu, zpekatu egiten ote du?

E. Bai jauna: geienetan zazpigarren agindu onen kontra, eta inoiz laugarren eta bostgarrenaren kontra ere bai, zuzentasun, erruki eta onginaiaaren kontra dijoanean.

ZORTZIGARREN AGINDUA

G. Agindu au, ¿nork ausitzen du?

E. Laguna arinkeriz edo arrazoi gabe juzgatu, pama kendu, sekretoaz azaldu, ta gezurra esaten duanak; baita ere premiz edo asmo onez ez baldin bada, gauza charrak esan, izkribatu edo gogoz entzuten dituanak.

G. Egiñ ez duana egotziaz, edo egiña; baña gordea zegoana zabalduaz, urkoari izen on edo pama kentzen duanak, ¿zer egin bear du?

E. Alduan eran pama biurtu, eta kalteak zuzentzera beartua geratzen da.

G. ¿Eta konpesatzea ez aldu asko izango?

E. Ez jauna; kendua biurtu gabe, pekatua ez da barkatzen.

G. Gaizki esaleari gogoz entzuten dionak ¿pekaturik egiten al du?

E. Pozkida artzen badu, bai jauna.

G. Asmo onez, ¿gezurra esan al ditek?

E. Beñere ez jauna; baña egia estali ditek, galdetzen duanak gugandik jakiteko eskubiderik ezpadauka.

G. Sekreto edo isillik gorde bear zana agertzea ¿pekatu ote da?

E. Bai jauna; pekatu izan oi da; baña iñoiz gauz onen baterako bear balitz, azaldu ditek.

G. Gezurra esatea, ¿zer pekatu da?

E. Juramentuan azpian ezpada, eta gaitz andirik ezpadakar, pekatu beniala.

BEDERATZIGARREN ETA AMARGARREN

AGINDUAK.

G. Bederatzigarren eta amargarren agin-
duetan, ¿zer eragozten da?

E. Aragizko atsegiñen eta munduko on-
dasunen zale eragabeak.

G. Aizkeneko bi agindu abek, ¿zertako
dira?

E. Seigarren eta zazpigarren aginduak
argirogo adierazteko.

G. Besteak baño geigo bide onez iduki
nai izatea, ¿pekatu ote da?

E. Eragabez edo geiegiz baldin bada, bai
jauna; baño bestela ez da pekatu.

G. Aragizko atsegiñen edo beste gauz
debekatuena zalez, ¿pekatu nork egiten du?

E. Gauza debekatuak egiteko asmoetan
jartzen danak, eta oietan borondatez atsegin
artzen duanak.

*Amar agindu oietan sartzen diran oarkera
batzuek:*

1.^a Urkoarekin izan gaiteala, aiek gure-
kin izatea nai degun bezela.

2.^a Ez beñere gaizkirik egin, andik gauz on bat sortuko dalakoan.

3.^a Bakoitzak bere estadu edo bizibideko lanak ongi egin, eta baita Elizak edo beste edozein nagusik, dagokion guzian, agintzen duana egitera ere, guziok beartuak gaude.

ELEIZ AMA SANTUAREN AGINDUEN

AGERKERA.

G. Eliz Ama Santuaren aginduak zertako dira?

E. Jainkoaren aginduak obeto gordetzeko.

G. Igande ta beste jaietan *Meza* entzutera zzein daude beartuak?

E. On-gaitzen ezagüeran sartutako kristau guziak, al duten guzian.

G. Motibo justu Igabe gande-Jaietan *Mezik* gabe gelditzea zer pekatu litzake?

E. Pekatu larria.

G. *Meza* zñola entzun bear da?

E. Arretaz, egoera onez, eta begiramen andiz.

G. Baña, *Meza* ongi entzuteko zer erreztu bear da?

E. Orretarako liburuak dakartena.

G. Eta zirakurtzen ezpadaki, edo liburutik entzun nai ezpadu?

E. Entzun lezake *Meza*, Jesusen Pasio santuan pentsatuaz, Errosarioa edo *Aita gureak* esanaz, eta beste modu askotan.

G. Bigarren aginduko *Konpesioak* zenbat urtetik aurrera obligatzen gaitu?

E. Pekatu larria egiteko, bat kapaz dantetik, naiz zazpi urte ez izan.

G. *Komunio Santua* artzeak ¿noiztik obligatzen du?

E. Parrokoan iritzian artarako kapaz daretik.

G. Prestaerik ¿bear al du?

E. Bai jauna, batik bat dotriña ondo ikasiaz, eta ondo komulgatzeko bear diran gauzak lendaztanik egiñaz, prestatu bear du.

G. Komulgatu litekela, urteko Pazkoetan komulgatzen ez danak, ¿zer pekatu egiaten du?

E. Pekatu larria.

G. Eta konpesatu gabe Pazkoa igaro ezkero, urrengo urterako ¿libre al dago?

E. Ez jauna, lenbaitlen komulgatzera beartua legoke, bear zan denboran zor bat pagatu etzuana bezela.

G. Pazkoetako komunioa ¿non egin bear da?

E. Bakoitzak bere parrokian.

G. *Barauaren* aginduak ¿zein beartzen ditu?

E. Ogei ta bat urte osatutako kristauak, al dutelarik.

G. Beraz, baraua uzteko ere, ¿motiboak izan ditezke?

E. Bai jauna, Eleiz-Amak iñori beñere eziñik eskatzen ez diota.

G. Ta motibo oiek ¿zertzuk dira?

E. Batzuetan gaitza ta argaltasuna, beste-

tan zarzaroa, lan neketsua, ta oien antzeko beste asko.

G. Obligatua edo libre ote dagoan jakiteko, zer egin lezake batek?

E. Bere anima-zai edo konpesoreari galdetu.

G. Gurutzadako ta aragi-buldak idukita ere, aragia debekatua daukagun egunen batzuek bai al dira?

E. Guchi bederik, badira jauna.

G. Esan itzatzu?

E. Auster eguna; garizumako ostiralak, aste santuko asteaizken, ostegun ta larunbata; Eguberri, Izpiritu Santuaren Pazko, Pedro ta Paulo apostolo santuen, eta Ama Birjinaren Jasoerako bezper-egunak. Oiek bijili osoak dira, barau bearrez gañera.

G. Bijili ain gorrikoak ez diran barau egunak ere esan itzatzu?

E. Esandako guziak barau egunak dira; gañera Garizumako egun guziak, igandez aparte; urteko lau denboretan (1) asteaizken, ostiral eta larunbatak, abenduko ostirak-larunbatak, Santiago ta Santu guzien aurreko egunak ere bai.

G. Barau-egunetan Buldaren bidez aragia jan dezakenak, au arraiz enastu al dezake?

E. Jatordu batean ez jauna; ezta Garizumako igandeetan ere.

(1) Oyetatik bat Garizuman sartuba dago.

G. Aragirik ez jateko debekua, ¿ogei ta bat urte osatutako kristauentzat bakarrik al da?

E. Ez jauna: zazpi urtez goitikako kristau guziak obligatzen ditu, gaitz edo kalte larriren batek libratzen ezpaditu.

G. Lege oiek ausiaz ¿zer pekatu egiten da?

E. Pekatu mortala, gaiaren eran.

G. Jainkoaren Elizari kristauak ¿zer zor dio?

E. Umeak gurasoai zor diona, au da, obedientzia, laguntza ta begiramen ona.

G. Orretarako ¿zer egin bear degu?

E. Batez ere Eliz-gizonen lanak ordaindu, Eliz-eche egokiak jaso, edo len jasoak oñean iduki, eta Elizkizunak ongi egiten lagundu.

G. Gai ori lenago ¿nola betetzen zan?

E. Amarren eta primiziz.

G. Eta ¿orain?

E. Aita Santuakin alkar-adituta, Gobernuak Elizari kendu zizkan ondasunak nola-bait ordainduaz.

G. Eta Gobernuak eginkizun ori utziko balu ¿zer egin bearuko ote litzake?

E. Kristau leialak egiñal guzian bete bear-ko genduke, Elizaren agindua jarraituaz.

KRISTAU DOTRIÑAREN

LAUGARREN PARTEA.

ARTU BEAR DIRAN SAKRAMENTUAK EMEN AZALTZEN DIRA.

Ekusi det nola dakizun zer sinistu, zer eskatu, eta zer egin bear dezun. Ekusi dezagun orain nola dakizun, zer artu bear dezun; auzē da aizkenekoa. Esan zazu:

G. Sakramentuak ¿zer gauza dira?

E. Jesukristo gure Jaunak jarri zituan siñale batzuek, oien bidez bere grazi ta bertuteak guri emateko.

G. Grazia ¿zer da?

E. Jainkozko izate bat, gizona Jainkoaren seme ta zeruaren jabe-gai egiten duana.

G. Grazi orri ¿nola deritza?

E. Grazi santugillea.

G. Grazi santugilleaz gañera, beste grazi motarik ¿bai al da?

E. Bai jauna, badira aldiko grazi, laguntz eta biotz-ukiak izendatzen ditugunak; eta grazi oiek gabe betiko bizitzarako gauzik, ezin gentzake asi, ez jarrai eta ez bukatu.

G. Eta grazi oiek ¿zer dira?

E. Jainkoak ematen dizkigun laguntasunak: ala dira sermoiak, gertari onak, ustegabeko eriotzak eta gaizkeria utzi ta onbidcari

jarraitzeko, Jainkoak biraltzen dizkigun biotz-argi ta biotz-mugidak.

G. Sakramentuak graziaz batean ¿zer bertute ematen dituzte?

E. Batez ere iru Jainkoaganakoak.

G. ¿Zer dira?

E. Fedea, Esperantza ta Karidadea.

G. Fedea ¿zer da?

E. Ikusi ez genduana sinistea, Jainkoak ala agertu dualako.

G. Esperantza ¿zer da?

E. Jainkoaren graziaren eta gure obra onen birtatez, Gloria ta betiko ondasunak esperatzea.

G. Karidadea ¿zer da?

E. Gauza guzien gañean Jainkoa amatzea, eta gure projimoa geren buruak bezela, aiekin izaten gerala, aiek gurekin izatea nai degun bezela.



G. Bataioko Sakramentua gertako da?

E. Jatorrizko pekatua kentzeko, baita bataiatzen danagan arkitzen dan beste edozer pekatu ere.

G. Jatorrizko pekatua zer gauza da?

E. Gure lenengo gurasoetatik datorkigun pekatua.

G. Premi danean zenok bataiatu dezake?

E. Ezagüera duen edozeñek.

G. Eta zenola bataiatzen da?

E. Aurraren buru gainera ur pisca bat isuriaz, eta bataiatzeko asmoz itz abek esaten dirala: «Nik bataiatzen zaitut, Aitarene, eta Semearene, eta Izpiritu Santuarene izenean.



G. Konfirmazioko Sakamentua izertako da?

E. Bataioan artutako Fedean gu konfirmatu ta sendotzeko.



G. Penitentziko Sakramentua izertako da?

E. Bataiatu ezkeru egindako pekatuak barkatzeko.

G. ¿Zer pekatu dira oiek?

E. Pekatu mortalak batik bat, baita benialak ere.

G. Pekatu mortal edo eriozkoa ¿zer da?

E. Da e-atéa, egitea, pentsatzea, deseatzea, edo uztea zerbait Jainko gure Jaunaren lege santuaren kontra gauza larrian.

G. Mortala edo eriozkoa ¿zergatik deritza?

E. Egiten duanaren anima iltzen dualako.

G. Pekatu mortala kentzeko, penitentziak ¿zer parte ditu?

E. Iru jauna.

G. ¿Zer dira?

E. Biotzeko kontrizioa, aozko konpesioa, ta obrazko satispazioa.

G. Pekatariak pekatu mortalean erortzen dan guzian, ¿bereala konpesatu bear al du, pekatuak barkatzeko?

E. Ongi izango litzake; baña ez da premizkoa.

G. ¿Zer egin bear du bada?

E. Bere pekatuen egizko dolorea iduki, onbiurtu, eta albait laizterren konpesatzeko asmoz.

G. Pekatu beniala ¿zer da?

E. Pekatu mortalerako prestaera edo bide bat.

G. Beniala ¿zergatik deritza?

E. Gizona artan erraz erortzen dalako, eta erraz barkatzen zaiolako.

G. ¿Zenbat gauzogatik barkatzen da?

E. Bederatzigatik.

G. ¿Zer dira?

E. *Lenengoa*: Meza entzuteagatik:

Bigarrena: Komulgatzeagatik.

Irugarrena: Ni pekataria esateagatik.

Laugarrena: Obispoaren bendizioagatik.

Bostgarrena: Ur bedeinkatuagatik.

Seigarrena: Ogi bedeinkatuagatik.

Zazpigarrena: Aita gurea esateagatik.

Zortzigarrena: Sermoia aditzeagatik.

Bederatzigarrena: Pechuko golpeakgatik, Jainko gure Jaunari barkazioa eskatzen zaiola.

G. Induljentziak ¿zer dira?

E. Bizitz ontan edo Purgatorioan pekatuakatik pagatu bear diran penen barkamena.

G. Eta barkamen oiek ¿nondik ematen zaizkigu?

E. Jesukristok eta Santuak igaro zituzten balio andiko penen ondasunetatik.

G. Eta induljentziak ¿nola irabazten dira?

E. Orretarako agintzen dana, Jainkoaren grazian egiñaz.

G. Eta mundu ontan pekatuen zorra ordaindu gabe Purgatoria dijoazenai, ¿guk lagundu al dezaiokegu?

E. Bai jauna, gure pekatuen zorra ordaintzeko egin giñitzaken lan onak, aiekatik eskañiaz.

(Goizoro eta maiz gure lan eta nekeak Jainkoari eskaintzea chit ona da, gerontzat eta Purgatorioko animen alde induljentiak irabazteko.)

G. Aginduzko eta naiarazko egintz onak-gatik, kristabak zer iristen du?


E. Bere onerako egoki bada, bizitz ontarako eta besterako laguntzak iristen ditu: eta Jainkoaren grazian badago, grazia eta gloria geitu eta bere pekatuen zorrak ere ordaintzen ditu.

G. Eta zergatik diozu, Jainkoaren grazian badago?

E. Pekatu mortalean egiten diran lan onak, merezigarri ta ordaingarri izaten ez diralako.

G. Eta pekatu mortalean egindako lan onaz zer alda ezer iristen?

E. Pekatu mortalean egonakatik lan onak egitea beti ongarri da; batez ere konpesio on bat lenbaitlen egiteko laguntza irichi dezan.



G. Komunioko Sakramentua ¿zertako da?

E. Bear dan prestaeraz artzen degula, gure animen mantenua izan dedin, eta Jainkoaren grazia geitu dizagun.

G. Sakramentu Santu ontan ¿zer artzen da?

E. Jesukristo gure Jauna, egizko Jainko ta Gizon, Sakramentu Santu aldarekoan egiz dagoana.



G. Extrema-Untzioko Sakramentua ¿zertako da?

E. Iru gauzetarako.

G. ¿Zer dira?

E. *Lenengoa*: Bizitz gaizto pasatuaren arrasto ta kutsuak kentzeko.

Bigarrena: Demonioaren tentazioen kontra animari indarra emateko.

Irugarrena: Gorputzari osasuna emateko gaisoari konbeni bazaio.



G. Sakramentu Santu ordenakoa izer-tako da?
E. Sazerdote, Diakono, ta beste Elizako Mi-
nistro egokiak konsagratu ta ordentzeko.



G. Matrimonioko Sakramentu santua izer-
tako da?

E. Ezkontzeko ta ezkonduai grazia emateko, pakean bizi ditezen, eta ume onak zerurako azi ditzaten.

G. Eta ezkontzeko ¿nola prestatu bear da?

E. Konpesio on bat eginda.

PEKATU KAPITALAK

ZAZPI DIRA.

Lenengoa: Soberbi edo antustea.

Bigarrena: Abarizi edo zikutskeria.

Iruugarrena: Lujuri edo loikeria.

Laugarrena: Ira edo aserrekeria.

Bostgarrena: Guleri edo jalekeria.

Seigarrena: Inbidi edo bekaitza.

Zazpigarrena: Nagikeria.

G. Geienean mortalak esaten zaien zazpi oiei ¿zergatik deitu diezu pekatu kapitalak?

E. Kapitalak deitu diet, beste gaiztakeri askoren buru, iturri ta sustrai bezela diralako; eta mortalak deitzea ez dator ain ongi; askotan benialak baizik ez diralako.

G. Mortalak ¿noiz dira?

E. Karidadearen kontra diranean.

G. Karidadearen kontra ¿noiz dira?

E. Jainkoaren edo Elizaren aginduen bat gauza larrian austen danean.

G. Soberbi edo antustea ¿zer da?

E. Besteak baño geigo izateko gurari eragabea.

- G. Zikutskeria ¿zer da?
E. Munduko ondasunen gurari eragabea.
G. Loikeria ¿zer da?
E. Aragiaren atsegiñ loien zalekeri eragabea.
G. Aserrekeria ¿zer da?
E. Bengatzeko gurari eragabea.
G. Guleria ¿zer da?
E. Jateko ta edateko gurari eragabea.
G. Inbidi edo bekaitza ¿zer da?
E. Besteren onaren damua.
G. Nagikeria ¿zer da?
E. Lan onak egiteko atzerapena.

ZAZPI BIZIO OIEN KONTRA

ZAZPI BIRTUTE DIRA.

- Antustearen kontra, Umiltasuna.*
Zikutskeriaren kontra, Opatasuna.
Loikeriaren kontra, Garbitasuna.
Asarrekeriaren kontra, Pazientzia.
Guleriaren kontra Gogiroa.
Bekaitzaren kontra, Onginaia.
Nagikeriaren kontra, Bizkortasuna.
-

BERTUTE KARDINALAK

LAU DIRA.

- Lenengoa*, Prudentzia edo begiramena.
Bigarrena, Justizia edo zuzentasuna.
Irugarrena, Fortaleza edo indartea.
Laugarrena, Tenplanza edo gogiroa.

IZPIRITU SANTUAREN DOAIK

ZAZPI DIRA.

- Lenengoa*: Jakindurizko doaia.
Bigarrena: Adimentuzko doaia.
Irugarrena: Epai onezko doaia.
Laugarrena: Ezagüerazko doaia.
Bostgarrena: Indartezko doaia.
Seigarrena: Errukizko doaia.
Zazpigarrena: Jainkoaren beldurrezko do-
aia.

IZPIRITU SANTUAREN FRUTUAK

AMABI DIRA.

- Lenengoa*: Karidadea,
Bigarrena: Pakea.
Irugarrena: Animaren egokida.
Laugarrena: Ongiroa.
Bostgarrena: Sinismena.
Seigarrena: Eutsikida.

Zazpigarrena: Gozotasuna.

Zortzigarrena: Pazientzia.

Bederatzigarrena: Ontasuna.

Amargarrena: Mansotasuna.

Amaikagarrena: Modestia.

Amabigarrena: Kastidade edo garbitasuna.

ZORIONTASUNAK

ZORTZI DIRA.

1. Zorionekoak biotzez pobre diranak, zeruetako erreinoa berena dalako.
 2. Zorionekoak mansoak, lurraren jabe berak izango diralako.
 3. Zorionekoak negar egiten dutenak, pozkidatuak izango diralako.
 4. Zorionekoak zuzentasun edo justiziarren gose ta egarria dutenak, aseak izango diralako.
 5. Zorionekoak errukitsuak, errukia iri-chiko dutelako.
 6. Zorionekoak biotz garbia dutenak, Jainkoa ikusiko dutelako.
 7. Zorionekoak paketsuak, Jainkoaren seme deituak izango diralako.
 8. Zorionekoak justiziagatik persekuzioa padezitzen dutenak, zeruetako erreinoa berena izango dalako.
- G. ¿Zer esan dituzu orain?
- E. Zortzi zoriontasunak.

G. Zoriontasunak zer dira?

E. Izpiritu Santuaren doaien bertutezko obrik onenak.

G. Biotzez pobreak zenor dira?

E. Eragabeko onrik eta aberastasun chikienik ere, nai ez dutenak: Jainkoak emandako suerteaz kontentatzen diranak; edo Jainkoaren izenean pobre egiten diranak.

G. Mansoak zenor dira?

E. Eragabeko aserre chikienik ere ez dutenak.

G. Lurra zenola menderatuko dute?

E. Beren buruen jabe diralarik.

G. Negar egiten dutenak zenor dira?

E. Debekaturik ez dauden atsegiñak ere, uzten dituztenak.

G. Justiziaren gose ta egarria dutenak zenor dira?

E. Gauzik chikienetan ere, utsik ez egitera saiatzen diranak.

G. Errukitsuak zenor dira?

E. Ez-ezagun eta arrotzakin ere, biotz ona dutenak.

G. Biotz garbidunak zenor dira?

E. Beren griña gaizto guziak oso ezitzen saiatzen diranak.

G. Paketsuak zenor dira?

E. Beren buruakin eta besteakin benazko pakea egiten dutenak.

G. Justiziagatik padezitzen dutenak zenor dira?

E. On bidean sendo daudenak, naiz persegituak izan.

G. Oiei ¿zergatik deitzen zaie zoriontasunak?

E. Bizitz ontako zoriona, eta bestekoaren esperantza beretan dagolako.

G. Eta betiko zoriona iristeko erabide egokiak ¿zer dira?

E. Sakramentuak maiz artzea, goiz guzietan Jainkoari lanak eskaintzea, egunoro Meza entzutea, errosarioa erreztatzea, gauoro esamina egitea, liburu onak irakurri ta adizkatu edo meditatzea, (itz batean guzia adirazteko) konpesore on bat autu, eta guzian berari obeditu; berak aingeru batek bezela, zeruko bidean giatu gaitzan.

G. Jainkoak guziok araase eraman gaitzala.

E. Amen.

KONPESIO AURRETIK

DAMUA BIOTZEAN SORTZEKO PENTSAKISUNAK.

1.^a Pekatuagatik zeruko aingeru ederrak chimista bezela inpernuko su-leizera erori ziran, eta deabru ichusi zorigaiztoko egiñik, ango su-garren erdian betikotasun guzian izan bearko dute.

2.^a Pekatuagatik lenengo gurasoak lurreko Loretegi zoriontsua galdu zuten; anima-

ko illuntasunak, gorputzeko griña charrak, munduko negar-bideak eta guziok ill bear tristea beren eta ondorengo guzietara etorri-rik, gizadi guziarentzat zeruko ateak ichirik geratu ziran.

3.^a Pekatuaren okerrak zuzentzeko, Jainko-Gizonaren odola bear izan zan; eta gu zeruko bidean jartzeko, ezin esan alako pena ta oñazeen artean, zigun naitasunez, Jesus gure Salbatzalle maitagarria Gurutze batean il zan.

4.^a Pekatu mortala egiten duanak, Jainkoaren adiskidetasuna ta animako bizitza galtzen ditu, eta grazizko ondasunak ere bai; inpernuko etsaiaren mendean gelditzen dala; ortik barrengo kezka ta illuntasunak sortzen zaizkio, eta bizibideko lanetan ere Jainkoaren aserrea sentituko du: egoera triste ortan dagoen bitartean, inpernuaren gañean ari batetik zintzilik bezela arkitzen da; eta orduan illko balitz, betiraunde guzirako galdua legoke.

5.^a Pekatu benialak Jainkoaren grazia ez du oso galdu erazitzen; baña anima eritua eta ichusitua geratzen da; eta bekatu benialaren zale dana, pekatu larrietan laizter erortzen da; eta serbitzari nagi eta epela dalako, Jainkoak grazi ta mesede berezirik ez dizkio emango; eta egoera ortan iltzen bada, zeru ederrean ez da sartuko, Purgatorioko suaz oso garbitu arteraño.

(*Biotzetik*=Jesukristo nere Jauna=esan beza bein eta berriz, eta Jesus gurutziltzatua zauriak adoratuaz, bost Aita gure, Ave Mari ta Glori errezatu bilza, pekatuaren ezagüera, gorroto santua, eta biotzeko damua umilki eskatzen dizkiola.)

KOMUNIORAKO PRESTAERA.

FEDEZKO EGINTZA.

¡O nere Jesus, egizko Jainko ta Gizona! Zure aginduz, Elizak irakasten didan guzia sendoki sinisten det; eta batez ere sinisten det, Sakramentu Santu ortan egiz zaudela, zeruan zauden bezela; Zuk ala agertu dezulako, ta zure itzak ezin erratu dezakelako.

DAMUZKO EGINTZA.

¡O nere Jesus! Zu aizkengaberik ona, Santu ta maitagarria izanik, ainbeste aldiz ofenditu zaitudalako, biotz guziz damu det, eta guziz gañ maite zaitut.

UMILTASUNEZKO EGINTZA.

Jauna, ez naiz ni diña, Zu nere biotzean artzeko; baña itz bat esan zazu, ta nere anima salbatuko da. (*Iru aldiz esaten da.*)

KOMUNIO ONDORENGO

FEDEZKO EGINTZA.

¡Nere Jesus ona, nere Jainko ta Jabe bakarra...! nere Aita gozoa, nere barrunbean zaudede. Egi pozkarri au biziro sinisten det; baña Jauna, Fede Santu au gero ta geigo nigan piztu zazu.

OTOITZA.

¡Nere Jesus eta Ongille maitagarria! Guziz gain eta biotz osoz maite zaitut, eta aiñ onginaiz nere biotzera etorri zeran ezkerro, animarako ta gorputzerako egoki zaizkidan grazi ta mesedeak eman zaizkidatzu. Jesus maittea, zure graziz beti nigan egon zaite, eta Sakramentu onen bidez Zure borondate adorgarria egiteko indartu nazazu, eta bertutezko bidea jarraitzen lagun zadazu, zerutar guzian kin betiko glorian alabatu zaitzadan. Alasen.

Jesusen Anima, Santu egin nazazu.

Jesusen Gorputza, salba nazazu.

Jesusen Odola, zure onez ase nazazu.

Jesusen Saietzeko ura, garbi nazazu.

Jesusen Pasioa, senda nazazu.

¡O Jesus ona! entzun zadazu.

Zure zaurien artean, gorde nazazu.

Zugandik alde egiten, utzi etzadazu.

Etsai gaiztoagandik, gorde nazazu.

Nere eriozko orduan, dei zadazu.

Zugana joateko, agindu zadazu.

Betiraunde guzietan zure Santuakin alabatu zaitzadan.

(Sakramentu Santuari sei *Aita gure, Ave Mari ta Gloria*) hakoitzean esaten dala:

G. Bedeinkatu ta alabatua izan dedilla Jesus Sakramentatua.

E. Beti bedeinkatu ta alabatua izan dedilla.

Aizkenean Jesusen eta Mariaren Biotzai *Kredo ta Salve bat*.

**Urtean bein guchienaz
egin bear diran Fede, Esperantz
eta Karidadezko egintzak.**

FEDEZKO EGINTZA.

Sinisten det, dala egizko Jainko bat, eta iru Persona banaroak; oiek dirala Aita, Semea, ta Izpiritu Santua. Sinisten det Trinitade chit Santuko bigarren persona Gizon egin zala Maria chit Santuaren errai garbietan Izpiritu Santuaren graziz eta egitez, Señora au beti Birjiñ gelditzen zala, Semea egin baño len, egitean eta egin ezkeru. Sinisten det Jaun onek padezitu zuala, ta ill zala gu salbatzeagatik; piztu zala illen artetik irugarren egu-

nean; igo zala zeruetara, eta etorriko dala biziak eta illak epaitzera: au da, onak sariztatu ta gaiztoac kastigatzera. Sinisten det Aldareko Sakramentu Santuan dagoala Jesukristo gure Jauna, egizko Jainko ta Gizon zeruan dagoan bezela. Sinisten det Ama Eliza Santu Katoliko Erromakoak sinisten duan guzia, eta Fede ontan nai det-bizi ta ill.

ESPERANTZAZKO EGINTZA.

Esperantza daukat Jainkoagana, barkatuko dizkidala nere pekatu guziak, eta bere grazi ta gloria emango dizkidala bere miseri-kordi azkengabeagatik, Jesukristo nere Jai-naren merezimentuakgatik, egiten badet nere partetik obligazio dedana, ta egin dezakedana, au da, egizko penitentzia.

KARIDADEZKO EGINTZA.

Jainkoa amatzen det beste ganz guziak baño geiago, ta naiago ditut guziak galdu, nere Jabe andia openditzea baño; eta nai nuke amatu munduko justu guziak, zeruko zorioneakoak eta Serapiñ guziak amatzen duten bezela. Eta al baliteke, nai nuke amatu Beraren Ama ta nere Señora Maria chit Santuak amatzen duan bezela. Oraindaño ez amatua, len openditua, ta izatea len eta gaur Bera ain-

beste openditzen dutenak, eta guziak egiñ al guziz ez amatzea nere Jainko ta nere Salbatzalle maitagarria, Bera dana dalako; damu det, damu det nere biotz guzitik, eta asmo sendoa artzen det nere bizitza ontzeko, eta azkeneraño aren serbitsu santuan irauteko, bere grazia lagun dedala. Amen. Jesus.

ERROSARIOA.

*Errosarioa esateko jaiera, Birjiña chit Santuaren gogokoa, ta Aita Domingo Santuari berak irakatsia da. Santu onek jaiera onezaz, eun milla ta geigo ereje Eleizaren barrutieta-
ra erakarri zituan. Eta gnok esan ordea, zenbat pekatari alera zituan pekatuen osinelik? Elzaitzlela kontentatu Errosarioa nolanai esateaz; baizik esazule ongi, ta Eleiz Ama Santuak nai duan eran, au da, Jesukristoren bizitzari, erio-
tzari, ta piztutzeari dagozkion Misterioak gogora ekarriaz. Onela errezatzen dutenentzat, bar-
kamen asko ta andiak, elkarren leian bezela Aita Santuak eman dituzte; baña Misterio oiek nola gogoan erabilli ez dakianak, esan beza Errosarioa alik ongien, eta Jesus bere Ama maitagarriarekin onratzeko ta alabatzeko gogoz, eta besteak bezela induljentziak irabaziko ditu. Ata erabaki zuan irugarren Benedicto Aita*

Santuak (a). Astelen *eta* ostegunetan *gogoan* erabili oi *dira* Jainkoaren Gizon egitea, *ta* ondorengo *bizitza ta Misterio oiei derizte*, Gozozkoak: *astearte ta ostiraletan*, Jesusen neke-
oñaze *ta* eriotza; *eta Misterio oiei derizte* Dolo-
rezkoak; *Igande, asteazken eta larunbaletan*, Jesusen piztutzea, *eta ondorengo Misterioak* izendatzen *dira*: Glorizkoak. *Ara nola egiten dan au guzia.*

(Errosarioaren asieran kontriziozko aldi bat, ziñez pekatu guziz damutzeko egitea egoki da; grazian daudenentzat premizkoa ezpada ere, eta ondoren errezatuko dute orañ irakatsiko dan eran:)

ERROSARIOA.—Gurutze Santuaren, etc.—Jesukristo nere Jauna, etc.

(*Esaleak*):—Grazizko Ama, errukizko Ama, orain gorde, *ta* eriozko orduan ar gaitzatzu.

Erantzuleak:—Gozozko lenengo Misterioa: Jainko-Semearen Gizontzea.—*Aita gurea, amar Ave Mari ta Gloria.*—Ostera *Grazizko Ama, errukizko Ama, etc.*, *eta* bigarren *eta* beste Misterioaz, letaniraño, orrela joan bear da.

(a) Benedictus XIII. Constit. quæ incipit pretiosus.

Astelen-Ostegunetarako

Gozozko Misterioak.

Lenengo Misterioa:—Jainko-Semearen Gizontzea.—(*eskaria*: Umiltasuna.)

Bigarren Misterioa:—Isabel Santari Ama Birjiñak egin zion bisita.—(*eskaria*: Karidadea.)

Irugarren Misterioa:—Jesukristo gure Jaiuaren jaiotza.—(*eskaria*: Biotzeko pobretasuna.)

Laugarren Misterioa:—Ama Birjiñaren Eliz-sartzea.—(*eskaria*: Obedientzia.)

Bostgarren Misterioa:—Jesus-Aurra galdua arkitua.—(*eskaria*: Jesusen antzeko izatea.)

Astearte-Ostiraletarako

Dolorezko Misterioak.

Lenengo Misterioa:—Jetsemaniko baratzen Jesusen orazioa.—(*eskaria*: Pekatuen damua.)

Bigarren Misterioa:—Jesusi eman ziozkaten azoteak.—(*eskaria*: Sentiduen ildura.)

Irugarren Misterioa:—Arantzazko koroa.—(*eskaria*: Gogoaren ukamena.)

Laugarren Misterioa:—Jesus Gurutzez kargatua.—(*eskaria*: Neko-penetan pazientzia.)

Bostgarren Misterioa:—Jesusen Gurutzeko eriotza.—(eskaria: Jainkoa guziz gañ amatzea.

Asteaizken-Larunbat-Igandeetarako

Glorizko Misterioak.

Lenengo Misterioa:—Jesusen piztuera.—(eskaria: Onbiurtzea.)

Bigarren Misterioa:—Jesusen zeruratzea.—(eskaria:—Zerurako deseoak.)

Irugarren Misterioa:—Izpiritu Santuaren etorrera.—(eskaria: Izpiritu Santuaren doaiak).

Laugarren Misterioa:—Ama Birjiñaren Jasoera.—(eskaria: Eriotz ona.)

Bostgarren Misterioa:—Zeruko Erregiñaren Koroatzea.—(eskaria: Ama Birjiñaganako konpianza.)

Maria chit Deunaren Letaniak.

Kyrie eleison.
Christe eleison.
Kyrie eleison.
Christe audi nos.
Christe exaudi nos.

Pater de cœlis Deus.
Fili Redemptor mundi Deus.
Spiritus Sancte Deus.
Sancta Trinitas unus Deus.

Sancta Maria.
Sancta Dei Genitrix.
Sancta Virgo Virginum.
Mater Christi.
Mater Divinæ Gratiae.
Mater purissima.
Mater castissima.
Mater inviolata.
Mater intemerata.
Mater immaculata.
Mater amabilis.
Mater admirabilis.
Mater boni consilii
Mater Creatoris.
Mater Salvatoris.
Virgo prudentissima.
Virgo veneranda.
Virgo prædicanda.

Miserere nobis.

Ora pro nobis.

Virgo potens
Virgo clemens.
Virgo fidelis.
Speculum justitiæ.
Sedes sapientiæ.
Causa nostræ lætitiæ.
Vas spirituale.
Vas honorabile.
Vas insigne devotionis.
Rosa mystica.
Turris davidica.
Turris ebúrnea.
Domus aúrea.
Fœderis arca.
Janua cœli.
Stella matutina.
Salus infirmorum.
Refugium peccatorum.
Consolatrix afflictorum.
Auxilium Christianorum.
Regina Angelorum.
Regina Patriarcharum.
Regina Prophetarum.
Regina Apostolorum.
Regina Martyrum
Regina Confessorum
Regina Virginum.
Regina Sanctorum omnium.
Regina sine labe originali concepta.
Regina sacratissimi Rosarii.

Ora pro nobis.

- V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
R. *Parce nobis, Domine.*
V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
R. *Exaudi nos, Domine.*
V. Agnus Dei qui tollis peccata mundi.
R. *Miserere nobis.*
V. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix.
R. *Ut digni efficiamur promissionibus Christi.*

OREMUS.

Gratiam tuam, quæsumus, Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante, Christi Filii tui Incarnationem cognovimus, per Passionem ejus et Crucem, ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

Divinum auxilium sit semper vobiscum.
Amen.

Maria chit Deunaren Letaniak

EUSKERAZ.

Jauna, erruki zaite.

Kristo, erruki zaite.

Jauna, erruki zaite.

Kristo, adi gaitzatzu.

Kristo, entzun gaitzatzu.

Zeruko Aita Jainkoa.

Erruki zaite guzaz.

Munduaren Berterosle Seme Jainkoa.

Erruki zaite guzaz.

Izpiritu Santu Jainkoa.

Erruki zaite guzaz.

Trinidad Santu, Jainko bat zerana.

Erruki zaite guzaz.

Maria Deuna.

Jainkoaren Ama Deuna.

Birjiñen Birjiñ Deuna.

Kristoren Ama.

Jainkozko graziaren Ama.

Ama guziz garbia.

Ama guziz kastoia.

Birjiña zeralarik Ama.

Ama tacharikgabea.

Ama sortzetik garbia.

Ama maitagarria.

Ama miragarria.

Epai onaren Ama.

Gure aldez erregu zazu.

Kreatzallearen Ama.
Salbatzallearen Ama.
Birjiñ chit begiramentsua.
Birjiñ beneragarria.
Birjiñ alabagarria.
Birjiñ altsua.
Birjiñ biotz beraa.
Birjiñ leiala.
Onoide guzien ispillua.
Jakinduriaren eser-lekua.
Gure poz emallea.
Ontzi gogokoia.
Ontzi onoregarria.
Naitasunaren ontzi bikaina.
Arrosa misteriosoa.
Dabiden torrea.
Marpillezko torrea.
Urrezko echea.
Elkartasunaren kucha.
Zeruko atea.
Egun sentiko izarra.
Erien osasuna.
Pekatarien iges lekua.
Atsekabetuen pozkida.
Kristauen laguntzallea.
Aingueren Erregina.
Aitagaien Erregina.
Igarleen Erregina.
Apostoloen Erregina.
Martirien Erregina.

Konpesoreen Erregiña.

Santu guzien Erregiña.

Jatorrizko manchagabe sortutako Erregiña.

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren bildotsa. *Barka zaiguzu, Jauna.*

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren bildotsa. *Entzun zaiguzu, Jauna.*

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren bildotsa. *Erruki zaite guzaz.*

W. Jainkoaren Ama Santua, erregu zazu gugatik.

R. Kristoren aginsarien diña egin gaitean.

ORAZIOA.

Gure animetan zure grazia iguzu, Jauna, ta Kristo zure Semearen Gizontzea, Aingeruak adierazirik, ezagutu degunok, bere Pasio ta Gurutzearen bidez piztuerako glorira eramanak izan gaitean. Kristo gure Jaun beraगतिक. Ala izan dedilla.

Goizeko jarduera chikia.

Gurutze Santuaren † sinaleagatik, gure † etsaiaetatik libra gaitzatzu † gure Jaun eta Jainkoa. Aitaren eta Semearen † eta Izpiritu Santuaren izenean. Amen.

Jainko guzialtsu, zeruko nere Aita errukiz

betea, egiten dizkidatzun ezin konta ala mesedegatik, esker onak ematen dizkitzut, batez ere, egun ontara ekarri nazulako. Nere lan eta neke guziak zure izen santuagatik izan bitez.

Jesusen Biotzari.

Jesus maitagarriaren Biotz Jainkozkoa, Zuganako maitetasuna gero ta geiago nigan piztu zazu, eta pekatutik eta gaitz guzietatik libra nazazu. *Kredo bat.*

Aingeru goardakoari.

Jainkoaren aginduz nere zaitzalle zeran Aingeru santua, bide guzietan gorde, zuzendu ta argi egin zadazu. Amen. *Aita gurea.*

Ama Birjiñari.

Jainkoaren Ama, ta nere Ama Birjiña maitea, lagun zadazu, umill, obeditzalle ta garbi beti izan nadin. Iru aldiz *Agur Maria ta Salve bat.*

Goiz, egüerdi ta arratzean ezkillat jotzean.

Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean. Amen.

Jaunaren Aingeruak Mariari aditzera eman zion; eta Izpiritu Santuaz aurdun arkitu zan. *Agur Maria.*

Ona emen Jaunaren mirabea: egin bedi nigan, zuk diozun bezela. *Agur Maria.*

Jainkoaren Semea gizon egin zan: eta gure artean bizi izan zan. *Agur Maria.*

G. Jainkoaren Ama Santua, erregu zazu gugatik.

E. Kristoren aginsarien diña egin gaitean.

ORAZIOA.

Gure animetan zure grazia iguzu, Jauna ta Kristo zure Semearen Gizontzea, Aingeruak adierazirik, ezagutu degunok, bere Pasio ta Gurutzearen bidez piztuerako glorira eramanak izan gaitean. Kristo gure Jaun beragatik. Ala izan dedilla.

Ur bedeinkatua artzean.

Ur bedeinkatua izan bedi, guretzat osasungarri.



Pentza zazu Jesusen Pasio ta Eriotza ikuston Kalbarioko mendian zandela, ta Meza entzuteko arret andiz presta zaitte. Lenbizi Ni pekataria esan zazu.

Mezaren eskeintza.

Aita neurrigaberik Santua, Jainko guzialtsu ta betikoa; Zure aurrean agertzeko diña ezpanaiz ere, sazerdotearekin batean Meza Santua eskaintzen dizut. Gauza guzien ga-

ñean dezun Jabetasun andia aitortzeko: egi-
ten dizkigutzun ezin konta ala mesedegatik
esker onak agertzeko: Gure pekatuen barka-
men eta ordañerako: Purgatorioko animen
alde: Eta bear ditugun laguntz eta mesedeak
zuri eskatzeko. Batez ere.... (*siñalatu beza ba-
koitzak irichi nai lukeana*).... Izan dedin Jain-
koaren onrarako, ill eta bizien onerako, ta
guzien betiko salbaziorako. Amen Jesus.

Ostia alchatzean.

Jesukristo gure Jaunaren Gorputz Jainkoz-
koa; biotz guzitik adoratzen eta maitatzen
zaitut. Zu naigabetua damu det.

Erruki zaite nizaz, Jauna,

Barka zadazu, Jesus ona.

Kaliza alchatzean.

Jesukristo gure Jaunaren Odol Jainkozkoa;
biotz guzitik adoratzen eta maitatzen zaitut.
Zu naigabetua damu det.

Erruki zaite nizaz, Jauna,

Barka zadazu, Jesus ona.

Komulgatu aurretik iru aldiz esaten dana.

Jauna, ez naiz diña, Zu nere biotzean artze-
ko; baña itz bat esan zazu, eta nere anima
garbitu ta salbatuko da.

Otordu aurrerako Orazioa.

† Aitaren, Semearen eta Izpiritu Santua-
ren izenean. Amen.

Ondasun guziak ematen dizkigutzun Jain-
ko andia, artzera goazen janaria bedeinka
zazu, zure borondate santua egiten beti bizi
gaitean. Ala izan dedilla.

Aita gure, Ave Mari ta Gloria.

Otordu ondorengo Orazioa.

† Aitaren, Semearen eta Izpiritu Santua-
ren izenean. Amen.

Eskerrak Jauna, eman diguzun janariaga-
tik. Okerren bat egin badegu, errukiz barka
zaiguzu, ta zure graziz gure animen betiko
janaria, Zu izan zaite. Ala izan dedilla.

Aita gure, Ave Mari ta Gloria.

Emen bildu geranak, zeruko mai santuan
bildu gaitezela. Ala izan dedilla.

Ordua jotzean.

Jesus onaren Biotz gozoa, ordu ontan zu-
re laguntza iguzu, zure grazian bizi ta ill
gaitezen, zeruan zurekin gozatzeko. *Agur*
Maria ta Gloria.

Gauerako jarduera chikia.

«Umilki belaunikaturik, gogoratu beza ba-koitzak, Jainkoa begira dagokiola, ta errezatu beza arretaz *Aita gure, Agur Mari ta Gloribat*, adimeneko argitasuna eskatuaz; eta goizetik eta arrátzera nondik-nora, norekin eta nola ibilli dan gogoratu beza, esamiñatuaz zearo, pentsamentuz edo deseoz, itzez, egitez, edo egin gabez, Jainkoaren, lagunaren edo bere buruaren kontra zerbaitetan utsik egin ote duan; eta pekatu guzien barkamenerako, esan beza biotzez *Jesukristo nere Jauna.....* aurrerakoan pekaturako bide, lagun eta irrizko guzietatik apartatuaz, ohea izateko asmo sendoa arturik.»

OTOITZA.

Zeruko Aita-Jainkoak gau on eta atsedeen bat digula: etsai gaiztoen sareetatik libratu, eta Aingeru santuak pake onean gorde gaitzatela; ta Jainko beraren bedeinkazioa beti gurekin izan dedilla. Aitarenen eta Semearenen † eta Izpiritu Santuaren izenean. Amen.

*Ama Birjiña onratzeko, ta bere babesa iris-
teko, gauz egokia da, Errosarioko misterio bat
bederen amarrekoaz, oerakoan errezatzea.*

LENBIZIKO IRAKURTZA.

*Gazteentzat kallegarri izan oi diran
amar adiskide mola.*

1.^a Jainkozko gauzetarako gogorik ez dutenak.

2.^a Era garbiz mintzatzen ez diranak.

3.^a Alper edo ardura gabeak.

4.^a Besteaz gaizki esaleak.

5.^a Mundutarrak: edo jazkera, jolas, teatro, joko, apustu, jan-edan eta dantzaz baizik itzegiten ez dutenak, eta gabaz ibilzaleak.

6.^a Buru-iritzi eta geiegizko apainduri zaileak.

7.^a Eskontz-kontu, eta maitekeri limuriz baizik itz egiten ez dutenak.

8.^a Lagunakin itsuskeriz eskuka eta muska ibilli oi diranak.

9.^a Paper liberalak baño gezurtigoak diranak.

10.^a Bere guraso ta senideakin onak ez diranak.

Abek guziak ezin ditezke ongarri izan gazteentzat; ezta zarrentzat ere.

BIGARREN IRAKURTZA.

LIBERALKERIA

G. Liberalkeria zer da?

E. Guzian edo partean Jainkoaren legeari eta bere Elizak irakasten duanari kasorik egin gabe, erriak gobernatu nai izatea.

G. Eta liberalkeria zer pekatu da?

E. Eriozko pekatua, eta berez Jesukristoren etsaia.

G. Eta liberalkeria zñola da Jesukristoren etsaia?

E. Jesukristoren kontra itz egiteko, izkribatzeko eta irakaspén gaiztoak zabaltzeko eta gaiztakeri asko egiteko libertadea ematen dualako.

G. Irakaspén oiek zabaldu ezkeró zer gertatzen da?

E. Belar gaiztoa ereiten dan soroan gertatzen dana: gari ona galdu, eta belar charra ugaritu.

IRUGARREN IRAKURTZA.

JAKINTSU BATEN ESAERAK.

1.^a Gaur erreñ egin diteken lana, ez bigar-ko utzi.

2.^a Zedorrek erreñ egin dezazuken lanaz, ez besterik arazotu.

3.^a Zerea ez dezun dirurik ez gastatu.

4.^a Bakarrik ederra ta merkea dalako, bear ez dezun gauzik ez erosi.

5.^a Gose-egarri ta otz-beroak baño, choreria gariztigoa izaten da.

6.^a Guchi jan eta edaten degulako, guchitan damutu oi gera; baño geiegi egin degulako maiz.

7.^a Gogo onez egiten degun lana, etzaigu neketsua iduritzen.

8.^a Iduripenean baizik iñon ere gertatu etzaizkigun gaitzak, askotan gure biotza samintzen digute.

9.^a Gertaldi guziak, beti alde onetik artu itzatzu.

10.^a Aserre bazera, itz egin baño len zazpi *Agur Mari* errezatu; eta oso aserretua bazau-de, *amabost amarreko*.

LAUGARREN IRAKURTZA.

Egizko Jakinduriaren asiera Jainkoaren beldurra da.

Santutasunaren asiera, umill edo apaltsu izatea da.

Gizon begiramentsu baten epai on gabe, ez da ezer egin bear.

Zure egikera guziak Jainkoaganontz zuzendu itzatzu.

Guziz gañ Jainkoa maite izan zazu.

Charkeriari ez charkeriz erantzun.

Besteren charrik ez erraz sinistu.

Alperrik ez geiegi leiatu.

Jainkoaren gogoari makurtu zatzaikio.

Miñ emateko itzik ez inñori esan, bear gabe.

Beartsuen ongille izan zaite.

Zure biotzeko soroan zale gaiztorik ez ereiñ.

Zure señide ta lagunaren bidegabekeriak aztu itzatzu.

BOSTGARREN IRAKURTZA.

Zure esperantzaz, Jainkoagana jarririk, lan onak egiten alegindu zaite.

Jainkoaren eraz kristabak beti bizi bear du, ta guzi-guzian Berari atsegin eman bear dio.

Suge pusuotsu bategandik bezela bekatutik iges egizu, eta ustezko bekatutik ere aldegizu.

Gaitz chikiari jaramonik egiten ez diona, andietan eroriko da.

Egazia egaratzeko bezela, gizona lan egiteko jaioa da.

Zure biotzean aserreari sartzen ez utzi, eta zure lagunari ez gaizki itz egin.

Gezurra Jainkoak eta gizonak gorrotatzen dute.

Askoren artean zaudenean, itz guchi egizu, eta gauz guzietan apaltsua eta umilla izan zaite.

Zerbait egingo dezula ez inñori erraz agindu, eskubidea galtzea dezu-ta.

Edozer erabaki ez dezu erraz artu bear, uts egiteko zorian jartzen zera-ta.

SEIGARREN IRAKURTZA.

Gizon gezurtia onore gabe bizitzen da, alde guzietara lotsariak jarraitzen dio, eta guziak urruintzen dute.

Lagun charretatik iges egizu, beren egintz gaiztoak arrastatu etzaitzaten; ori askoren galera izan da-ta.

Pekatariaren aberastasun eta goraldia ez ditzatzula nai izan, kea bezela utseratuko dira-ta.

Gizon arrokeritsua gaizkindua izango da, ta bere aizkena errukarria. Jainkoak ala dio.

Egizko jakinduria ikasten saiatzen ez dana, gaitz askotan amilduko da.

Bere burua asko maite duanak, bere uts egiteak ez ditu ezagutzen.

Ongi itzegin eta guziai on egiten saiatzen dana, sari gabe ez da geratuko.

Entzun, ikusi, eta isillik gordetzea, gauz atsegiña izan oi da.

Zoriona eta zorigaitza, Jainkoak erabakitzen ditu.

Gaizki irabaziaz ez uste geiegi artu, eta bizitzeko diña badezula, ez esan; illuntasun

eta eriotza laizter datozkitzu, eta orduan zure kaltean izango dituzuta.

ZAZPIGARREN IRAKURTZA.

Gizon sentzu gabea bere biziera baño oberrik ez dala sinisturik dago; eta epai okeronen beste epallerik ez du ezagutu nai.

Bere begiramen edo jakindurian bakarrik piatzen danari, danik argien eta jakintsuena bada ere, bere egitekoak oker aterako zaizka.

Mundu gaiztoaren gertakari, oitura ta irakatsi gezurtiak beraganatzen bazaituzte, Jesukristoren etsaia zera.

Justua ta onestua ez dan gauz guzietatik, iges egin bear degu; eta baita Jainkoaren eta gizonen lege zuzenen kontra diran gauzetatik ere.

Apaizak beneratu, nagusiak onratu eta gurasoai obeditzen badiezu, ongi ikusia izango zera.

Gurasoai begiramen ona galtzea, eskerga-bekeririk beltzena dala ezagutzen ez duan gizon ain adimen guchikorik, ez diteke izan.

Beartsuari ez miñik eman; larrituari laguntzea ez luzatu, eta atsekabetuari biotz onez aditu zaiozu.

Beartsuen artean aurpegi onez ager zaito, eta zarragoari umillatu zatzaikio, eta nagusiarri zere burua makurtu zaiozu.

ZORTZIGARREN IRAKURTZA.

Begiramena, zuzendea, indartea ta gogiroa; lurbiran gizonarentzat oiek baño gauz oberrik ez da.

Onestua, begiramentsua, ta jainkotia izan zaite, eta Jainkoari ta gizonai oniritzia izango zera.

Limosna ta errukizko lan onak Jainkoak saristatzen ditu, ez bakarrik mundu ontan, baizik baita beste munduan ere.

Lenaz pentsatzen ez duten sentzugabeai bezela, gero damutu ez dagizun, gauz bat egin baño len, zer egitera zoazen ongi pentsa zazu.

Etzaite sentzun gabeen artekoa izan; eta betaz ongi pentsa zazu, gaztea izan arren, jakintsua ta begiratua izateko adiña badezula.

BEDERATZIGARREN IRAKURTZA.

Mingaña gordetzen duanak, bere anima gordetzen du; baña bere itzetan kontuzkoa ez dana, gaitz askotan eroriko da.

Salbatzeko, gaiztakeria uztea ez da naikoa; baizik lan onak egitea ere, bear bearreko gauza da.

Alperkeriari guzia astuna iduritzen zaio; eta bizkortasunak berriz guzia erraza arkitzen du; esakera dan bezela: pazientzi eta lanaren bidez guzia garaitzen da.

Besteri on egin nai badiozu, luzapen gabe egiozu; laizter ematen duanak, bi aldiz emango balu bezela da-ta; baña agindu, eta egiten ez duanak, esker on guziak galtzen ditu.

AMARGARREN IRAKURTZA.

Zure bearkizunak osoro egiten, etzaite alper nagia izan: gizon jakintsua alperkeriatik gordetzen da; gaiztakeri ortatik, kalte asko sortzen diralako.

Kristauaren abotik, itz gaiztorik ez da atera bear; itz gaizto batek biotza usteldu lezaketa.

Jainkoaganako naiera, guzirako ongarri izaten da; orren bidez Jainkoak bizitz ontako ontasunak bezela, bestekoak ere ematen ditu.

Aurtasunetik jakinduriaren jabe egiteko lan egizu; Jainkoaren itz abek gogoan idukiaz: «Egizko jakinduria nai badezu, Jainkoaren aginduak egin.»

A. M. D. G.

ARKI-BIDEA.

	Orrialde
ITZ AUREA	I
I. IRAKURTZA.—Munduaren ezerezetik egi- teaz.	1
II. IRAKURTZA.—Gizonaren lenbiziko be- katua.	5
III. IRAKURTZA.—Ugoldea ta lege jatorra.	9
IV. IRAKURTZA.—Abraan eta beste Aita- len edo Patriarkak.	14
V. IRAKURTZA.—Ijitoko katibutasuna ta Pazkoa.	18
VI. IRAKURTZA.—Israeltarren eremuko bidea ta lege izkribatua.	22
VII. IRAKURTZA.—Israeltarrakin Jainkoa- ren Testamentua edo alkarkidea.	27
VIII. IRAKURTZA.—Idolatria.	33
IX. IRAKURTZA.—Dabid eta Mesias.	37
X. IRAKURTZA.—Samariako zisma edo eba- kitza.	41
XI. IRAKURTZA.—Igarle edo Profeten ga- ñean.	45
XII. IRAKURTZA.—Babiloniko katibuta- suna.	50
XIII. IRAKURTZA.—Zertan gelditu ziran Juduak.	54
XIV. IRAKURTZA.—Judu izpiritukoia ta aragikorrak	57

XV. IRAKURTZA.—Jesukristoren Jaiotza.	60
XVI. IRAKURTZA.—Oraindaño esan danaren bilgura laburra.	67
XVII. IRAKURTZA.—Juan Bautista Santua.	73
XVIII. IRAKURTZA.—Apostoloen deia. .	76
XIX. IRAKURTZA.—Jesukristoren predikazioa	80
XX. IRAKURTZA.—Jesukristoren etsaiak.	83
XXI. IRAKURTZA.—Jesukristoren Pasioa.	87
XXII. IRAKURTZA.—Jesukristoren Eriotza.	91
XXIII. IRAKURTZA.—Jesukristoren Piztuera.	94
XXIV. IRAKURTZA.—Apostoloen gain, Izpiritu Santuaren etorrera.	98
XXV. IRAKURTZA.—Jentillen edo lege gabeko jendeen deia.	102
XXVI. IRAKURTZA.—Eleiz-egitea. . . .	106
XXVII. IRAKURTZA.—Jesukristoren eta Apostoloen irakastea.	110
XXVIII. IRAKURTZA.—Jerusalen-go ondarmendia.	113
XXIX. IRAKURTZA.—Eleizak bere etsaien aldetik ikusi zuan neke jarraio gaizto edo persekuzioa.	115
XXX. IRAKURTZA.—Eleizako pake ta bakarzaleen asitzea.	119

KRISTAU IKAS-BIDEAREN

BIGARREN PARTEA.

I. IRAKURTZA.—Fede, Esperantz eta Kari- dadea.	123
II. IRAKURTZA.—Trinidad e do Irubata- sun Santua.	127
III. IRAKURTZA.—Jainko-Semearen Gizon- tzea ta gure Erospena.	131
IV. IRAKURTZA.—Jesukristoren inpernue- tara jęstea, aren piztuera ta zerura igo- tzea.	134
V. IRAKURTZA.—Aizken-Epaia.	137
VI. IRAKURTZA.—Izpiritu Santua	140
VII. IRAKURTZA.—Eleizarena.	143
VIII. IRAKURTZA.—Santuen Komunio e do Alkartasuna	147
IX. IRAKURTZA.—Bekatuen barkamena.	150
X. IRAKURTZA.—Piztuera ta betiko bizitza.	153
XI. IRAKURTZA.—Aita gureko orazioa.	157
XII. IRAKURTZA.—Aita gurearen jarraioa.	160
XIII. IRAKURTZA.—Gaņerako otoitz e do orazioaz.	162
XIV. IRAKURTZA.—Amar Aginduak.	166
XV. IRAKURTZA.—Lenengo iru aginduak.	168
XVI. IRAKURTZA.—Laugarren, bostgarren eta seigarren Aginduak.	171
XVII. IRAKURTZA.—Eleiz-Ama Santuaren lenengo iru Aginduak	175

XVIII. IRAKURTZA.—Eleizaren beste bi Aginduak.	178
XIX. IRAKURTZA.—Sakramentuak	181
XX. IRAKURTZA.—Bataioa	184
XXI. IRAKURTZA.—Konfirmazioa.	187
XXII. IRAKURTZA.—Aldareko Sakramentuak.	190
XXIII. IRAKURTZA.—Komunioa	193
XXIV. IRAKURTZA.—Penitentzi edo Konpesioa.	196
XXV. IRAKURTZA.—Gai berari darraikana.	200
XXVI. IRAKURTZA.—Aizken-Oleazioa	203
XXVII. IRAKURTZA.—Ordена.	206
XXVIII. IRAKURTZA.—Ezkontza.	210

KRISTAU IKAS-BIDEAREN

OSAGARRIA.

Komulgatu bear dutenak guchienaz jakin bear dutena.	215
<i>Kristau Dotriñaren bigarren partea: Zer eskatu bear dan.</i>	245
<i>Irugarren partea: Zer egin bear dan.</i>	250
Eleiz Ama Santuaren aginduen agerkera.	265
<i>Laugarren partea: Artu bear diran Sakramentuak</i>	269
Pekatu kapitalak eta bertuteak.	279
Zoriontasunak	282

Konpesio aurretik pentsakizunak.	284
Komuniorako prestaera.	286
Komunio ondorena.	287
Fede, Esperantz eta Karidadezko egin- tzak.	288
Errosarioa.	290
Letaniak latinez	294
Letaniak euskeraz.	297
Goizeko Jarduera chikia	299
Mezaren Eskaintza	301
Otordurako Orazioak	303
Ordua jotzean.	303
Gauerako Jarduera chikia.	304
Amar Irakurtz.	305



JESUSEN BIOTZARI

*¡O biotz gozo
Jesusena!
¡Gure biotzen
Gozamena!*

1

Maitetasunez
Erituba,
Gogor arantzaz
Koroituba,
Gugatik Gurutz
Iltzatuba,
Guztiya penaz
Saminduba.

2

Zinduztenean
Gurutzetu,
Maitetasunez
Ziñan lertu;
Guzti guztiya
Odol-ustu;
Gu salbatzeko
Erioztu.

3

Maitezko labe
Gorituba,
Karidadeaz
Su-gartuba,
Sutu ezazu
Gaur munduba,
Gizonen biotz
Izotuba.

4

Ainbesteraño
Nazu maite,
Biotza eskaintzen
Beti zaude;
Jesus laztana
Bai nik ere
Zuri erantzun
Nai nizuke.

5

Albanezake
Nik ordaindu,
Ainbeste oker
Ta pekatu;
Benaz eskaintzen
Natorkizu,
Biotz-odola
Ar zadazu.

6

Ez inpernu bat
Dagoalako,
Edo zeru bat
Neretzako;
Baizik zerana
Zeralako,
Beti zaitut nik
Maitatuko.

7

Umill eskatu
Nai nizuke,
Gure Jabe Zu
Egin zaite;
Zure menpean
Bageundeke,
Beti zorion
Lizaguke.

8

Sakramentuan
Zaude estali,
Guri egiten
Milla grazi;
;Bedeinkatuba
Izan bedi
Zure Biotza
Beti beti!

*Jesus onaren
Biotz ona,
Erruki zaile
Guzaz Jauna.*

IRIONDO.

JESUS MAITEARI

AURCHOEN DEIAK.

SARRI.

*Beti beti nere Jesus
Beti beti maite zailut.*

Trinidade Sar
Bigarren Persona
Zu zera, gure Jesus,
Jainko goiko-Gizona.

Oinuen bekatubak
Oinuen ez ginzan
Anindubiaz nagandik
Ainuen zio zihan.

Jose Mariaren
Oinuen zutuan,
Agur zian, Jesus,
Umilki munduan.

Izti zian, Jesus,
Zerutik lurrera,
Gureak ekartzeko
Zeruko bidera.

Maitezlikusteagatik
Oinuen oderrean,
Ziñan, Jesus ona,
Gurutze batean.

Jesus, gure biotzak
Pozkidatutzeko,
Gloriaz piztu zihan
Geiago ez iltzeko.

Graziz gure animak
Indartzeagatik,
Gurekin zaude, Jesus,
Sakramentaturik.

Jesus maite dezagun
Erbeste onetan,
Berakin gozatzeko
Gero zeruetan.



